

# Goienkaria

2006ko azaroaren 17a > Egubakoitza > VI. urtea > 265. zenbakia > Doan banatzekoak

www.goiena.net

## G2a

Oñatiko erretiratuak, orain, aktore > 43

BIRZIKLATZEA  
Papera eta kartoia botatzearen gaineko argibideak > 04

KOOPERAZIOA  
Gurean ikasten dihardute Brasilgo Lurrik Gabeko Nekazarieki > 06

KOMUNIKAZIOA  
'Sustatu.com' atariak bost urte bete ditu, eta asmo berriak ditu > 51

"Trenak garrantzia hartuko du eta errailak jarri beharko dituzte"

Luis Mari Intza > 09



EUSKARA > ARGITALPENA

## Kantu eta jolasen DVD eta liburua

Mankomunitateak berriz argitaratu du, eta gurasoei banatuko diente > 04

BERGARA > INGURUMENA

## Zaborrak, laster lur azpian

Bergarako lur azpiko lehenengo edukiontiak Gabonetarako bukatu nahi dituzte, urtarrilean erabiltzen hasteko moduan. Zabor organikoa, beira, papera eta kartoia, eta edukionti arinak jasotzeko edukiontiak egongo dira.

Lanak dagoeneko hasi dira, eta Komenio kalean dihardute. Sei zulo egiten ari dira edukiontiendako. > 24

ARRASATE > IKUSKIZUNA

## Zuberoako dantza emanaldia

Zuberoako 12 taldek ikuskizuna egingo dute bihar > 20

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 06-07  
Elkarritzeta > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-41  
Kultura > 45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

OSASUNA > LEHEN ARRETA, HERRITARREN AHOTAN

## Lehen osasun arretan, nahiak eta baliabideak aurrez aurre

**ESKAERAK** Baten, emagina; beste baten, larrialdiak... Zerbitzu batzuen falta igartzen dute zenbait herritan

**BALIABIDEAK** Osasun arduradunek diote ahalik eta zerbitzu onena ematen dela dauden baliabideekin

**LEGEBILTZARREAN** EAEko osasun zerbitzuaz eta lehen arretakoaz berba egingo dute bi batzordetan > 02-03



ADOS Eskoriatzako Udalak arrazoia eman zion Barrundiakoari eta, hala, mugarriak lekuz aldatu egin dituzte.

TXOMIN MADINA

## Eskoriatza eta Barrundia arteko mugarriak lekuz aldatu dituzte, azkenean ere

AUZI LUZEA IZAN ONDOREN, BI UDALAK ADOS JARRI DIRA, ETA EGUAZTENEAN LEKUZ ALDATU ZITUZTEN ZORTZI MUGARRI > 35

'DEBARRI' > OÑATI

## Arrikutzeko kobako lanak udarako bukatuko dituzte

Arrikutzeko kobazuloa eta hango apaingarriak gertu egongo dira udarako. Halaxe esan du Lurdes Idoiagak, Oñatiko alkateak, astean GOITBko Debarri telesaioan.

Beste gai askoren gaineko galderak erantzun ditu Idoiagak: ludoteka jarriko duten, herriko iturriak txukunduko

dituzten edo baserrietako lursailetan etxeak egiteko ze baldintza bete behar diren, besteak beste. Kirolegiaz, dendetan egin dituzten lapurretez eta autobusez ere jardun du. Aurreantzean, Zumarragara eta Bergarara doazen autobusak Olakuan eta San Lorentzon ere geldituko direla esan du. > 05

DEPORTIBOTASUNAK ETA DOTOREZIAK BAT EGITEN DUTENEAN...  
SEAT LEON BERRIA



Udalaitz

Gipuzkoako etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



**OSASUNA** > LEHEN ARRETA ZERBITZUA

# Lehen arreta ona bada ere, hobetzea eskatzen dute

**EMAGINA** Azken hilabeteotan, ez dago emagin zerbitzu onik ez Bergaran ez Aretxabaletan, nahiz eta osasun etxe bateko ezinbesteko zerbitzua izan

**OSASUN SAILA** Debagoiena oso ondo dagoela dio Osasun Sailak, Donostialdea baino hobeto; izan ere, han, erabiltzaile gehiago dago osasun etxe bakoitzeko

**LEGEBITSARRERA** Lehen arretako arazoak orokorrak dira EAEn, eta horretaz eztabaida egingo du batzorde batek Legebiltzarrean

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA Hainbat debagoiendar kezkutu daude Osakidetzako lehen arretako zerbitzuan gabeziak ikusten dituztelako. Hain zuzen ere, ahotxa altzatzen lehenak Bergarako eta Leintz ibarreko emakume batzuk izan ziren, hango osasun etxeetan emagina faltatzen hasi zelako.

Eta beste kezka batzuk ere badaude, batzuk aspaldikoak: adibidez, PAC gunea (Etengabeko Arretako Gunea) herri gehiagotan egotea eta pediatria zerbitzua modu jarraituan ipintzea herri txikietan ere.

Osakidetzako arduradunek, berriz, bai eskualdekoek bai Osasun Sailekoek, oro har herritarrei ulerkorra izateko eskatzen diente, eta konpon daitezkeen arazoak konpontzeko lanean ari direla esaten dute.

**EMAGINIK GABE** Edozein osasun etxek eduki behar dituen zerbitzuak hauek dira: lehen arreta medikua, pediatria, erizaintza eta emagina. Bada,

**Emaginekin arazoak  
jarraitu egingo duela  
ohartarazten dute  
arduradunek; izan  
ere, EAEn emagin  
gutxi dago**

**Herritarren kexak  
kontuan hartuta,  
Leintz ibarrean  
emakumeari arreta  
zerbitzua aldatzeko  
lanean dabilta**

Bergaran eta Aretxabaletan horietako bat faltan edo noizbehinka bakarrik dute: emagina.

Nereak, Aretxabaletako amagazte batek, esaten duenez, "abuztua igaro eta gero, emagina batbatean joan egin zen, eta umea orduan eduki zutenak erditze ondoko gimnasia barik gelditu ziren". Gerora, Eibartik, Arrastetik eta, orain, Legazpitik joan dira emaginak. Hori ere ez da konponbide onena, aretxabaletar horren iritziz: "Lehen eurek deitzen zizuten joan behar zenuela gogorarazteko; orain, zeuk hartu behar duzu ardura guztia".

Bergaran antzeko zerbaite geratzen da: emaginak baja edo oporrak hartzen dituenean, ez dago ordezkorik, eta bergararrek Arrasatera joan behar izaten dute.

Iñaki Arratibeak, eskualdeko gerenteak, hauxe dio: "Erkidego osoan emaginen eskasia daukagu, eta eskualdeko emaginak berrantolatu behar izaten ditugu gabezui erantzuna emateko. Hala ere, beharrezkoak diren zerbitzuak ematen direla berma-

tzen da, nahiz eta egunen eskaintza gutxiagotzen den". Horretarako pausoak ematen ari dira: Gabriel Elorriagak, Aretxabaleta eta Eskoriatzako arduradunak, dio ospitalearekin Ginekologia batzorde bat sortu dela Leintz bailaran emakumeari arreta aldatzeko, baina aldaketa ez dira epe laburrera izango.

## LARRIALDI ZERBITZU ESKE

Debagoiendarrek lehen arreta zerbitzu gero eta osoagoak nahi dituzte, eta herrian bertan. Izan ere, Debagoienean herri batetik bestera joatea derrigorrezko bihurtzen da oinarrizko zerbitzu batzuk jasotzeko.

Hala, herri txikietan bizi diren gurasoek beste osasun etxe batera joan behar dute sarritan pediatrarengana. Antzuolako ama batek honela dio: "Antzuolan astean behin dugu pediatra, eta bi ordurako bakarrik. Umearen lehen arreta medikua bera izanda, zergatik ez dugu zerbitzu hori egunero herrian bertan?". Oñati guraso batzuek, bestal-



OINARRIZKOA Lau zerbitzen dituzten osasun zentroa

de, Oñatin pediatra bakarra gutxiegi dela esaten dute.

Iñaki Arratibeak zerbitzua zelan antolatzen den azaltzen du: "Irizpide batzuk erabiltzen dira: besteak beste, Osasun Txartel Indibiduala; nagusi, haur eta kontsulta kopurua; zerbitzu asistentzialak... Azpimarratu behar da dauzkagun giza-baliabideekin guretzat ahalegin handia dela Antzuolan pediatria zerbitzua eskaintza".

Oñatiarrek beste eskaera bat ere badute, eta hori aspalditik dator: Oñatiak PAC edo Etengabeko Arretako Gunea behar duela deritzote. Orain dela zortzi urte hasi ziren hori eskatzeko mobilizatzen, baina ez dute lortu, eta

# MILAR ELKORO

Eta orain ere... **SUKALDE ALTZARIAK!**

- Eskatu aurrekontuak konpromiso barik.
- Neurrira egindako finantzaketa.



Milar Elkoro Olarte, 1 ARRASATE Tel.: 943 79 18 86



TV 37" TH 37 PX 60 EH

Lehen - 1.599 €

Orain 1.439 €

## TV PLASMA PANASONIC

- Kontrastea 10.000:1
- HD Ready
- 1.024 x 768 pixel
- XGA bereizmena
- PC Sarrera
- 2 HDMI
- TDT-a barne

TV 42" TH 42 PX 60 EH

Lehen - 1.999 €

Orain 1.799 €



## BEGI-KOLPE BATEN

### > OSASUN ETXEA

Herri bakotzak du bere osasun etxea. Lau dira derrigorrez egon beharreko zerbitzuak: familia medikuak, pediatra, erizaintza eta emagina. Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako osasun etxeak goiz eta arratsalde daude zabalik; besteak, goizez.

### > HERRI TXIKIAK

Antzuolan eta Elgetan zerbitzu batzuk ibiltariak dira, beste herri batzuetatik joaten dira medikuak: adibidez, pediatra Bergarako joaten da astean behin.

### > LARRIALDIAK

Larraldi zerbitzua dago Arrasateko ospitalean. Horren aurreko pausoak PAC da (Etengabeko Arretako Gunea). Bergaran badago. Harrera ordutegia 17:00etik 08:00etara da, astegunetan; zapatuetan, 14:00etatik aurrera; eta domeka eta jaiegunetan, 24 orduz.

PAC zerbitzua Oñatin ere jartea herritar talde baten aspaldiko eskaera da.

### > EMAGINA

Kanpotik joan behar izaten dute emaginek Bergarara edo Aretxabaletara. Lehen bezala, eguneroko zerbitzu eskatzen dute gero eta emakume gehiagok. Osasun etxeetako arduradunek esaten dute arazoa EAE osoko dela: emagin gutxi dagoela, alegia.

### > DENBORA

Debagoienean, medikuak gaixoezin emandako denborari dagokionez, erabiltzaileak pozik daude. Hala ere, txanda emateko moduan regatik, itxaron beharreko denbora luzatu egiten da: *Consumer* aldizkariaren arabera, Gipuzkoan sei minutu eta erdi da, batez beste, itxaron beharreko denbora.

### > KONPONBIDEAK

Hutsune gehien dituzten osasun etxeak lanean ari dira egoera hobetzeko.

Bestalde, Legebiltzarrean Osakidetzaren egoeraren gaineko bi batzorde eratuko dira.

tuta, horietako bat iristeko erraztasuna, eta Oñatik hor du arazoa". Gogoeta hau gaineratzen du: "Jakin, denok nahi dugu osasun zentroa, ahal bada, alboko etxeen. Baino Debagoiena oso ondo dago, Donostialdea baino hobeto; Donostialdean jende gehiago dago zentro bakar baterako".

Debagoienean, PAC eta larraldi guneak bi daude, bata Arrasaten eta bestea Bergaran. Bestalde, gurean ZIU (UVI) mugikorrik ez dago. Oinarrizko bizi-euskarri anbulantzia badago, eta Leintz ibarrera Gasteiztik ere bidaltzen dute. Hori larraldi zerbitzuak darama, eta telefonoa norberaren osasun txartelaren atzealdean dator.

Herritarren eskaerei erantzunez, hauxe dio Lurdes Uabetagoienak Osasun Saileko Gipuzkoako ordezkaritzaren izenean: "PAC guneak modu estrategikoan ipintzen dira, hainbat irizpide jarrai-

kontsultara pasatzeko itxaron egin behar izaten dutelako. Eroskiren *Consumer* aldizkariak egindako azterketa baten arabera, Gipuzkoan, gaixoek sei minutu eta erdi itxaron behar dute batez beste, eta %45,8 bakarrik sartzen dira bere orduan edo lehenago.

Blanca Roncal arrasatearrak, Legebiltzarreko Osasun batzordeko kide PSE-EERekin, hauxe dio: "Guztiz bat egiten dut mediku eskaerarekin. PSEren azterketa baten arabera, lehen arretan, medikuntza orokorreko eta pediatriako 300 mediku behar dira. Guk eskatzen dugu 1.500 laguneko mediku bat egotea".

Gehiago aurreratzen du Roncalek: "Azaroaren 30ean, bi batzordetan eztabaidatuko da gaia: baten, sailburua agertuko da, sindikatuek eskatuta, gaur egungo EAEko osasun sistema aztertzeko; eta bestean, zehazki lehen arretaren egoera landuko da. Kezka badago, eta hainbat forotan aztertzen ari da".

## EUSKARA

### Lehen arretako osasun zerbitzua elebakarra da nagusiki, baita Debagoienean ere

Debagoiena ibar euskalduna da, eta euskara erabilera datuak EAEko altuenetarikoak dira. Hala eta guztiz ere, debagoiendar askok ezin dute lehen arretako osasun zerbitzua euskaraz jaso, eta horregatik protestatu egiten dute.

Horretan ere, Debagoieneko egoera EAE osokoaren parekoa da: gaur egun, Osakidetzako langileen laurdenak bakarrik daki euskaraz. Kontseiluak eta Behatokiak, Osakidetzako lan deialdi publikoa baloratu ondoren, etorkizunean proportzio horrek berdin jarraituko duela salatu dute. Gabriel Inclanek, Osasun sailburuak, esaten du Osakidetzako 350 langile liberatuta daudela euskaraz ikasteko, eta beste 3.000 langilek ere ikasten dihardutela. Horrez gain, euskaraz ikasten laguntzeko programa bat ere badauka, webgune batek eta aldizkari batek osatua.

Bestalde, Debagoieneko ospitaleak helburu bezala dauka zerbitzua gero eta euskaldunagoa izatea, eta datu hori kontuan hartzen du erabiltzaileei egindako gogobetetasun galdeketetan.

oraingo, behintzat, Osasun Sialeko arduradunek ez dute aldatik aurreikusten.

Debagoienean, PAC eta larraldi guneak bi daude, bata Arrasaten eta bestea Bergaran. Bestalde, gurean ZIU (UVI) mugikorrik ez dago. Oinarrizko bizi-euskarri anbulantzia badago, eta Leintz ibarrera Gasteiztik ere bidaltzen dute. Hori larraldi zerbitzuak darama, eta telefonoa norberaren osasun txartelaren atzealdean dator.

Herritarren eskaerei erantzunez, hauxe dio Lurdes Uabetagoienak Osasun Saileko Gipuzkoako ordezkaritzaren izenean: "PAC guneak modu estrategikoan ipintzen dira, hainbat irizpide jarrai-

### LEGEBITSARREAN, BERBAGAI

Medikuak eurek ere piztu dute eztabaida; izan ere, joan den astean, Estatuko Plataforma 10 delako mediku elkartea grebak eta lanuzteak deitu zituen, lehen arretako medikuak gaixo bakoitzailekin gutxienez hamar minuto emateko aukera eskatzeko; gaur egungo sistemarekin, teorian, hori ezinezkoa da, ordu laurdenean behin hiruri ematen diotela txanda.

Debagoienean ez zen deialdia jarraitu; izan ere, zorionez, hemen ez dago arazo larririk medikuarekin emandako denborarekin; gehiago dago gaixoek

# Eski denboraldia 06-07

## ABENDUKO ZUBIA

### CAUTERETS

Abenduaren 5etik 10era - Autobusa - Forfait-a barne  
214 €-tik aurrera

### ANDORRA

Abenduaren 6tik 10era - Autobusa - Forfait-a barne  
383 €-tik aurrera

### SAINT LARY

Abenduaren 6tik 10era  
232 €-tik aurrera

### FRANTZIAR ALPEAK

Abenduaren 6tik 10era  
124 €-tik aurrera

### Zubirako beste aukerak:

- Paris 260 €-tik aurrera
- Lisboa 254 €-tik aurrera

Kontsulta itzazu  
Gabon jaiei begira ditugun  
eskaintza bereziak

EUSKARA > 550 DVD ETA LIBURUXKA BANATUKO DITUZTE DEBAGOIENEAN

## Gurasoendako liburuxka eta kantu eta jolasen DVDa prest

Euskara zerbitzuek banatuko dituzte 3 urteko ume eta haien gurasoen artean

AINIZANE IRIZAR > ARRASATE

Gurasoei zuzendutako liburuxka eta umeendako kantu eta jolasen DVDa berriz argitaratu du Debagoieneko Mankomunitateak. Ibaurreko herrietako euskara zerbitzuak arduratuko dira horiek

banatzeaz 3 urteko umeen eta haien gurasoen artean. Guztira, 550 sorta banatuko dituzte.

Liburuxkaren izenburua da *Biharko euskara, gaur/Su futuro euskara, hoy; liburuxka horretan, euskararekin lotutako ahol-*

kuak jaso dituzte, 4 eta 8 urte bitarteko umeak dituzten gurasoendako. Aholku horiek dira euskaraz dakiten eta ez dakiten gurasoendako. Kike Amonarriek prestatu ditu aholkuak.

Kantu eta jolasen DVDa, besalde, Debagoieneko 16 eskolatan grabatutako da. Esku jolasak, erritmo jolasak, zotz egitekoak, soka saltorako eta gomarako kantruak jaso dituzte; guztira, 21 kantru eta jolas.

Ekimen horren helburua da umeen artean hizkuntzarekiko jarrera baikorrak bultzatzea.

> HEZKUNTZA  
**Ikastolen Elkartea President's Award saria jaso du**

President's Award saria jaso du Gipuzkoako Ikastolen Elkartea Buckingham jauregian, Londresen, Edinburgo Dukearen eskutik. Elkartea ingerela ikasteko egin duen *Space Search* programa da saritu dutena. Ingeleseko irakaskuntzan ematen den sari garrantzitsuena da.

Saria jasotzen izan ziren ikastoletako ordezkariek, tartean, Joserra Zubizarreta, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko lehendakaria.

> HAUTESKUNDEAK  
**Txabarri eta Jauregi, pare-parean Debagoienean**

EAJk Gipuzkoako ahaldun nagusirako hautagaia aukeatzeko herriz herri batzarrak egin ditu. Lehenengo itzulia bukatu dute, eta hauek izan dira emaitzak: Arrasaten, Oñatin eta Antzuolan Gonzalez de Txabarrik jaso du boto gehien. Aretxabaletan, Bergaran eta Elgetan, berriz, Jon Jauregik.

Bigarren itzulia, behin betikoa, hilaren 20tik 29ra egingo dute.

> POLITIKA  
**EBk errekurtoa aurkeztu du Bergarako epaitegian**

Arrasateko Ezker Batuak errekurto egin du Audientzia Probintzialak artxibatutako salaketa. Arrasateko alkate Inazio Lakuntzaren eta Obernerreka promotorearen eta Gelma enpresaren jabe Javier Guiberten kontrako salaketa zen, ustez, sobornatze delituengatik, prebarikazioengatik, fondo publikoak bidegabe erabiltzearren eta influentzia-trafikoarenengatik. Atzo, eguna, aurkeztu zuten salaketa, Bergarako epaitegian.

> EKONOMIA  
**MCCko Maier enpresak planta zabaldu du Txekian**

Martitzenean, hilak 14, inauguratu zuen Maier enpresak Txekiako filiala. Enpresako arduradunen esanetan, koka-pena estrategikoa da, Europa-ko Ekialdeko automozioaren industrian barneratzeko.

Planta berriak 10 milioi euroko ibertsioa izan du eta 55 lagun hasiko dira lanean.

PSA Taldeari, Volkswagen Taldeari, Renault, Toyotari eta halako enpresei zerbitzua eman ahal izango die Txekian Maierrek.

**zer nahi duzu bihar?**

**ARRAKASTA EZ DA HESIAK GAINDITZE HUTSA. LEHEN POSTUAN IRISTEN JAKITEA DA.**

Enpresan berrikuntza funtsezkoa da, besteei aurre hartzea. **kutxaenpresak** edukitzea, biharko egunean lehiatzaleei aurre hartu ahal izateko beharrezko aholkularitza eta kudeaketa gaur bertan eskura izatea da.

Eta etorkizuna aukerez beterik dagoenez, **kutxaenpresak**-en irtenbideak aurreratzen dizkizugu.

**kutxaenpresak**

**www.kutxaempresas.net**

**kutxa**  
zer nahi duzu bihar?

ALKATEAK > LURDES IDOIAGA, OÑATIKO ALKATEA, 'DEBARRI'-N

# Arrikrutzeko lanak udarako bukatuko dituztela esan du Oñatiko alkateak

Larrialdi zerbitzua Oñatiko anbulatorioan ere jartzeko Osasun Sailera joko du Udalak

Asmoa dute 2007an udaltzainek jarduteko zapatuetan egun osoz eta egubakoitz gauetan ere

OIHANA ELORTZA > OÑATI  
Lurdes Idoiaga, Oñatiko alkatea, izan da oraino astean GOITBko *Debarri* programako gonbidatua. Alberto Gorritiberea aurkezleak eta herritarrek egindako galderak erantzun ditu han.

**LAPURRETAK**  
Joan den astean gertatutako lapurretzaz kezkatuta galduen zion herritar batek alkateari. Lurdes Idoiagak azaldu zuenez, kargua hartu eta gutxira batu zen herriko dendariekin, eta berba egin zuten arazo horretaz. Egun osoan udaltzainak egotea bide bat izan daitekeela onartu zuen, baina alarmak jartzeko apustua bulatzatu gura dute: "Udalak %85eko finantzaketa ematen du alarmak jartzearren, muga 200 euro izanda. Aurretik jarrita zutenei ere %50eko laguntza emango die. Joan den martxotik hona 32 dena eta tabernak jarri dute alarma", esan zuen alkateak. Asmoa dute 2007rako zapatuetan egun osoz eta egubakoitz gauetan ere jarduteko udaltzainek.

**AUZOAK**  
Auzoetako buruz ere hitz egin zuen alkateak. Olabarrieta, adibidez, hiribarra dela jaso dute onarrutako azken arau subsidiarioetan. Bestalde, "terrenoetan etxeak egiteko baldintza zehatzak daude, batez beharrekoak, baina guk auzoetan nukleo txikiak egitea ere pentsatu dugu. Berpiztu

programa ere martxan dugu", gaineratu du Idoiagak.

**KIROLDEGIA ETA ARRIKRUTZ**  
Kiroldegiko lanak datorren otsaila inguruan amaituko dituztela esan du alkateak *Debarri*-n, eta gero hasiko direla ekipamendua sartzen. Pareko bidea ere lanak bukatutakoan zabalduko dute. Arrikrutzeko lanak, berriz, udarako bukatuko dituzte. "Saneamendua eginda dago, instalazio elektrikoa, soinuarena eta kanpoko pasabidea ari dira egiten. Barruan entzungo den ipuina Patxi Zubizarreta ari da prestazten eta musika Txema Garzesena izango da. Eta lehoiaren eta hartzaren erreplikak egongo dira", aurreratu du alkateak.

Lanekin jarraituz, Kalegoieneko 188 aparkalekuez gain, kiroldegian beste 120 eta Olaiturrin beste 144 egingo dituzte. Egun, ia 10.800 biztanle eta 5.800 auto ditu Oñatik.

**HERRITARTASUN ARAUTEGIA**  
Herriko iturriak txukundu eta zaintzeko proposamena egin zion alkateari herritar batek. Idoiagak erantzun zion ados dagoela berarekin, baina denok ikasi behar dugula kaleak txukun izaten. "Garbitzaileek garbituko dituzte bazterrak, baina herritarroi ere badagokigu inguruak ez zikintzea. Horri lotuta, herritartasun arautegi bat egitea komeniko litzateke, elkarren arteko erres-



'DEBARRI' Eguaztenean egon da Lurdes Idoiaga, Oñatiko alkatea, GOITBko *Debarri* programan.

O.E.

petua hobetzeko: zaratak, zikineria, txakurren kakak eta antzerakoak arautzeko. Ez dago, agian, zigorrik jarri beharrik, baina bai jakin zer dagoen ondo eta zer ez", esan du Oñatiko alkateak.

**LUDOTEKA ETA TOKI ESTALIAK**  
"Lau pareta baino gehiago, hobe da ekintzak kudeatzen dituzten egoera dinamiko bat sortzea. Horren arabera jar daitezke lokalkak. Hala ere, datorren urteko aurrekontuetan diru kopuru bat gorde da ludotekarako", esan du Lurdes Idoiagak.

## Zumarragako eta Bergarako autobusak Olakuan eta San Lorentzon ere geldituko dira

Irailean martxan jarri zuten autobus zerbitzuaren inguruko kexie ere erantzun die Lurdes Idoiagak *Debarri* programan. Herritarren eskaera Garraio diputatuarekin eztabaidatu dituztela esan zuen, eta eskaera nagusi bat, behintzat, lortu dutela: "Zumarragara edo Bergarako doazen autobusek geltoki bakarra zuten lehen, baina Olakuan eta San Lorentzon ere geldituko dira hemendik aurrera. 4.000 lagun bizi dira bi auzo horietan. Garraio Sailekoek ere esan digute geltoki horiek beharrezkoak zirela, jendeak erabiltzen dituela". Zubillaga auzotik ere pasako dira ordurako batzuetan autobus horiek, egunean hiru noranzko bakoitzean. Bestalde, Oñatitik Eskoriatzara zuzenean joatea ez dute lortu. "Arrasate dela muga diote", esan du. Txartela Oñatin hartuko dute erabiltzaileek.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

GIZARTEA &gt; MOVIMIENTO SIN TIERRA TALDEA

# Kooperatiben gaineako heziketa jasotzen dihardute gurean Brasilgo nekazariek

Abenduaren 9ra bitartean, 18 lagunek kooperativismoaren zentzua, ekintzaile izaera eta kudeaketa erremintak izango dituzte ikasgai

GOIENKARIA > BERGARA  
Hiru aste dira Brasilgo Movimiento Sin Tierra taldeko 18 kide gurera eterri zirela. Abenduaren 9ra bitartean egongo dira mugimendu kooperativistaren gaineko nondik norakoak ikasten, ondoren Brasilen hedatzeko.

Movimiento Sin Tierra ekin-tza zuzenen bidez nekazaritza erreforma egiteko eta Brasilgo justizia soziala lortzeko orain dela 22 urte eratutako taldea da.

Taldearen ekintzarik ezaguneña lurrik hartzea eta pobreenen artean banatzea da: "Ez da nahi-koia, baina lortu dugu 120.000 familiak lurra edukitzea. Gaur egun, 80.000 familia baino gehiago dau- de euren lurrazen zain, hiru milioi hektarea gutxi gorabehera", azaldu du Movimiento Sin Tierra taldeko Laudir Boianik.

Okupatutako lurretan era-ten diren komunitateak sektoreka antolatzen dituzte: hezkun-tza, osasuna, ingurumena eta ekoizpena. Azken horren ildotik,



HITZALDIAK Saiolan, Mundukide eta Lankiko ordezkarriak Movimiento Sin Tierrako kideekin egindako hitzaldian. JOKIN ETXEBARRIA

interes handiz begiratzen diote hemengo kooperatiben esperien-ziari, garapen sozio-ekonomi-koia baita euren erronka nagusia.

**ADMINISTRAZIOAN ZALTASUNAK**  
Gizarte mugimenduan, batez ere, gogor lan egin badute ere, zenbait zaitasun dituzte euren proiektuak aurrera ateratzeko.

Movimiento Sin Tierrako Samir Riveiroren esanetan, "administrazioan eta kudeake-

tan zaitasunak ditugu. Hori dela eta, gure beharrak txikitze alde-ra, elkartruukekin, harreman berriekin eta beste erakunde eta kooperatiba batzuekin heziketa lortzeko modu ezberdin bil-a hasi ginuen".

**SEI URTEKO HARREMANA**  
Orain dela sei urte harremantan hasi ziren MCC eta beste talde batzuekin. Orduan, Saiolan, Mundukide eta Lankirekin bate-

ra proiektu bat garatzen hasi ziren: lehen fasean, elkar ezagu-tzan eta errealtitate ezberdin-en ezagueran murgildu ziren; bigarren fasean, oraingoan, hain-zuzen ere, kooperatiben kudeaketari buruzko ikastaro bat egi-ten dihardute.

Saiolaneko Joseba Sagarnak azaldu digu zertan den elkarlan-a: "Gure asmoa da eurei azaltzea guk nola egiten dugun lan, empre-sa berri bat aurrera ateratzera-

## Hirugarren fasean bertatik bertara

Elkarlanerako proiektu hau ez da bukatuko Movimiento Sin Tierra taldeko kideek gure artean egiten diharduten heziketa bukatzen dutenean, asmo gehiago dituzte eta. Proiektuko partaideek egitasmo zehatza eramango dute besapean Brasilgo euren komuni-tateetara, bertan ezartzeko asmoz. Konpromiso horrek jarrai-pena izango du gureko eragile zenbaiten artean.

Mundukide gobernuz kanpoko erakundeko Ibon Anterok azaldu duenez, "asmoa da Brasilgo Parana estatuko eskualde batean zehatzago lantzea hemen bi hilabetean jaso duten heziketa, eta, bide batez, han dauzkaten ekimenetan bertatik bertara laguntzea".

koan zein gauza hartzen ditugun kontuan. Ondoren, eurek lehen-dik dakitenarekin eta hemen ikas dezaketenarekin erabakiko dute nola garatu gauzak han hemen-dik aurrera".

Truke programan, ordea, ez dira brasildarrak ikasten dabil-tzan bakarrak. Lankiko Eneritz Pagaldaik adierazi duenez, "ingu-rumenaren zaintzan eta pertsonen arteko harremanean asko dugu ikasteko brasildarrengandik".

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde eta bainuontzien erakusketa handiena



600 m<sup>2</sup> baino gehiagoko erakusketa  
Ikusteko 31 sukalde baino gehiago  
Merkatuko prezio hoberenak  
Europar marka hoberenak

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde eta bainuontzien erakusketa handiena

**Armeko**  
Sukaldeak Integralak

Kataide Poligonoa, 4 pabiloia

ARRASATE



**YOSU THERMIK**  
LEIHOAK ISOLATZAILEAK

Bisita ezazu leihoen erakusketa berria  
Kalitate handiena  
Gehienezko berma  
Prezio hobeak

ERAKUSKETA BERRIA

943 770157



KARTOIA > HAINBAT ARAZO SORTZEN DIRA ZERBITZUAN

## Atez ateko zerbitzuan egun eta ordutegiak errespetatzea eskatu du Mankomunitateak

Hainbat kampaina egin duten arren, egunak eta ordutegiak errespetatzeko jarraitzen du erabiltzaile askok

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE Debagoieneko Mankomunitateak jakinarazi du denda eta lanteriegi eskaientzen dien kartoia bilketa zerbitzuak arazo ugari sortzen dituela. Horregatik, eskaientzen die ezarritako egun eta ordutegiak errespetatzeko.

**EGUTEGIA, HERRIZ HERRI** Arrasate, Bergara eta Oñati harriguneetan egunero eskaientzen dute zerbitzua, astelehenteik egubakoitzera; Antzuola, Are-

txabaleta, Eskoria, Elgeta eta Leintz Gatzagan, bestalde, astelehenean, eguztzen eta egubakoitzetan. Ibarreko industriagune guztietan ere egun horietan –astelehena, eguztzena eta egubakoitzasotzen dituzte kartoia. Zapaturu, domeka eta jaiegunetan ez dute zerbitzurik eskaientzen.

Ordutegia errespetatzea ere eskaientzen dute Mankomunitateko arduradunek. 20:00ak eta 22:00ak bitartean atera behar da kartoia, zaborra batzeko edukiontzien ondoan, baina sekula ez edukiontzii barruan. Kartoia tolestuta lagatzea ere eskaientzen dute, eta lotuta lagatzen bada, hobeto.

**SEI URTEKO IBILBIDEA** Orain dela sei urte, 2000. urtean, jarri zuen abian Mankomunitateak atez ate kartoia batzeko zerbitzua. Ibarreko komertzioetan, ostalaritzan eta lantegi txikie-

tan sortutako kartoia batzen dute. Mikel Jaiok, Mankomunitateko Ingurumen arduradunak, azaldu digunez, iaz, 2005ean, 666 tona kartoia batu zituzten atez ateko zerbitzu horrekin. Urtetik urteara, gora doa kopuru hori; 2002an 415 tona batu zituzten; 2003an, 574; eta 2004an, 663.

### ANTZUOLAN ERE ARAZOAK

Zaborraren kudeaketarekin jarraituz, Antzuolan ere hainbat arazo dago. Oraingo astean bertan, Udalak atariz atari oharra jarri du, jendearei eskaatzeko zaborra edukiontzii barruan lagatzeke. Kontua da zabor edukiontzia beteta daudenean, jendeak kangoan, lurrean, lagatzen dituelako poltsak. Udalak herriarrei eskaatu die, edukiontzia beteta daudenean, beste edukiontzii batera jo eta hantxe lagatzeke poltsak, sekula ez lurrean.

**IKASLEEN EGUNA** > GAUR, 19:00ETAN, MANIFESTAZIOA ARRASATEN


## Ikasle Abertzaleek Ikasleen Nazioarteko Eguna ospatzen dihardute Arrasaten

Martitzenean, euren salaketak antzezen batzuen bitartez egin zituzten ikasle Abertzaleek MUKO Eskola Politeknikoan

**A.I. > ARRASATE** Gaur, egubakoitzta, Ikasleen Nazioarteko Eguna dela-eta, manifestazioa egingo dute ikasle Abertzaleek Arrasaten, 19:00etan. Manifestazio horrekin eta martitzenean Ingeniaritzako Eskolan egindako antzezen eki-taldiarekin, eskari zehatzak egiten dituzte Mondragon Unibertsitateari dagokionez: euskaraz ikasteko eskubidea betetzea, kolektibo moduan jarduteko bideak ematea eta ikasle kontseilu soziala besete era batera antolatzea.



ANTZEZPENA Hainbat salaketa egin zituzten ikasleek antzezpenenkin. JOKIN ETXEBERRIA



ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

### kontsumoa



Erabiltzaileek hilean 1,70-1,86 euro gehiago ordaindu dute. GOIENKARIA

## Argindarrarengatik % 5,5-6 gehiago ordaindu beharko dugu 2007an

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Datorren urterako argindarraren tarifik igotzekotan da Espainiako Gobernua, eta %5,5 eta %6 artean igoko dute. Hala ere, oraindik zehazteke dago fase bakarrean edo bi fasetan egingo duten igoera. Hala, urtean 3.000 kilowattorduko kontsumoa eta 2005ean hilean 31 euro inguruko faktura izan duen erabiltzaile arruntak, aurreikusitako tarifaren igoerarekin, hilabetean 1,70-1,86 euro gehiago ordaindu beharko ditu datorren urtean.

Hala ere, Gobernuak hiruhileko prezioak hartuko ditu erreferentzia modura tarifik ipintzeko orduan. Horrela, gasaren tarifekin egiten den moduan, hiru hilabetean behin tarifik aldatzeko aukera egongo da. Bestalde, zehaztu gabe geratu da ea iaz bezala argindarraren prezioek gora egingo duten merkatuko prezioekin orekatzeko.

Argindar konpainiek eskaatu dute tarifen igoera %15 eta %20 artekoa izatea.

### Musika jaisteko eta jolasteko erabiltzen dute gazteek Internet

Nafarroako Unibertsitateak 10 eta 18 urte arteko 6.000 ikasleren artean Interneten gaineko ikerketa egin du. Horren arabera, gazteen gehiengoak aisiaidirako erabiltzen du sarea kontsultarako baino gehiago. %62 musika deskargatzeko konektatzen dira, eta %48, jolaserako. Bestalde, %12k baino ez dute informazio orrialdeetan barrena nabigatzen. Aisiaaldi gunak nahiago dituzte, elkarrekin-tza eta berehalakotasuna dutelako, txat-ek eta e-postak ematen dutena.

### Hamarretik lauk ez dute jaten egunean bi fruta ale

Osasunerako Mundu Erakundeak hala gomendatu arren, Spainian hamar lagunetik lauk (%43) ez dituzte egunean bi fruta ale jaten. Kopurua %57ko da ume eta gazteen artean. Adituen esanetan, dieta orekautua izan dadin, egunean 400 gramo fruta eta barazki jan beharko lirateke; bi edo hiru fruta arrazio eta beste hiru barazki arrazio, hain zuzen ere. Fruta jatea ona da bihotzko gaitzak, minibizia eta diabetesa saihes-teko. Baita loditasunari aurrea hartzeko ere.

## Kultura eta aisialdian gura duzun guztia

Erdikokale, 14 - ARRASATE  
Tel.: 943 797 829



www.elkar.com

**gure artekoak**

**HARREMAN DENDA SOLIDARIOA** > Arrasateko Eroski merkataritza etxearen barruan dago Harreman Denda Solidarioa. Hantxe aurkitu dugu Iñigo Trueba, dendako arduradunetako bat.

Iñigo Trueba

## "Merkataritza harreman justuak bultzatzen ditugu"

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE  
Bidezko merkataritza bultzatzen dute Harreman dendakoek. Munduko hainbat tokitako era guztietako produktuak saltzen dituzte: jatekoak, edariak, arropak...

Denda berezia da Harremeneña. Zela lan egiten duzue?

Ibarreko Gobernuz Kanpoko Erakundeek kudeatzen dute Harreman Denda Solidarioa. Garapen bidean dauden herrialdeetan ekoiztutako produktuak saltzen ditugu.

**Zein da dendaren helburua?**

Gure helburua da bidezko merkataritza bultzatzea, merkataritza justua. Horrela, ateratzen ditugun etekinak dira ekoizleendako. Garapen bidean dauden herrialdeekiko gure harremenean laguntza hitza alde batera laga behar dugula uste dugu. Gure ustez, harreman justuak dira bultzatu behar ditugunak.

**Zelako produktuak dauzka zue?**

Denetarikoak: jatekoak, edariak, arropak, larruzko produktuak, edertasun produktuak, jostailuak... Janariari dagokionez, marmeladak, likoreak, kafea, kakaoa, arroza, azukrea, pasta, gaileta, eta abar ditugu.



Iñigo Trueba Eroskiko Harreman denden.

A.I.

**FITXA TEKNIKOAK****> IBARREKO GKE-AK**

Arrasateko Harreman, Aretxabale-tako Hiruatz, Oñatiako Banoia, Antzuolako Anelkar, Bergarako FISC eta Eskoriatzako Atxorrotx erakundeak dira kudeatzaileak.

**> MUNDU OSOKO PRODUKTUAK**

Amerika, Afrika eta Asiako produktuak saltzen dituzte Harremenekoek.

**> WEB ORRIA**

[www.harremandenda.tk](http://www.harremandenda.tk) webgunean duzue informazio zabalagoa.

**Zenbat langilek diharduzue denden?**

Luzma da dendako langile bakarra, baina zortzi bat boluntario ere egoten gara hemen, berari laguntzeko.

**Gabonetarako, esaterako, behin-behineko dendak jarri izan dituzue.**

Hala da, bai; Arrasaten, Aretxabaletan eta Oñatin jarriko ditugu, seguruena. Gainera, hainbat elkartasun jaialditan ere jarriten dugu postua. Kontua da, zela edo hala, jendearengana ailegatzen saiatzen garela.

**etxeko leihotik**

Aitziber Aranburuzabala &gt; Arrasate Irratiko arduraduna

## Kultura egarria asetzeko, bada non aukeratu!

**A**zaroaren 25an tratu txarren eguna. Eta baita Pirritx eta Porrotx Eskoriatzara datozen eguna ere. Agortuta daude sarrerak. Hiru egunetan! Gurako nuke gai-nontzeko kultura ekitaldietan ere gauza bera gertatuko balitz.

Laster Olentzerori eskutitza idatziko diogu. Askok Pirritx eta Porrotx pailazoen *Mari Motots* eskatuko diozue. Durangoko azoka ere bertan dago. Arrakastatsua izango da. Hori opa diet. Bainha herriko dendariek ere opariak saldu nahi dizkigute. Bidezkoa deritzot; ez naiz-eta Durangon bizi. Beraz, erosketa poltsa banatzea proposatzen dut.

Erosketa zerrenda egiten hasita nago. Pobreziak kantu digute oraingoan pailazoek. Pobre, baina era berean, nahi zuena egiten; hortaz, asko baino aberatsagoa izan zen Pakito Arriaran. Arrasatear hori da argitaratu berri duten *Los hijos de Maguey* liburuaren oinarria. Baliteke nire erosketa poltsan sartzea. Eta baita zinemako txartel pare bat ere! Abenduaren 5ean estreinatuko du Aitor Arregi zinemagile oñatiarrak *Cristobal Molon* animaziozko filma.

**"Herriko dendariek ere opariak saldu nahi dizkigute Gabonetan"**

**> Durangoko azoka**

askorentzako urteroko bisita-lekua da. Eta euskaldunak ohiturazale eta jendartezaleak gara. Ez dezagun, baina, Durangon bete aurten Gabonetako erosketa poltsa guztia.

**> Sekulako dei zaparrada** jaso dugu astean irratian. Pirritx eta Porrotx dira horren erantzule. Irratira deitzeak lotsa ematen omen du batuetan. Pozten naiz beti ez denean horrela!

**begi-bistan**

**Udazken itxura  
(Bergara)**  
**2006/11/16**

Argazkia: Irati Agirreazaldegi.  
Testua: Aintzane Irizar.

Gure zelai eta parkeak badoaz udazken itxura hartzen. Bergarako Usondo parkeko zelaia hostoz estalita aurkitu dugu. Egungo-tako haize zakarrak ere izango zuen eraginik.

**Har ezazu parte:**  
Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:  
[goinkaria@goinena.com](mailto:goinkaria@goinena.com)

**izen propioak**

**Jon  
Aiastui**  
IDAZLEA



**Ruper  
Ordorika**  
MUSIKARIA



**Arkaitz  
Zubiaga**  
INFORMATIKARIA

Bi sari jasoko ditu Jon Aiastui idazle oñatiarrak Lasarte-Oriako XX. literatur lehiaketan. Ipúnen eta poesiaren ataletan lehenengo saria eman diote.

*Zer gehiago apirilean* ipuina saritu diote, batetik, eta *Baloia eta beste poema batzuk* poesia lana, bestetik.

Disko berria eman du argitara Ruper Ordorikak: *Memo riaren mapan*, hain zuzen ere. Elkar argitaletxearekin atera du bere azken lana.

Musika Ordorikarena berarena da, eta abestien hitzak, berriz, Joseba Sarrionandiak idatzitakoak.

Laster-markak (edo faborioak) gorde, partekatu eta etiketatzeko *bildu.net* webgunea sortu du Arkaitz Zubiaga informatikari arrasatearrak, Gorka Juliorekin batera.

Sistema hori sortzeko, *scuttle* software librea euskaratu dute Zubia-gak eta Juliolok.

Paris eta Madril lotzen zituen trenbideak Gipuzkoan izan zuen eraginaz idatzi du Luis Mari

Intza oñatiarrak, Alkizako Pello Joxe Aranbururekin batera. Argazkiak digitalizatzen egin

du lan handien Intzak. Era berean, erleez ere asko daki oñatiarrak: Kuban eta Grezian izan da

erleen gaineko jardunaldieta, eta oraingo astean Argentina-ko erlezainak ditu etxeen.

Luis Mari Intza > Idazlea eta erlezaina

# "Trenak garrantzi handiagoa hartuko du eta errailak jarri beharko dituzte berriz"

OIHANA ELORTZA > OÑATI  
Urtiagaingoa da Luis Mari Intza (Oñati, 1934). Bidegina zuen aita eta lanagatik Tolosara joan ziren etxe-guztiak duela 60 urte inguru. Eta han bizi da harrezkerro. Norteko trenbidearen eraikuntza. Ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan liburua idatzi du. Argazkiak eta planoak digitalizatu ditu.

Zergatik pentsatu zenuen iparraldeko trenbideaz idaztea?

Alkizako Pello Aranburu asko ibili da artxiboean; beste liburu batzuk ere eginda ditu hark. Oñatioko artxiboak ere ikusi zituen eta trenari buruzko dokumentuak bilatu zituen hemen ere. Konturatu zen trenari buruzko informazio handia zegoela artxiboean eta hori kaleratzea polita izango zela. Lagunak gara biok, eta argazkiak eta planoak sartzen, digitalizatzen, laguntzeko esku zidan. Irundik Beasainerako ibilbidea jasotzen duen liburua atera dugu orain, eta Beasaindik Otzaurterakoa ere prest du Pellok; nire lana bakarrik falta da.

Ilustrazioak digitalizatzea izan da zure lana?

Argazkiak atera, planoak digitalizatu eta horrelakoak egiten ibili naiz ni. CD baten sartu ditugu denak.

Ze garrantzi izan zuen tren hark Gipuzkoarako?

Handia. Esan daiteke ordutxeko hasi zela industrializazioa Gipuzkoan, trenaren ostean. Garraiatzeko merkantziak ekarri zituen eta lantegiak sortu ziren; Beasainen, adibidez. Trenaren egiteko kanpotik etorri zen jendea. Trenbidearen erraila Frantziako enpresa batek egin zuen eta Italiatik ere etorri ziren lane-ra. Hemengo gutxik egin zuten lan trena eraikitzen.

Lehenengo, trenbidearen errail bat egin zuten. Lehen urtetan, egunean tren bakarra pasatzen zen; Renfe defizitarria izan zen garai hartan. 1900 inguruan egin zuten bigarren erraila. Geltokiak Donostian, Tolosan, Beasainen eta Zumarragan bakarrik jarri zituzten hasieran.

Guztiei iruditzen zitzaien ondo trena egitea?

Bai, ez da orain Abiadura Handiko Trenarekin gertatzen ari den moduan. Alde onak ikus-ten zizkion jendeak. Lurjabeen bakarrik izan zituzten arazoak: baserritar asko gelditu



Iparraldeko trenbideari buruzko liburua idatzi du Luis Mari Intza oñatiarrak.

tzen zuen, eta industria hasi ahal, garraiorako ere bai, gero eta gehiago.

Ze arazo izan zituzten eraikitzeko?

Handiena izan zen erabakitzea nondik pasatu behar zuen. Frantsesek eta nafarrek nahi zuten Iruñetik Baionara pasatzea, baina gipuzkoarrek lan handia egin zuten, eta lortu zuten Gipuzkoatik pasatzea. Hala ere, nafarrek zioten Altsasutik Zumarragara ekartzea baino errazagoa zela Irurtzundik Tolosara, baina ez zuten lortu. Hasieran, gainera, asmoa zuten Donostiako geltokia Kontxan jartzeko, portuan ondoan.

Garrantzirik galdu du trenak ordutik hona?

Uste dut gero eta garrantzi handiagoa hartuko duela, auto gehiegiz dago-eta. Egia da kendu egin dituztela errailak, baina beharbada berriro jarri beharko dituzte; zerbitzu publikoa egon behar da gero ere.

Abiadura Handiko Trena da aukera bat?

Ez dakit horrekin ze asmo duten. Nik entzun dut 10 urte barru 20.000 kamioi pasako direla egunean eta AHTk gehienez 1.000 kenduko lituzkeela, eta horrek ez du ezer konpontzen. Geltokiak hiriburuetan bakarrik izango ditu. Proiektu horrek kostu handia izango du eta uste dut interes handien horrek duela, kostuak, dirua gastatzeak.

Erlezaina ere bazara. Atzorako (eguna) eta gaurko apiterapiari buruzko jardunaldiak antolatu dituzu Ordizian.

Eztia etorlek gure osasunerako dituzten abantailak aztertu ditut erretiroa hartu nuenetik. Horri buruz Kuban eta Grezian egin dituzten jardunaldieta izan naiz, eta orain, Argentinako erlezain eta apiterapeuta bat gonbidatu dugu, Julio Cesar Diaz. Jendeak oraindik ez ditu ezagutzen erlearen, polenaren edo propolioparen abantailak, eta horren berri eman gura dugu.

Hemengo erle beltza ere aproposa da horretarako?

Bai, bai. Saitzen ari gara berreskuratzen erle hori, larrealdaketagatik kanpotik ere asko sartu dira-eta. Gipuzkoan 560 baziak gara elkartean; 11.000 erlauntz inguru guztira.

## NORTEKO TRENBIDEA

**"Herritar askok eman zuten dirua tren hura egiteko; Oñatik, 800.000 erreal"**

ziren alde batean etxea zutela eta bestean ortua, eta hasieran isunak jartzen zizkieten trenbidea zeharkatzeagatik. Borroka handia egin zuten.

Orduko trenak ez du zerikusirik egungo Abiadura Handiko Trenarekin. Orain jende asko dago kontra. Garai hartan ere,

## AHT

**"EZ dakit ze asmo duten horrekin; uste dut interes handien kostuak duela, dirua gastatzeak"**

gerra karlistan, trenari ere erauso egin zioten; Beasaingo geltoxia, adibidez, erre egin zuten, eta beste herri baten, trena errailatik irtenarazi egin zuten. Dio-te Santa Kruz abadea izan zela eraso haien erantzulea. Orokorrean, baina, herritar askok eman zuten dirua proiektu hura egite-

## ERLEAK

**"Erleak, eztia, polenak eta propolioak abantailak dituzte osasunarendako"**

ko; Oñatik, esaterako, 800.000 erreal baino gehiago eman zituen. Baina Oñatitik ez zen pasatzen tren hura.

Ez. Dirua batzen, abadeek lagundu zuten asko: Donostiakoek eta Irungoek ez beste guztiak lagundu zuten. Jendeak erabil-



zabalik

Oskar Elizburu

## Loteria ere euskaraz

**B**adatoz Gabonak eta garai honetan elkarri opariak egiteko joera daukagu gehienok. Garai aproposa izaten da familia-koein eta lagunekin *ondo konpontzen* ahalegina egiteko edota besterik ez bada, elkarren berri izateko.

Opariak emateko aukera hori baliatzeko modu ugari dago; *txantxa giroan*, urte zaharreko tanga gorriena; *ilusio giroan*, Olen-tzeroren edota Erregeen detailetxoak; *elkartasun giroan*, postalen bidez zoriona eta osasuna opatzea; eta *poltsikoari begira*, loteria elkarri oparitzea.

Azken aukera honi helduko diot oraingo honetan, ez zenbat jokatzen dugun aipatzeko edo horren aurka egiteko, halere. Begiratu al diegu arretaz inoiz guk erositako zenbakiaren partizipazioak banatzeko erabiltzen ditugun txartelei? Ba al dakigu bertan zer ipintzen duen? Lasai, ez du-eta ezer arrarorik idatzita! Nola idatzita dagoen da niri interesatzen zaidana eta arduratzen nauena.

Normalean, partizipazioak egiteko txarteltxoen takoa dendarren batean erosi, gure txartelaren zenbakia idatzi, diru kopurua ipini eta firmatu egiten dugu; baina konturatu al gara euskaraz ala erdaraz egin dugun? Askok jakin ere ez du egingo nola betetzen duen! Izan ere, gure gizarte diglosiko honetan, *por defecto* deritzonagatik, zenbat gauza egiten dugu erdaraz? Horrela bada, inoiz euskaraz jaso baduzu, hori bai loteria hori!

Arrasateko Euskalgintzak euskara erabiltzeko aukeren berri zabaltzea eta kontzientzia piztea erabaki genuen gure helburuen artean, eta gaurkoan zabaldu gura dudan mezua simplea bezain argia da: euskararen erabilera aldeko pausorik txikienak ere, eragin positiboa izango du gugan eta jasoko duenarenengan.

Beraz, euskaraz dauden loteria takoak erosi eta dendar ez baditzte, ekartzeko eskatu, euskaraz bete eta zortea euskaraz banatu. Zer errazagorik! Zenbakia asmatzea horren erraza balitz!

**"Partizipazioaren txarteltxoa inoiz euskaraz jaso baduzu, hori bai loteria hori!"**

**"Euskaraz dauden loteria takoak erosi eta zortea euskaraz banatu"**

## Goienkaria

**Argiratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Esteban Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailketak arduradunak** Ubane Madera (Herrrialde), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Gotzon Arbelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirrezañaldegi **Oinarritzko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mirela Larrañaga, Amaia Mundihaino, Zortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Bereizibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzaran, Ane Bereizibar, Iratzko Bengoa

### EGOITZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria



LAGUNTZIALEAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatioko  
Udala



Aretxabaleta  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## herritarak galdezka

### AGORROSINEN ERRE

**Irakurle batek honako galdera egin digu: Bergarako Agorrosin Ekintza Guneko taberna Udaleko kirol instalazioaren barnean dagoenez, erretzearen gaineko dekre-tua betetzea dagokio?**

Bergarako Udaleko Kirol teknikari Unai Asurmendik eman dizkigu azalpenak galdera horri erantzunez: "Agorrosingo tabernan erretzea debekatua dago. Batetik, kirol instalazio baten barruan dagoelako, eta bestetik, konkurrentzia publikoko eremua delako. Pilotalekuaren kasuan ere gauza bera gertatzen da, eta jaso ditugu zenbait kexa. Beraz, Agorrosinen tabernariei dagokie debekua betearaztea. Norbaitek tabernan erreko balu, eta beste batek, hori dela eta, kexa jarri nahiko balu, zuzenean tabernariari esan beharko lioke ez dagoela konforme. Tabernariak neurririk hartuko ez balu hurrengo pausoak litzateke udal-letxera joatea. Agorrosinen erre-tzeako aukera bakarra kanpoko terrazan dago; izan ere, arautu gabe dago gune irekietan erretzearen kontua".

### LAN EGUTEIGIA

**Lantegian datorren urterako egutegia gertatzen dihardutela-eta galdera hau egin digu irakurle batek: Zeinek zehazten ditu zein izango diren jaiegun ofizialak?**

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sialean esan digute Eusko Jaurlaritzarena dela egutegia eta jaiegunak zehazteko ardura; gehienez 14 jaiegun izango dira. Onartu-

### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoikionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

tako dekretuaren arabera, derri-gorrezko bederatzi jaiegun eza-rriko dira 2007rako: urtarrilak 1, apirilak 1, maiatzak 1, abuztuak 15, urriak 12, azaroak 1 eta aben-duak 6, 8 eta 25. Horietaz gain, EAEn jaiegunak izango dira urtar-rlaren 6a eta apirilaren 5a eta 9a (uztailaren 25a ordezkatuz).


Bestalde, bi jaiegun gehiago hartu ahal izango dira, herriko jaiei dagozkienak. Egun horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko lurrarde ordezkariek jarriko dituzte, udalbatzen proposamenak jasotakoan. Udalek proposamenak Lurralte Ordezkaritzara bidali beharko dituzte.

'SEUSSEN MUNDUA' BERRIZ?  
**Musikazale batek deitu digu gal-detzen Seussen mundua beste inon ikusteko aukera izango duen.**

Bergarako Orfeoiko arduradunek esan digute oraindi zehazteke dagoela hori, baina itxaropen handia dutela ikuskizuna berriz ere jendaurrera eramateko: "Izandako arrakasta ikusita oso baikor gaude, eta berriz egin-go dugula uste dugu".

## marrakkiz

Alex Ugalde



## Korrikaaaa!!

Sare Gurrutxaga  
www.blogari.net/saregu

## Estraperloan

Josu Badiola  
www.uztarria.com/blogak/badiola

ortu dugu neskak!!! Nork aginduko ote zigun Behobian hasi eta Donos-tira arte korrika joatea?

Puff... lekutan daude e!!!

Polita izan da lasterketa, gustura aktibatu ditugu gorputzeko muskulua guztiak, bai bai, guztiak, hango hura ere bai martxan. Denak lanean gu Donostiratzearen.

Orain gorputzak "hemen nago!!! diosku. "Badakigu" diogu. Bainha merezi izan du.

O raintxe ere erori naiz. Bakoitzean "gaurkoa azkena" esaten diot

neure buruari, baina beti bizioan erortzen naiz. Inork ere ez dit antzeman, baina.

Izan ere, hain da tentaga-ria batere esfortzurik gabe nahi adina edukitzea. Ezer egin gabe. Errazera ohitura, lan egitea gero ikaragarri kostatzen da.

Hasieran lotsa pixka bat ematen du poteekin alde

batetik bestera ibiltzeak. Zorroan sartuta, noski. Zer daramagun inork igarri ez dezan.

Behin lotsa galdukoan, ordea, poltsarik gabe, bistean eramatzen ere ausartzen dira beste batzuk.

Boladak izaten ditut "Nahi al dek?" galdeztzen didatenean ausart eta ozen "Ez. Ez det behar" erantzuten dudana. Azkenaldi honetan, beti baietz. Bila ere, eskean, joan izan naiz.

Askatasun osoz geure kasa bizitzera joan ginen askok ere, inoiz baino mendekotasun handiagoa dugu. Bai bakarrik

## plazara

Izenburuak garbi adierazten duen moduan, alderdi politikoek XXI. mendean jokatu beharreko pape- raz dihardu EAko Gipuzkoako

Batzorde Eragileko presidenteak artikulu honetan. Alderdiek gizar- tearen aldaketez jabetzeko duten beharraz hitz egiten du; pixkana-

ka garai berrietara moldatzeko egi- ten ari diren ahaleginak eta egin beharko liratekeenak aipatzen ditu Iñaki Galdosek.

Iñaki Galdos \*

# Alderdi politikoak XXI. mendean

**A**lderdi politiko bateko kide izanik, onartu beharrean nago alderdiek gizartearekin duten lotura gero eta txikia- goa dela eta dibortzioa gero eta handiagoa.

Norbaitek esango du politika- ren irudi txarra politikan dihar- duten askoren ustelkeria eta bar- ne eta kampo botereen bila egi- ten dituzten joko zikinak direla, aspaldi Platonek bere *Errepubli- ka-n* salatzen zuen bezala. Eta ez zaio arrazoirk faltako.

Baina nik lerro hauetara bes- te gogoeta bat ekarri nahi nuke: zein da alderdi politikoen pape- ra XXI. mendearen hastapenetan? Nolakoa izan behar du alderdien eta gizartearen arteko harrema- nak garai berriant?

Daniel Innerarity da azken boladan gai honi buruz idazten ari denetako bat. Bere ustez, dagoeneko irudikapenak toki handia kendu dio ideologiar politikan, are gehiago teknolo- gia berrien garaian murgildua gauden honetan. Gainera, gizarteak aldaketa sakonak izan ditu azken hamarkadetan, baina alderdiak ez dira jabetzen alda- keta hauekin edo ez dute gaita- sunik erakusten garai berrieta- ra egokitzeko, ez antolaketaren alorrean, ez mezuak gizartera- tzeko orduan eta ez gizartearen egarri berriei erantzungs dien diskurtsoak egituratzeko orduan.

Egia da han eta hemen hasi direla jabetzen hainbat politika- ri eta alderdi aldaketa hauekin. 2003an, adibidez, Howard Dean bere alderdiko lehen itzulia ira- bazteko zorian egon zen Estatu Batuetako presidentziarako,



MIKEL ARROIABE

Internet bidez sortutako milaka eta milaka lagunzaile sareari esker.

Azken aste hauetan ere, Euro- pan orain arte ezezagunak diren ereduak ezarriz, Frantziako sozialistek kalera atera dituze euren barne eztabaidak, eta Fran- ziako presidenterako hautagaia aukeratzeko, milioika pertsona- ren aurrean hiru eztabaida egin dituzte telebistan; horrela egi- tea, gainera, alderdiarentzat ona den uste osoarekin.

Gurean ere azken asteetan alderdien barne eztabaiden berri izateko aukera izan dute herri- tarrek. Adibidez, Eusko Alkarta- sunean sinadura bilketa egon da. Aralarren ildo berri baten sorre-

**"Gurean ere azken asteetan alderdien barne eztabaiden berri izateko aukera izan dute herriarrek"**

**"Alderdieta eredu zaharkituekin jarraitu nahi dutenek esango dute ez dela ona dena kaleratzea"**

ra ezagutu dugu. EAJn ere dipu- tatu nagusitarako euren hauta- gaia izango denaren barne ezta- baida eta bozketen berri izan dugu.

Alderdieta eredu zaharki- tuekin jarraitu nahi dutenek esango dute ez dela ona hori dena kaleratzea eta etxe barrukoak etxe barruan soilik ezagutu behar direla, nahiz eta etxe barruko biler- ra eta eztabaidetan (bai, onar dezagun) alderdi horretako kide- en zati oso txikiak eta boto emai- leen zati are txikiagoak parte hartzen duen.

Beste batzuk, alderantziz, uste dute garai berri hauetan ezinez- koa dela eredu horiekin jarrai- tzea eta gizarteak eskaintzen dituen aukera berriak aprobeta- tu egin behar direla alderdiak indartzeko. Errespetuz, leialtasunez eta gardentasunez egiten bada, ona dela gizartearekin eten- gabeko harremana izatea eta alderdieta dauden ahots anitzak gizarteratzea, horrela gizar- tean dagoen aniztasunarekin hobeto bat egiteko.

Marcos Roitman soziologoak salatzen du alderdiak euren bai- tan sortutako beharrak, eta ez gizartearenak, sortzeko makine- riak bihurtu direla aspaldian eta alderdiek neurri handi batean uko egin diotela eredu berriak gizarteari aurkezteari. Bada, alderdien eta gizartearen arteko dibortzioa gainditu nahi badugu, gorago aipatutako bigarren ere- dua jorratzea ezinbesteko bal- dintza delakoan nago ni.

\* EAko Gipuzkoako Batzorde Eragileko presidente

## zer deritzozu?

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Salatu egingo zenuke tratu txarrak ikusita?

BAI	%66,66
EZ	%33,33

### > BABESA BEHAR

Bai, salatu egingo nuke. Baina herri txikietan bizi gara eta, badakigu horrek zer eragin txar izan dezake- en. Salatzailearentzat eta biktimarentzat anonimota- sun eta babes programak egon beharko lirateke.

Ane

### > INPLIKATUEN ERABAKIA

Ez nuke salatuko. Implika- tuek erabaki badute ezer ez egitea euren erabakia errespetatu behar da, nahiz eta guretzat okerrena izan.

Aitor

### > BAI, BAINA ZERTARAKO?

Bai, egingo nuke. Baina ikusitakoak ikusita ez dakit zerbaitetarako balioko lukeen.

Ainara

### > EGOERA NAHASIAK

Kontuz ibili behar da gai horrekin. Egoerak nahastu egin daitezke eta zerbait larria gertatu dela pentsatu arren agian ez da horrela.

Oso ziur egon beharko nintzateke salatzeko.

Martxelo

### DATORREN ASTEKOAK: Uraren kontsumoa zaintzen duzu?

Eman zure iritzia  
[www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

## koplak

Aitor Arantzabal

# Hizkuntza eskubideen urraketak

Ba al dago galderarik?  
Hor botako dut orain nik  
Guk, euskaldunok, gure herrian  
ez al dugun justiziarik?

Euskara, Euskal Herrian.  
ibiliz modu zuhurrian.  
Atzerritarra izan zintezke  
epailearen aurrian.

Hizkuntza eskubidea,  
batzuengat galbidea.  
Hauek urratzen egiten dute  
gure kontrako bidea.

Guk euskaraz egiteak,  
bermatuz eskubideak.  
Batzuek sutan ipini ditu  
gu horrela entzuteak.

Gure herriaren funtsa  
daukagu gure hizkuntza.  
Herririk gabe, hizkuntzarik ez,  
hizkuntzarik gabe hutsa.

Euskal Herri euskalduna  
da guk lortu nahi duguna  
Lege bakarra da behar dena:  
hau da ofizialtasuna.

edo bai bikotearekin bizi, ezkonduta ala ezkongabe.

Tuper-etaz ari naiz. Hori bai ibentoa! Amak prestatuta- koa geure etxeetara kontraban- doan eramateko erabiltzen ditugun plastikozko ontzietaz.

Txikitian, amamak paga eskainitakoan "igual da amama. Ez det ber" esaten genionean bezala sentitzen naiz, nahiz eta hartzeko amorratzen egon.

Amarengana, gurasoengana bazkaltzera joandakoan zeozer sobratzen bada:

- Nahi al dek etxerako?  
- Ez ama. Ez det ber. Badau- ket jatekue.

- Hik zea eukikoek, poteko maionesa bai.

Hobeto pentsatzen jarri eta, "hori emanet gero erosketak egin beharrik ez. Gainera, mundiala zaohan".

- Attentat gorde zazu.

- Attentat bazeok.

Orduan attek sartzen dira konbertsazioan:

- Bai, semie gizona baino gehio mimatzetu! Jateko goxuenak hiretzat gordeta eukitzetxik...

- Ixilik eontzaite gezurrik esan gabe!

Erabat jeloskor jartzen omen dira attek holako egoeretan.

Ez da gutxiagorako izango! Gutizi denak etxetik joan den mukizuak (40 urte izan arren beti mukizu) muturren aurre- tik kentzen dizkizula ikusteak ez du grazia handirik egin behar.

Azkenean, ni berriz ere pote ta guzti nire etxera.

Ez da izaten amek jatekoa eskaintzen ez duten egunik.

Hortaz pote zahar horiekin atzera eta aurrera. Beteta ekarri eta hutsa, garbitu eta atzera berriz amarengana (zikinak itzultzen dituztenak badira).

Pote bat hartzera joatea, beraz, ez da gaur goizeko kontua.

## Epaitegian Euskaraz

**Esteban Umerez eta**  
**Luix Barinagarrementeria**  
 (Justizia Euskaraz Elkartea)  
 Bilbo

Bergarako Argibideetarako 3. Epaitegian, falta judizio baten ahozko bista zuten egiteko hiru gazte auziperatuk azaroaren 7an. Falta prozedura horren baitan, formalki egina zuten prozedura euskaraz garatua izateko eskakizuna, eta bi aldi, helegite bide guztik agortu arte, ezezko borobila eman zien Justizia Administrazioak, beste askotan bezala, berehalako itzulpenaren bitartez euren hizkuntza eskubideak nahikoa bermatuta daudela argudiatuta. Ahozko bistaren eguna iritsita, eskubide urraketa horretan parte hartzeko prest ez zeudela adierazi eta alde egin zuten auziperatuek. Falta judizio batean auziperatuek pertsonal ki egon beharrik ez dutenaz baliatuta, epaketa aurrera eroatea erabaki omen zuen epaileak. Eta epaiaren zain egon beharko.

Eskualde eta Gutxiengoa Hizkuntzen Europako Ituna sinatu eta berretsirik, honako konpromiso zehatz hartu zuen Spainiako Erresumak, nazioarteko hitzarmen hori Spainiako legeriaren zati bihurtuz: judiziorako prozeduraren "alderdietako batek hala eskatuta, jurisdikzioko organoek prozedura eskuadlo edo gutxiengoa hizkuntzan zuzenduko dutela bermatzea".

Artikulu horrek esanahi jakin bat du gurea bezalako hizkuntza ustez ofizial baten kasuan: alderdi batek hala eskatuta, prozedura osoaren hizkuntza euskarak behar duela izan. Eta horrek nahitaezko ondorio bat dakar: epaketa batean parte hartzen duten eragileek eta, horien guztien gainetik, epaileak, euskara ondo ezagutu behar dutela.

Epaketa bat, muinean, eztabaidea dialektiliko bat delako. Hizkuntza oinarri eta komunikabide, alde bateko eta besteko argudioak jorratu, frogak gauzatu eta, besteak beste, lekuoak entzun eta, horiek guztik jaso eta ulertutakoan, epaile batek erabaki bat hartu behar duelako.

Itzulpen sistemak bitartekari bat ezartzen du bi bideko komunikazio beharrezko horretan, mezuak ulertz, laburtu, filtratu, interpretatu eta transmititu beharrean aurkitzen da bitartekari hori, asko eta askotan mezuarren zentzia itxuraldatuz eta, aldi orro, benetako komunikazioa eta ezinbesteko hurrentasun

## Edarra izan zan zapatuko Saharako festia!

**Leire Arana** (Ikastolatik Saharara proiektuko kidea) > Arrasate

**Z**e onto sentiru ginan antolatzailiak egun danian zihar! Hasteko, ikasle, ikasle-ohi, irakasle eta gurasuak elkarlanian gustora eta gogotsu ikuste hutsagatik. Zenbat eta zenbat lan haundi eta txiki bete zien berez iñope ezebe esan barik. Montatzia zala, desmontatzia, hau ekarriz, bestia eruan... Danak prest eta irripartsu gainera. Gero ze esangou ba herriko taldie buruz... Ekineko emakumiei, Goikobaluko abeslarixe, Atxabaltako trikitilarixe, Txikitxu Arrostaitzko dantzarixei eta ikastolako abesbatzako kantarixei laztan haundi bat gu danon partitik. Eta beste bat Rumba eta Itzala tabernakuei eta udaletxe-ko langiliei. Europe mundial portau zien!

Zer da ba diru asko euki bariuk aberats sentitzia!

printzipioa oztopatuz. Eta epaitegi batean egunero eztabaidatzen diren interes eta ondorioak ez dira nolanahikoak.

Horregatik, Justizia Administrazioan euskaldunon hizkuntza eskubideak benetan bermatzeko bide bat baino ez dago: epaile eta epaitegi euskaldunak izatea. Egun, xede horretarako inolako urretsik eman ez duen esparruetako bat da Justizia Administrazioa, eta nahikoa da, etengabe galdu behar diogu betebehar hori.

Baina oroz gain, zorionak eta esker mila Bergarako Argibideetarako 3. Epaitegian halako jarrera erakutsi zuten auziperatuei eta euren abokatuari. Eta gonbidapena euskaldun guztioi, Justizia Administrazioa jo behar dugunean euskaraz egin dezagun, etengabeko exijentzia horrek mugiaraziko baitu Justizia Administrazioa.

### Aizkorri-Aratz Natur Parkea 'babesten'

**Joxanbel Antxia** (Aretxabaletako Aralarko zinegotzia eta Ingurumeneko arduradun ohia) Aretxabaleta

Aretxabaletako udal agintariak (hitzaren zentzu estuenean) Urkuluko urtegiko piboteak kenduz hasi ziren, duela hilabete batzuk, nahiz eta Aralarrek asfaltatzeko baldintza bezala ipini pasoa mugatu egin behar zela. Bertako erabiltsaientzako oztopo handia zelako aitzakia ipini zuten eta hainbat promes egin, seinaleztapen gehiago, guarda bat zaintzeko... Kaka Zaharra! Agindutakorik bete ez eta autoak barra-barra aurrera eta atzera.

Orain, Ugaztegiko azkeneko baserriraino, Urbaltzetik abiatzen den bidean, porlana bota behar dute. Hau ere

baserritarren mesederako ei da; 300 ardiren ustiapena dagoela, inor enpadronatu omen dela... Eta zergatik ez Degurixaraino? Han ere ardi ustiapenak daude, eskubide gutxiago dute ala?

Guk baserritarren lana (eta bizimodua) sustatu eta landagunea babestu nahi ditugu, baina horretarako benetako politika eraginkorren alde egin behar da, arazoaren benetako muinetara joz. Eta ez: harategiak itxiz edo baldintza kaskarretan mantenduz, nekazal lur onenak AHT eta autopistetan, zoru industrial edo etxebizitzetarako erabiliz...

Gainera, badago Araoztik beste bide bat kotxez igo daitekeena goraino. Urbaltzetik doana ere baldintza honetan dago *todoterrenoan* joateko (urtero Aretxabaletako Udalak diru partida bat ematen du txukuntzeko). Hartu den erabakia ez dugu inondik ulertzen. Zer gabiltza bultzaten, dena autoz betetza?, zerent kaletar batek ere eskubidea duka, diru publikoaz ordaindu behar denez bide publikoa izango da (186.000 euro, lehengo 31 milioi pezeta. Segun eta zertarako diruak ez du balio handirik nonbait, beste batzuetan ondo begiratu izan da, esate baterako Inauterietan).

Aizkorri-Aratz Natur Parkea izendatu berri den honetan, hasiera benetan *ilusionagarria*: hola babestuko dugu biodibertsitatea eta ekosistema. Azkenean, dena zalantzan gelditzen da, zer bilatzen den, ea marketing hutsa den, irudia saltzea, edo benetako babesera emateko behar diren arauak, giza baliabideak eta ekonomikoak ipintzea.

Eta bukatzeko, historia apur bat eta prozedurako apunte batzuk. Aldarrikapena ez da oraingo gauza bat, azkeneko urteotan presio handia egin da, asfaltatzeko edo porlantzeko. Udalak garbi izan du ez zuela amore eman

behar, horrek suposatzen zuen guztiagatik, nahiz eta zinegotzi batzuentzat koste pertsonala ere eduki.

Argi ikusten da, Aralar Udaleko gobernutik kanpo egonda, bidea libre dutela gura duten guztia egiteko, nahiz eta herritarren gutxiengo txiki baten babesera baino ez izan.

Hauteskundeak laster datoz, eta testuinguru horretan kokatu behar da erabakia eta iritzi aldaketa, sektore zabal bateko boto batzuk irabazteko ahalegin *kutre* bat, besterik ez. A! Eta ezetz asmatu zein den ingurumenaren arduraduna? Alkate anderea bera, jakina.

Pertsonak alde batera utzita, Aralarrek garbi duka printzipioen araberako jokabidea: herritar guztien onura helburu duena, baina herritarren ongizate hori berdintasunean, iraunkortasunean, partaidetzan, askatasunean, elkarrekiko errespetuan eta lankidetzan, eta nortasun propioaren garapenean oinarrituta eraiki nahi dugu. Sektore batzuentzako antipopularra izan daitekeela eta boto batzuen galera ekar dezakeela? Politikagintzan, eta herriko udal kudeaketan zer esanik ez, koherentzia termometro ona izan ohi da iparrari eusten zaion edo ez ebaluatzen. Ongizaterako herri kudeaketa indibidualismoan eta sistema neoliberalaren baloretan oinarritzen denean, nor harritzen da interes propioak herritarren interesei baino balio handiagoa emateaz, eta beraz, boto gutxi batzuk orain arte defendatutako irizpideen aurretik jartzeaz?

### Autodeterminazio eskubidea han eta hemen

**Enrike Letona** (Ezker Abertzaleko kidea) Arrasate

Euskal Herrian oso ezaguna egiten zaigu autodeterminazio hitza. Gaur egun edozein politikok erabiltzen du hitz hau lasai asko, beti erabili izan balu bezala. Errealitatea, ordea, oso desberdina da eta bestela hemeroteketara joanda horretaz erraz kontura gaitezke. Izan ere, Euskal Herrian Ezker Abertzalea izan da bakarra urteetan eta urteetan lelo hori aurrera eramatzen eta gizarteratzen, amore eman gabe eta lau txanpon kudeatzeari muzin eginez. Ezker Abertzaleak oso garbi du herri bat berak erabakitzuen duena izateko aukera ez badiote uzten, dirutza kudeatuta ere, morroi izaten jarraituko duela.

Beste batzuen artean, Woodrow Wilson Estatu Batuetako lehendakaria izandakoak indar handiz bultzatu zuen autodeterminazio eskubidea herri bakoitzak mehatxu eta beldurrik gabe bere norabidea zehazteko eskubidea zuela pentsatzen zuelako. Eta oso garbi zuen herri bat ezaugarri linguistiko eta kulturalengatik bereizten zela. Eta niri oso galdera simplea bururatzen zait: euskaldunok ba al ditugu ezaugarri linguistiko eta kultural horiek? Ez dago zertan erantzun beharrik, ezta?

Geroztik NBEan garbi defendatu da eskubide hori urte desberdinatetan. Hasi 1945eko Nazio Batuetako lehen puntuatua jasotzen dena; gero, 1975eko Europako seguritate eta kooperazio azken aktan; gertuago, 1990ean Parisko aktan eta bukatze, 1995 NBEko Batzar Nagusian. Eta eskubide hori gauzatu egin da, ez bakarrik kolonietan baita Europa erdian ere Jugoslavia eta SESBko (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna) apurketekin. Quebeceko kasua ere hor dago. Beraz, kasu hauetatik guztietatik ondorioztatzen da estatu baten barruan dauden herriek autodeterminazio eskubidea dutela eta internazionalki horrela onartu dela.

Hau gehituko nuke: internazionalki ez balute jaso babes hori, herri bezala aske izateko eskubidea bera izango lukete (daukagu)? Jakina! Guri estatu espainolak eta frantsesak ukatu egiten digute eskubide hau estatu ez demokratikoak direlako; hots, geruza fina eta politika erakutsi arren, indarkeria erabiliz mantentzen dute estatus hau. Horrek ez du esan nahi beti horrela izango denik eta amore emango dugunik, gure eskubideak errespetatuak izan arte geureari eutsiko diogula eta borrokan segituko dugula baizik.

Eta herri bezala ditugun eskubideak dauzkagun bezala, hiritar bezala ere baditugu gure eskubideak. Horien artean guretako herri bakoitzean egiten diren proiektu guztietan parte hartzeko eskubidea eta azkenetan gure bozka baliagarria izan beharko luke edozein proiektu babesa emateko edo baztertzeko. Ezin gaitezke mugatu lau urtero bozkatzera. Ezker Abertzaleak behin eta berriz esaten du gure proiektua parte hartzailea dela eta une oro guztioak daukagula zer esan. Gehieneko bultzatzen duena egin daitekeela onartetik bakarrik etorriko zaigu label demokratikoa (AHT, Kontsumismoa besterik bultzatzen ez duten centro komertzial itzelak,...). Hori onartuz bakarrik izan gaitezke egiazko demokratikak, beste guztia demagogia. [Iñaki de Juana: Adierazpen eskubidea].



## ORAINTEXE DUZU AUKERA!

**MULTIOPTICAS**

### 1.A ZERBITZU OPTIKOETAN



Zuk lenteak aukeratu  
eta guk  
**ARMAZOIA  
OPARITU**  
euro 1 gehiago ordaindu gabe!

# BONARDI

Zure lenteak MultiOpticas dendetan erosiz gero,  
**BONARDI** azken bildumako armazoia erregalo.



R.P.S. N° 190/04 I.L.G.

J. Carlos Guerra 1  
Tel. 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai 16  
Tel. 943 76 15 75  
**BERGARA**

C/ Nueva 15 - GROS  
Tel. 943 32 66 49  
**DONOSTIA**

Bidebarrieta 2  
Tel. 943 20 05 22  
**EIBAR**

Koldo Mitxelena, 7  
Tel. 943 51 78 11  
**ERRENTERIA**

Mendibil M. G.  
Tel. 943 63 99 01  
**IRUN**

J.M. Barandiaran Enp.  
Tel. 943 88 99 88  
**ORDIZIA**

San Frantzisko 23  
Tel. 943 69 84 70  
**TOLOSA**

**IRAGARKI HAU EZ DA 0 km-KO AUTOEN GAINEKOA  
IRAGARKI HAU km-KO AUTOEN GAINEKOA DA**

**BAIN**  **0 km ASKO Z+**  
+ abantaila + eta barietate eta prezio hobea

Gama berritzea eta modelo berriak aurkeztea ekarri duen urte honen arrakasta zurekin ospatu nahi dugu, modu ezin hobean: auto berriak = km-ko autoak.

Eta lehenbailehen ospatu nahi dugu. Horregatik, **abendua azarora aurreratzen dugu.**


**Azaroaren 30era arte** ospa ezazu gurekin berritasunez beteriko urte hau, km-ko Volkswagen bat eramanda sekula ere amestutako prezioan.

Bisita egiguzu eta stockeko auto berri guztiak km-ko autoen prezioan aurkituko dituzu.

# UDALAITZ

Gipuzkoa etorbidea, 36  
Tel. 943 711 870 - Arrasate

ALTZARIAK



**ORNARE**  
barne diseinua  
PROIEKTUAK  
BERRITZE LANAK

mantelitarren kalea 2  
Tfno/Fax: 945 12 02 24  
01003 Gasteiz  
[ornareinterioristas.com](http://ornareinterioristas.com)

# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35  
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



## > ARRASATE

Zazpi lanpostu finko betetzeko deialdia egin du Udalak > **18**

## > ARETXABAleta

Lau berbaldi egingo ditu Murrukixok mendi astean > **31**

## > ESKORIATZA

Domekan, uretako parkea jarriko dute kiroldegiko igerileku > **35**

## > ANTZUOLA

Interruptus taldea eta afaria gazte batzarraren eskutik > **36**

ARAMAIO > HERRIKO URAK, MENDIETATIK

# Aramaio, herri aberatsa, baita ere duen ur emari oparoarengatik

## PUTZUAK

Zenbait auzotako ura hartzen dute mendi barruetako putzuetatik

## ITURBURUAK

Beste auzo batzuek edaten dute iturburuak ura

## ERREKASTOA

Oleta da ura beste leku batetik hartzen duen auzo bakarra: errekastotik

### UBANE MADERA > ARAMAIO

Aramaiok dituen berezitasunen artean, bida bat gure ibarrean beste herri batek bakarrik dunea (Leintz Gatzaga da herri hori): iturburu propietatik edo mendibarruetan dauden putzuetatik hartzen du herrian kontsumitzen duten ur guztia, eta ez urtegi batetik.

Ur hori Aramaioko mendi ugarien barren-barrenetatik dator. Gehienetan, zundaketa bitartez ateratzen du ura Udalak, "zundaketa horizontalen" bitartez, udal teknikariekin argitu diguten moduan: "Mendiaren barrena hobi bat sartzen dugu eta handik ateratzen dugu ura". Eta gero ur hori herrian barriatu ta dituzten ur biltegiatarra bideratzen dute; han beharrezko tratamendua emateko, gutxieneko gehienetan.

### ZUNDAKETAK

Esaterako, Etxaguengo haitzetatik hartzen dute ura zundaketa bitartez Ibarrarako eta Etxague nerako bertarako. "Segundoko hiru litro dugu legeztatuta, baina hori baino dezentze gehiago ematen du putzuak". Hori Ibarrarako erabiltzen dute. Horrez gainera, badute beste zundaketa bat eginda Etxaguengo haitzetan, txikiagoa, auzoan erabiltzeko



AUZOAK Aramaioko auzo guztiak edaten dute mendietatik zuzenean hartutako ura.

GOIENKARIA

"segundoko ia litro bat ematen du; Etxaguenerako nahikoa".

Horrez gainera, Etxaguengo haitzetatik hartzen dute ura baino ere Arrikoitiko biltegirako:

"Kasu horretan, iturburu batetik hartzen dugu. Segundoko bi litro ematen ditu. Arraga eta Arexola hornitzen ditu eta etorkizunen Arriolarako ere izango da.

Horrez gainera, handik bidaltzen dugu ura, baita ere, beste biltegi batera, Zubietara, eta Zubietako biltegiak hornitzen ditu Uribarri, Gureia eta Altza auzoak".

## MENDI BARRENEKO URAK, MENDI BARRENEKO ALTXORRAK

### Ur naturalagoa, garbiagoa eta, ondorioz, tratamendu bakoa

Aramaioko iturburu eta putzuek 1.600 lagun hornitzen dituzte gaur egun. Gainera, etorkizunari begira, eta nahiz eta herriko biztanle kopurua handitzen joan, nahikoa ur izango dutela aurreikusten dute udal teknikariekin.

Saso batetan, Udalak bakarrik arduratzen zen Ibarrako urekin. Eta auzo bakotzak hartzen zuen bere uren ardura. Baina egungo beharrek, esaterako, Zabola, Untzilla, Azkoaga, Barajuen eta Induspeko urek burdin ekarpenean handia duenez, ur horrek arazoak eragiten zituen; besteak beste, jantziak garbitzeko, sukaldian erabiltzeko edo pertsonen osasunerako (bozioa eragiten zuen), ur gogorrak ziren. Aratzketa sistema hobea behar zuen, eta edangarritasuna eman behar zitzaien, legeak esaten duena betetzeko. Horrela, ikusi zen ur hori tratatzeko beharra zegoela, eta hala sortu ziren herrian dauden bi ETAPak. San

Adriango eta Asensiomenditik datorren urak bakarrik dauka tratamendu berezitua; gainerakoei, kloroa botatzen zaie bakarrik, oinarrizkoia.

Hori horrela, esan genezake modu horretan lortzen duten ura naturalagoa dela, edo, behintzat, urtegietakoak baino tratamendu txikiagoa dutela. "Kalitate oso ona dauka. Gure urak ez dira ez oso gogorrak eta ezta oso bigunak ere, erdibidekoak dira. Jakina, urtegiko ura dago aire librean, eta horrek du tratamendu desberdina. Izan ere, urtegiko urak kutsadura bakteriologiko askoz ere handiagoa du, zuzenean iturburutik hartzen den urak baino. Hau da, urtegietan ganadua dago, isuriak daude... Guk, aldi, iturburuetatik hartzen dugun ura lur barrutik dator zuzenean, garbiagoa da eta, ondorioz, tratamendu barik dago, kloroarekin bakarrik. Ez dauka arazketa prozesurik".

DATUA

**1.600**  
BIZTANLE

Gaur egun, 1.600 biztanle inguru hornitzen dituzte Aramaioko iturburu eta putzuek. Eta kopuru hori handitzen doan arren, aurreikuspenen arabera, ez zaie urik falta izango.

## UR GORRIAK, GOGORRAGOAK

Baina zundaketa gehien dituen gunea da San Adrian mendia. Bost dituzte han. Haren atzetik, Asensiomendi dator, hiru zundaketaarekin. "Antzina Untzilla eta Suña hornitzen zituen; eta San Adriangoek, berri, Barajuen eta Azkoaga. Baina gaur egun zundaketa guztiak daude bideratuta Azkoagako uren tratamenduen estazioa (ETAP). Eta horrek hornitzen ditu: Induspe, Azkoaga, Zabola, Untzilla eta Suña auzoak. Segundoko lau litro ematen ditu".

Bi mendi horietatik datorren ura da desberdina beste iturburuekiko, burdin ekarpenea duelako. "Ur gorriak dira, gogorrakoak, eta beste urek baino jarraitutasun handiagoa behar du ur horien mantenuak".

## ITURBURUAK ETA ERREKASTOA

Gantzaga auzoan, berriz, mendi barrenean putzua izan beharrean iturburua dute. "Menditik kanpora ateratzen den unean hartzen dugu hango ura. Gaur egun Gantzaga auzorako erabilten dugu, baina etorkizuneara, Eguzkierripa auzorako ere izango da ur hori".

Eta iturburutik ateratzen dute ura, baita ere, Jarindon, Marixeka eta ingururako.

Hala, auzo bakarra geratzen zaigu aztertzeko: Oleta. Auzo horretarako ura hirugarren leku batetik hartzen dute: errekastotik. "Arazo handiagoak ditu, euria egiten duenean, ura arre etortzen delako. Eguzki plaka baten energia erabiltzen dugu ura kloratzeko eta filtroa garbitzeko, baina batzuetan ez da nahikoa izaten".

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapataua, 18	Español Ruiz	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Domeka, 19	Zabala	Maala 31	943 79 14 09
Astelehena, 20	Azkoaga	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Martitzena, 21	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Eguaztena, 22	Corcueras	Iturrioz 17	943 79 79 99
Eguena, 23	Irizar	Maisu Anbarri	943 79 22 26
Egubakoitz, 24		Erguin 11	943 79 12 39

**BERGARA**

Zapataua, 18	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Domeka, 19	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Astelehena, 20	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Martitzena, 21	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguaztena, 22	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 23	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Egubakoitz, 24	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74

**ONATI**

Zapataua, 18	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 19	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 20	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Martitzena, 21	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguaztena, 22	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguena, 23	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Egubakoitz, 24	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

**ARETXABAleta**

Zapataua, 18	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 19	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 20	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzena, 21	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztena, 22	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguena, 23	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Egubakoitz, 24	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Oskidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertaizainza.....	943 53 47 20
Ocasun Etxeak.....	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Arretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Udalzainoak.....	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Arretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

**GARRAOAK**

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak.....	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 50 33
Arretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerbitzu Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak.....	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Onati.....	943 78 36 67

**URBANOAK**

San Lorenzo/San Juanidik irteerak.....	07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40,
	12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00,
	19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan(Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluze), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martxo gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxeak.
Labeagarieta/Olabarrenetik irteerak.....	07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20,
	12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolonia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubietza, Mugerza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**URBANOAK****ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00,
	15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B., Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterrí, Legaria, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35,
	16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teres, C. Obrego, Onerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantziko, Muxibar, Zarugale, Erguín A eta Gorostiza.	

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**

08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B., Zarugale, Muxibar, S. Frantziko, Iñarra, Makatzena, Onerreka, C. Obrego, Galiziá, Bengoa eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legaria, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza.	

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**

08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legaria, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza.	

## kale inuesta

# Bizilagun gehiago datozerako nahiko zerbitzu dago Elgetan?



Nekane Esposito  
Pentsioduna  
Elgeta



Jon Loiti  
Langilea  
Elgeta



Itziar Arrieta  
Erretiratua  
Elgeta



Manuela Ugartemendia  
Erretiratua  
Elgeta



Enrike Ormaetxea  
Langilea  
Elgeta

Gurpildun aulkian nago eta konponketak egingo dituztela esan arren, oraingoz oztoko asko dago: San Roke kalea gaizki dago; Maalako parke berrian ez dute aldapatzorik ipini...

Elgetan denbora laburrean bi auzo berri sortu dira, eta oraingoz moldatzen bagara ere, zerbitzu gehiago beharko dira. Hirietan zerbitzu gehiago dagoen arren, nik nahigo dut Elgeta, gustura nago.

Denda gutxi dago, eta harategia ere itxiko ote den zurrumurrua dago. Arrainduna astean behin etortzen da. Jende gehiagorekin denda gehiago behar da. Autobus zerbitzu ere nahiko urria da.

Nire ustez, ongi dago zerbitzuei dagokienez; etxetik gertu daukadan den dan egiten ditut erosketak, eta ongi moldatzen naiz. Inguruak ere egoki daude paseatzeko Ez dut ezeren faltarik sumatzen.

Denda nahikoa dago, baina harategia ixtekoak omen dira eta herrian jende nagusi asko dago ezin dena kanpora joan erosketak egitera. Gaintzeko zerbitzuak ongi daude herrian.

## txaloak eta txistuak



IRATI AGIRREAZALDEGI

## Kanastak penagarri daude seminarioan

Aranzadi ikastolako zenbait ikasle etorri zaizkigu kexua azalduaz jolastokiko kanastengatik. Argazkiak erakusten du egoera penagarri samarrean daudela, eta konpon ditzaten nahi dute ikasleek. Eta, bide batez, han iturri bat ipintzea ere nahiko lukete.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlitzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

6

Adituen esanetan, Deba ibaia, Gipuzkoako zikinen, 2012rako izango da garbi; horiaz, hemendik sei urterat, dena bide onetik badoa, jakina. Pauso garrantzitsua izango da Arrasateko arazteria egitea; abenduan hasiko dira lanak.

## 5 galdera...

### Maite Barreña

Emakume Txokoko arduraduna  
Arrasate

#### 1. Doako aholkularitza zerbitzua abiarazi zenute- netik zelako erantzuna izan du?

Ona, pentsatzen genuenaren araberakoa. Kontua da zerbitzua ematen dugula eguztenero, eta eguztzen guztiak, baten izan ezik, kasuak izan ditugu, eta jendea gustura dago. Hasiera baten, bi orduko zerbitzua ematen dugu eta hiru kasu hartzen ditugu gehienez, zerbitzua kalitatezkoa izan dadin. Dena den, nik uste dut emakume guztiak ez dakitela zerbitzu horrek zereskaintzen duen eta nik uste dut hori argitu ahala zerbitzua handitu egingo dela.

#### 2. Esan iezaguzu, bada, zer eskaintzen duzuen zerbi- tzu horren bitartez.

Arlo legaletik abiatura edozein arloren gaineko informazioa eskura daiteke: arlo zibila, penala, laborala, familiakoa... Edozein zalantza legal izanez gero, erantzuteko gertu gaude. Banaketak, seme-alaben zaintza, amatasun-aitatasun bajak, laneko arazoak... Edozein zalantza argitzen du.

#### 3. Zer egin behar da zerbi- tzu hori erabili ahaliza- teko?

Emakume Sailera deitu eta guk ordua ematen dugu. Ahalegintzen gara astebeteko epean erantzuna ematen, baina jende asko badago hurrengo asterako ematen dugu. Zerbitzua euskaraz zein espainolez jaso daiteke eta izaten da ordu erdi hiru ordu laurdeneko harrera zerbitzua abokatu batekin.

#### 4. Abokatu bat egon arren, baina, ez da abo- katu batek egiten duen ohiko zerbitzua, ezta ?

Da aholkularitza eta informazio zerbitzua. Guk ez dugu abokatu bat ipintzen. Egiten duguna da dituen zalantzan argitu ikuspuntu legalistik.

#### 5. Baldintzaren bat bete behar da zerbitzu hori erabiltzeko?

Emakumezkoia izatea eta Arrasaten erroldatuta izatea dira baldintza bakarrak.



**UDALA > LANPOSTUAK**

# Zazpi lanpostu finko betetzeko lehiaketa deitu du Arrasateko Udalak

Liburuzaina, liburuzain laguntzailea, erizaintzako diplomaduna, arotza, delineatzailea eta bi udaltzain behar dituzte funtzionario izateko

**UBANE MADERA > ARRASATE**  
Oraingo asteko martitzenean argitaratu dute Estatuko buletinean Arrasateko Udalak zazpi lanpostu finko betetzeko deialdia egin duela; horrenbestez, hurrengo egunean zabaldu zuen Udalak lanpostu horietarako izena emateko epea. Abenduaren 4ra bitartean eman ahal da izena, Biztanleen Arreta Zerbitzuan (BAZ).

Bi bide daude horretarako: edo BAZera bertara joan eta han ematen duten eskabidea bete; edo Udalaren webgunearen bitartez eskuratu eskabidea eta harekin gero, BAZera joan ize-



LIBURUZAINA Liburutegi berrirako bi pertsona behar dituzte: liburuzaina eta liburuzain laguntzailea.

IKER BARANDIARAN

na ematera ([arrasate-mondragón.org](http://arrasate-mondragón.org)).

Oro har, honako dokumentazioa eskatu behar dute: Norta-

sun Agiria, ikasketen titulua, euskara titulua (izanez gero), udaltzain lanposturako bada, gidabaimena; eta eskatzailea

elbarria bada, berriz, elbarritasunaren ziurtagiria.

Bestalde, BAZen bertan eta webgunean ere bai, liburu batzuk

gomendatuko dituzte, azterketa prestatzeko egokiak direnak: "Gero, norberak ikusiko du zer egin", azaldu digute deialdia egin duen Udaleko Pertsonal Sailetik. Azterketen egutegia, berriz, oraindik finkatu barik dago.

#### ABENDUAREN HASIERARA ARTE

Lan eskaintza publiko hori 2006ko ikasturteari dagokio: "Aurten, BAZerako lanpostuen prozesuarekin, guztia kolapsatu egin zaigu, 300 lagunetik gora aurkeztu zen-eta azterketa haitara. Horren ondorioz, gainerako guztia geldetu egin zaigu", argitu digute Pertsonal Sailetik.

Edozelan ere, hortxe dago deialdia. Eta gainera, ez da azkenekoa izango: "Datorren urtarrilean edo otsailean onartuko dugu 2007ari dagokion lan eskaintza publikoa. Ikusiko dugu zein lanpostu ateratzen den. Kontuan hartu behar da, gainera, hauteskunde sasoia dela eta horrek baldintzatu egiten dituela halakoak. Batzuetan bizkorrago doa eta bestetan, motelago".

**AZOKAK > JOSTAILUEN AZOKA**

## Hirugarren urtez, Jostailu Truke Merkatua egingo dute

Abenduaren 1era bitartean ibiliko dira herritarren jostailuak batzen; San Andresera, Uribarriera eta erdigunera joango dira bilketa lanak egitera, 17:00etatik 18:30era

**U.M. > ARRASATE**  
Oraingo asteko eguztenean hasi dira Txatxilipurdi kultura elkarrekoak bigarren eskuko jostailuak batzen. Jostailu Truke Merkatuko gura dituzte.

Hain zuzen ere, umeek erabilten ez dituzten eta egoera onean dauden jostailuak batzen

dihardute, abenduaren hasiera arte. Jostailu bakoitzaren truke, txartel bana emango diote eramaileari. Gero, abenduaren erdialdean egingo duten Jostailu Truke Merkatuan, txartel bakoitza beste edozein jostailurenengatik trukatu ahal izango dute eramaileek.

#### AUZOZ AUZO

Jostailuak auzoz auzo batuko dituzte. Hala, eramateko hurrengo hitzordua da azaroaren 22an, San Andres auzoan, Kurtzetxiki dorrearen azpian (Bañez Doktorea kalea), 17:00etatik 18:30era bitartean.

Uribarriko auzotarrek, berriz, azaroaren 29an dute hitzordua, Usaetxe plazan, 17:00etatik 18:30era. Eta erdiguneoek eraman ditzakete gaur (egubakoitza), azaroaren 24an edo abenduaren 1ean. Biteri plaza eraman behar dituzte, 17:00etatik 18:30ak bitartean.

#### JOSTAILUEN BALDINTZAK

Azokarako jostailuek gutxieneko baldintza batzuk bete beharko dituzte: egoera onean eta osorik egon behar dute; elektronikoak badira, pilak edo bateria izan behar dituzte; ez dituzte onartuko sexu bereizketarik edo indarkeriaren aldeko jarrerarik era-kusten dituzten jostailuak eta panpinak eta ibilgailuak (autoak, kamioiak...), kopurua edozein izanda ere, txartel bakarraren truke aldatuko dituzte.

Horrekin batera, gomendatzen dute jostailu hezitzalearen alde egiteko, jostailua haurraren garapenerako tresna ezin hobea dela kontuan hartuta.

#### AZOKA, AED-N

Merkatua egingo dute Gabonetarra begira: abenduaren 15ean eta abenduaren 16an (egubakoitza eta zapata). AEDk Pablo Uranga kalean duen lokalean ipiniko dute, 17:00etatik 20:00ak arte.

#### HIRUGARREN ALDIA

Txatxilipurdioko hirugarren urtez antolatu dute azoka, bi arra zoirengatik: Gabonetan egiten den gehiegizko kontsumoa murritzeko eta jostailuen bererabilpena bultzatzeko. Esandakoaren arabera, lehenengo urtean pattal samar ibili zen, akaso ezagunegia ez zelako, baina iaz, arrakasta handia izan zuen azokak. Gaztetxoak barik, bereziki, gurasoek eramatzen dituztela jostailuak ere kontatu digute.

Bestalde, jostailua aukeratzeko orduan kontuan izan beharreko aholku batzuk ere helarazi dizkigute: jostailua dibertigarria eta haurraren interesa iratzarri eta mantentzeko gauza izan behar da; fantasia, sormena eta irudimena piztu behar ditu; haurraren hezkuntza mailara egokitzea behar da eta erabilera arauak izan behar ditu, besteak beste.

**GAK**  
Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak

Era guztietako garbiketak

- Zuen komunitateko administrazioa
- Konponketa orokorrak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.

Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

**OGARAN jatetxea**  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**Tapiceria AINUR**

**TAPIZATU LANAK:**

- SOFAK
- BESAULKIAK
- AULKIAK
- ETA ABAR

Nafarroa etorbidea 23-MI-11  
Tel.: 943 79 19 43/ 680 826 555

ZERBITZUAK > GARAGARTZAKO GARBIGUNEA

# Garagartzako garbigunearen hobia konpondu egingo du Udalak

Hobi edo pezoiaaren erreilak zabalegiak dira, eta horren ondorioz, automobil txikiak ezin dira sartu; dena dela, Udalak dio konponbide erraza duela

**UBANE MADERA > ARRASATE**  
Garagartzako garbiguneak eskaintzen dituen zerbitzuen artean, autoaren azpiko aldea begizatzeko edo olio aldaketa eta halakoak egiteko hobi edo pezoi bat ere bada. Baino kontua da automobil mota guztiak ezin dutela erabili, hobiaren gaineko erreikak zabalegiak dira-eta. Hain zuzen ere, 1,20 zentimetro dago erreien artean, eta auto txikiak, berriz, 1,10 edo 1,08 zentimetroko zabala izaten dute. "Proiektuan zegoen txarto", azaldu digu Ingrumen Saileko teknikari Rafa Ugartek: "Proiektuan azaltzen zen zabala-za zen 1,35 zentimetro. Obra egin zutenak konturatu egin ziren hori zabalegia zela eta 1,20raino estu zuten. Hala ere, oraindik ere Ford Fiesta eta halako auto txikiak ezin dute hobia erabili eta nahiko zabalak diren auto batzuk ere larri samar ibiltzen dira".

## KONPONBIDEERRAZA

Horrela, konponketa ahalik eta las-terren bideratzeko asmoa du Uda-lak: "Irtenbide samurra dauka eta Obra Sailekoak dagoeneko badi-biltza horretan", esan digu Ugar-tek. Hain justu ere, Obren Saile-tik jakinarazi digute dagoeneko idatzia bidali dietela proiektua egin zuten enpresei; Gain eta Hibaia enpresei, alegia. Argibide-ak eskatu dizkiete, eta erantzuna-ren arabera erabakiko dute zeinek eta noiz egin konponketak: "Orain-go, zain egon beharko dugu".

## ERRESPEITU HANDIAGOA

Kontuak kontu eta hobiaren arazo-kenduta, garbigunearen era-bilerarekin pozik daude Udalean: "Oso erabilera handia dauka; lau



HOBIA Argazkian ikusten denez, automobil txikiak ezin dute erabili hobia, erreikak zabalegiak direlako.

U.M.

auto batera garbi daitezke, eta eguraldi ona egiten duenean jende mordoa ibiltzen da; zoramena izaten da batzuetan", kontatu digu Rafa Ugartek.

Jakinarazi digu, baita ere, lehen baino errespetu handiago-arekin jokatzen dutela erabiltzai-leek: "Gehienek errespetatzen dute. Hasieran, kartelak ipini geni-

tuen, zerbitzuak zela erabili espli-katzeko; baina askok ez zuten ezta begiratzen ere; orain, berriz, argazkiak erabiltzen ditugu eta jende-ak kasu handiagoa egiten die".

## KEXUAK ETA ORDUTEGIA

### Garbigunearen ordutegia dela-eta, zenbait kexu eta zuzenketa

Erabiltzaileak kexu dira gunearren ordutegia dela-eta. 09:00etan zabaltzen dela dio kartelak, baina askotan ez dutela hori betetzen diote erabiltzaileek. Eta halaxe da. GOIENKARIAk frogatu du hori oraingo asteko martitzenean: 09:00etan zabaldu beharreko zerbitzua 12:00etan zabaldu zuten egun hartan. Beraz, hobiarekin batera, ordutegi kontua ere konpondu beharko dute.

## NEGUKO ORDUTEGIA


Bestalde, eta ordutegiarekin jarraituz, gune hartan ez dago argindarrik; beraz, eguzkiaren argitasunaren araberako da haren funtzionamendua. Hori horrela, udazkenean eta neguan 17:00ak edo 18:00ak aldera itxiko dute, eta ez, kartelak dioen moduan, 20:00etan.



IA BETETA Jende ugari zegoen zain martitzenean.

U.M.

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITA**

T a b e r n a

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Erakusketa berria**

Ekutio kalea nab. 14-15  
Uribarri auzoa 4  
Tel. faxa: 943 79 01 82

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturrioz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

**IKUSKIZUNA > 'AITZINA PIKA' IKUSKIZUNA ZAPATUAN, AMAIA UDAL ANTZOKIAN**

# Zuberoako 12 dantza talderen elkarlana

Zuberoako Aitzindariak elkarteak *Aitzina Pika* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian zapatuan, 20:00etan; 64 dantzari arituko dira ikuskizunean.

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Bihar, zapatua, *Aitzina Pika* ize-neko ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian, 20:00etan. Aitzindariak elkarteak dauka ikuskizun horren ardura, eta aurreko astean estreinatu zuten, Zuberoan bertan.

Hain zuzen ere, Amaia Udal Antzokiko taula gainean hamabi dantza talde arituko dira aldi

berean: Aidez Aire, Arrokiaga, Atharratze, Barkoxe, Laine, Ligi-Lexantzu eta Eskiula, bes-teak beste.

Guztira 64 dantzari, hamar kantari eta hamar soinu jotzai-le batuko ditu ikuskizun berri horrek. Hegoaldean lehenengo aldiz izango da emanaldi hori ikusgai, eta dagoeneko salgai jarri dituzte sarrerak Amaia Udal Antzokiko txarteldegian, 5 euroren truke.

**EUSKAL DANTZAK BERRIKUSTEN**  
Ikuskizun horretan euskal dantzaren oraina eta geroa islatzen dute, eta horretarako ikuspegi kritikoa lantzen dute. Besteak beste, halako gaiak irudikatuko dituzte taula gainean: II. Mundu Gerra osteko Zuberoako dantzak, folklorearen eta kulturaren arteko gorabeherak eta emakumez-

koek dantzari egin dioten ekar-pena, besteak beste.

**SANTA ZEZILIAREN OSPAKIZUNAK**  
Bestalde, hilaren 22an Santa Zezilia eguna dela eta, herriko musikariek hainbat ospakizun egin-go dituzte datozen egunetan. Arrasateko Musika Eskolakoek gaur eta bihar egingo dituzte ospakizunok. Egubakoitzean kontzertua egingo dute, eskolan, 18:30ean. Eta zapatuan, bandak kalejira egingo du, 19:00etan.

Goikobaluk, berriz, datorren egubakoitzean, hilaren 24an, egingo du Santa Zeziliaren ome-nezko jaia. 19:00etan kantu-txi-kiteoa egingo dute eta Goikobaluren gaineko eskuorriak banatuko dituzte. Bihar Donostiara joango dira eta Alaia abesbatza-rekin San Vicente elizan abes-tuko dute 20:15ean.



**ASKOTARIKO DANTZAK** Gaur egungo eta iraganeko dantzak ikusgai. GOIENKARIA

## Arkada Socialen agurra, lagun artean, Jamen

Bihar, zapatua, Arkada Social taldeak agur kontzertua egingo du Bergarako Jam aretoan. Izan ere, 3.60 aretoan egin zuten kontzertuan jende asko sartu ezinik gelditu zen; horregatik, Bergaran egingo dute azkena. Eurekin batera, Arrasateko beste hiru punk-Oi! talde arituko dira: Enboskada, Des-Kontrol eta Anti-Social, hain zuzen ere.



GOIENKARIA

**IPUIN KONTAKETA > INONGO VI MAKOMEREN ESKUTIK**

## Umeei Afrika beltzeko ipuinak kontatuko dizkiete

Gaur, egubakoitza, Inongo Vi Makomeren ipuin kontaketa Monterronen

**I.B. > ARRASATE**  
Arrasateko Udal Liburutegiak *Cuentos de África Negra* ipuin saioa antolatu du gaurko, egubakoitza, 17:30ean. Kontaketa Bartzelonan bizi den Inongo Vi

Makome afrikarrak egingo du, eta batez ere 5 eta 8 urte arteko umeei zuzenduta dago.

### HAINBAT LIBURU IDATZITA

Makome ipuin kontalaria iza-teaz gain, idazlea ere bada. Umen-dako liburu batzuk idatzi ditu (batzuk euskaratuta daude, eta Monterronen eskuragarri daude, gainera). Asteon, Donostian, Gakoarekin argita-ratu duen *Población negra en Europa* liburua aurkeztu du.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

**Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE**  
**Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76**

ZARZUELA > IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOAREN ESKUTIK

# 'La leyenda del beso' zarzuela bi asteburutan

Hilaren 25ean eta 26an eta abenduaren 1ean eta 2an egingo dute Amaia Udal Antzokian

Martxoan hasi ziren Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko lagunak zarzuela hori prestatzen

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak erronka handia izaten du urtero, zarzuela presatu eta taula gainean eskainzen du-eta. Aurtengo, *La leyenda del beso*, egingo duten zazpi-garren zarzuela da. Aurreko urteetan *Baserrria* (*El Caserio euskalratuta*), *La tabernera del puerto*, *Luisa Fernanda*, *Los Gavilanes* eta *Katiuska* eskaini dituzte, besteak beste.

Elkarte Lirikoaren zuzendarri Tere Gonzalezen esanetan, Soutullo eta Vertek idatzitako *La leyenda del beso* zarzuela "konplexua da, baina aldi berean oso ederra". Horren harira, azaldu

digu ez dela oso ikuskizun ezaguna: "Irakurleei ezaguna egingo zaie zarzuelaren zati instrumental bat, Mocedades taldeak *Amor de hombre* kanturako eraibili zuen bera da-eta", gaineratu zuen Gonzalezek.

**ASTELEHENEAN SARRERAK SALGAI**  
Lau egunetan egingo dute ikuskizuna: hilaren 25ean, 26an eta abenduaren 2an, hiru egunetan 19:30ean; eta abenduaren 1ean, 20:00etan. Hilaren 20an jarriko dituzte sarrerak salgai Amaia Udal Antzokiko txarteldegian, eta egun horretatik aurrera egunero egongo da erosteko aukera, 18:30etik 20:30era bitartean.



IAZ 'BASERRIA' Argazkian, iazko Baserrria zarzuelako irudi bat.

GOIENKARIA

Konde bat ezkontzera doa eta bere jauregian dago. Halako baten, ijitoen karabana bat helduko da jauregira. Emakumezko ijito bat oso ederra da eta kondea maitemindu egingo da. Baina bada kondaira bat dioena emakumezko ijitoari musu ematen dia na hil egingo dela. Hori da, hain zuzen, *La leyenda del beso* zarzuelaren argumentua.

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa martxoan ezkerro dabil ikuskizun hori prestatzen, eta, beste

behin, eszenatoki eta jantzi guztiek elkarteko lagunek egin dituzte. Entseguak Arrasateko Musika Eskolan egin dituzte, eta bizophiru Amaia Udal Antzokian.

**120 LAGUN INGURU LANEAN**  
Abeslariak, Arrasateko Musika Eskolako orkestrako musikariak eta bestelako lanak egin dituztenak batuta, 120 lagun dabiltsa zarzuela horren atzean. Aurtengoan ikus-entzunezkoak ere erabili dituzte.

LEHIAKETA

## Santamasak irudikatzeko lehiaketa deitu dute

Azaroaren 29a izango da lanak aurkezteko azkeneko eguna

**I.B. > ARRASATE**

Udaleko Kultura Sailak Santamasak 2006 horma-irudia ren lehiaketa deitu du. Edozeinek esku har dezake, berdin dio adinak eta jaioterriak. Horma-irudiak 50x70 zentimetroko tamaina izan beharko du. Informatika euskalrian ere aurkezta ahal izango da, baldin eta DIN-A3 tamainako paperean inprimatuta badago.

**SARIA, 400 EURO**

Lanak azaroaren 29a baino lehen aurkezta beharko dira Udaleko Kultura Sailean, eta derrigorrez testu hau izan beharko dute: *2006 Santamasak Arrasate*. Eta irabazleari 400 euro emango dizkiote. Epaimahai batek hartuko du erabaki hori, eta aldaezina izango da.

## DEBARRI ESKORIATZA

Juan Carlos Bengoa,  
Eskoriatzako  
alkatearekin berbetan

**Emisio eguna:**  
Asteazkena 22, 21:15ean

**Aurkezlea:**  
Alberto Gorritiberea

**Aurrez galderak egiteko:**  
[www.goiena.net](http://www.goiena.net) webgunean  
edo 943 71 23 95 telefono  
zenbakian.



**Goitb**  
Goiena Telebista  
*Ikustekoa!*

DEBARRI / Babeslea  
**ARKAUZ**  
GRUPO  
ARRASATE-ARETXABAleta

**TXIRRINDULARITZA****"Indartsu  
hastea da  
eskatu  
didatena"**

Ivan Velascok  
oraindik ez daki ze  
egutegi izango duen

**X.U. > ARRASATE**  
Sorpresa hartu zuen Ivan Velascok Euskaltelean deia. Hain justu, GOIENKARIAk bere egoeraren berri eman zuen egunean deitu zion Miguel Madariaga Euskalteleko zuzendariak, egubakoitzean bertan. Hala, urtebete Orbea egin eta gero, Arrasateko txirrindulariak maila gorenara jauzi egin du.

**GOGOR ENTRENATZEA**  
Velascok ez du beste erremediorik, zuzendaritza taldeak oraindik denboraldian zehar egingo dituen lasterketen berri eman ez badio ere, Igor Gonzalez de Galdeanok urtea indartsu hasteko eskatu diolako. Hala, otsail-martxorako gorputzaldi onean egoteko eskaera jasota, Arrasatekoak ez du negu makala aurretik.

Velascok eman dezakeena-ren berri ona dute Euskalteleen, orain arte zuzendari izan duen Jon Odriozolaren agin-duetara egongo da-eta. Hala, dagoeneko bi txirrindulari profesional ditugu ibarrean: Velasco eta Markel Irizar.



Alberto Unamuno.



JOSEKO ARANTZABAL

JOKALARI GAZTEAK Zurututzak jokalari gazteei ere eman die aukera azken norgehiagoketan; eta ondo jardun dute.

**SASKIBALOIA > MUGARRI ALKESA**

# Bigarren dago Mapy.tv, Mugarri Alkesaren biharko kontrarioa

18:00etan hasita,  
bigarren eta  
hirugarren sailkatuen  
arteko lehia jokatuko  
dute bihar Iturripen;  
joaneko partiduan,  
gasteiztarrek sei puntu  
gehiago egin zituzten

**XABIER URTZELAI > ARRASATE**  
99-93, hori izan zen joaneko partidua emaitza, eta horri eman gura dio buelta Mugarri Alkesak. Denboraldi luzea geratzen bada ere, Gorka Zurututzaren mutilek ondo dakite biharko norgehiagoka garrantzitsua dela. Ez orain, baina gero bai; izan ere, kontuan

hartu behar da bi taldeok auke-  
ra handia dituztela igoera fase-  
rako sailkatzeo, eta fase horretan  
bi talde horiek kontrario zuzenak izango dira. Hala, aldea  
izateko orain egin behar da lan.

**"NORGEHIAGOKA POLITA"**

Horrela laburtu digu Jagoba Gamarra taldekideak biharko norgehiagoka: "Talde sendoa da, jokalari asko dituena. Hala, ez dute aldaketak egiteko inongo arazorik izaten, eta horri esker intentsitate handiarekin jokatzen dituzte minutu guztiak. Seguru norgehiagoka polita izango dela, Gasteizkoa modukoa. Orduan, ondo jokatuta ere galdu egin genuen".

Orain dela bi aste Urdanetaren kontra jokatutako norgehiagoka garrantzitsuan moduan,

bihar ere zaleen berotasuna igarri gura dute Mugarri Alkesakoek: "Taldean oso pozik gaude oraingo denboraldian zaleak ematen dabiltsan erantzunarekin. Urdanetaren kontrako partiduan eragin handia izan zuen harmailetan egon zen giroa. Eta hori errepikatzeko, zaleak txoko-  
late beroarekin erakarri gura ditugu Iturripeta".

**GAZTEAK, ONDO**

Azaroko norgehiagokak garrantzitsuak izan dira taldeko gazte-enendako. Imanol Zeziagak eta halako jokalariek hutsune garrantzitsuak betetzeko ardura izan dute, eta ondo bete dute lana. "Barberena da beste gazteetako bat, baina hark dagoeneko era-kutsi du aurrera egiteko aukera handiak dituen jokalaria dela".

**> ATLETISMOA  
Arrasatek bederatzi  
ordezkari izango ditu  
Irungo krosean**

Domekan egingo dute Irunen, Txingudi Ikastolaren zelaietan, Irungo 38. krosa. Arrasateko Atletismo Taldeko bederatzi korrikalari lehiatuko dira, hainbat kategoriaren banatuta.

Beteranoetan izango dira Maria Jose Gil, Cesar Diez, Mari Fran Alonso eta Javier Mentxaka. Promes mailan izango da Endika Donai; juniorretan Markel Blanco; kadeteetan Martin Berribitia; infantiletan Andoni Perez; eta alebinetan Jon Aranburu.

**> ATLETISMOA  
Arrasateko gaztetxoek  
hamar domina ekarri  
zituzten Atletiadatik**

Arrasatetik joandako atletak guraso itzuli ziren Donostian egin-dako Atletiadatik, emaitza onak erdietsita. Besteak beste, Iñigo Uribarrenek urea ekarri zuen luzea jauzian; eta neskek ere urrezko ekarri zuten 100 metroko launako errelebu proban, bai infantiletan eta baita alebinetan ere: Lide Pagaldai, Lore Mar, Euke-ne Dorronsoro eta Maialen Axpe infantiletan; Izar Gorroñogoitia, Maddi Garro, Leire Alzola eta Naiara Zubizarreta alebinetan.

**> BOLOAK  
Santa Marinako bolo  
txapelketak baditu  
irabazleak**

Bi hilabeteko lehia jokatu eta gero, Santa Marinako bolo txapelketak baditu irabazoleak. Jacintok eta Julianek osatutako biko-teak eraman du sari nagusia, eta Enrikek eta Germanek osatutako bikoteak egin du bigarren.

Txapelketako antolatzaileen esanetan, parte-hartze polita izan du aurtengo txapelketak, guztira 20 bikote lehiatu dira-eta. Azkeneko jardunaldia baziari ederra-kin borobilu zuten, eta sari banaketak egin zituzten gero.

**> ESKUBALOIA  
Pasai Donibanen  
jokatuko du Ford  
Mugarri Arrasatek**

Gure Jorge Fernandez kontra berdindu eta gero (23-23), Ford Mugarrik sailkapenean atzerago dagoen Donibane Majestic taldearen kontra jokatuko du zapatu arratsaldean. Talde hori aspaldiko ezaguna da, hora igo da-eta, Arrasateren batera, territorial mailatik kategoria berrira. Hala ere, Ford Mugarrik baino makalago hasi dute Euskadiko Liga-ko ibilbidea. Bada, Donibaneren kantxan irabaztea benetako saria izango litzateke.

**futbitoa zaldibar****EMAIZTAK**

Lasagabaster-Billy & The cowboys .....	2-3
Manhattan Pippol-Iriztu taberna .....	3-6
AT Celaya-Dublin Irish Pub .....	7-4
Betrayer-Equis .....	7-5
Iturriozt taberna-Iluntz .....	3-5
Mc Awen Dauen-Saukelu Abian .....	3-7
Cicatrus-Cipris taberna .....	3-4
HLB 108-THC .....	8-5
Abokajarro-Dribbling .....	5-4
ThC-Cipris taberna .....	5-14

**PARTIDUAK**

Azaroak 18, zapatau	Epaileak
09:50 Cicatrus-Dribling	Iluntz
11:00 Iluntz-AT Celaya	Dribling
12:00 Dublin Irish Pub-Billy & The.	AT Celaya
13:00 Betrayer-Saukelu Abian	Billy & The.
15:50 Iriztu tab.-Lasagabaster	Man.Pippol
17:00 Equis-Man.Pippol	Lasagabaster

**SAILKAPENA**

	P	J
1. Saukelu Abian .....	9	3
2. Iluntz .....	9	3
3. AT Celaya .....	9	3
4. Betrayer .....	7	3
5. Abokajarro .....	6	3
6. HLB 108 .....	6	3
7. Cipris .....	6	3
8. Iriztu taberna .....	5	3
9. Iturriozt taberna .....	4	3
10. Billy & The Cowboys .....	4	3
11. Mc Awen Dauen .....	4	3
12. Dribling .....	3	3
13. Dublin Irish Pub .....	3	3
14. Manhattan Pippol .....	3	3
15. Cicatrus .....	0	3
16. Lasagabaster .....	0	3
17. Equis .....	0	3
18. THC .....	0	3

**Ordutegiari  
dagokionez,  
neurtu egiten  
dituzuen  
eskaerak**

Txapelketa hasi aurretik, antolatzaileek norgehiagoken ordutegia aldatzeko aukera eman zuten. Baino halakoetan gertatzen da aukera txiki bat eman eta taldeek behar baino gehiago erabiltzen dutela. Hau da, joan den asteburuuan antolatzaileek bederatzi norgehiagoka aldatzeko eskaerak jaso dituzten, bederatzi.

Ulertuko duzue hori ez dela posible; antolatzaileek mugatu egingo dute eskaera kopurua. Hala, benetako beharra dutenek bakarrik aldatu ahal izango dute ordua.

**> ATLETISMOA**

**Arrasatek bederatzi  
ordezkari izango ditu  
Irungo krosean**

Domekan egingo dute Irunen, Txingudi Ikastolaren zelaietan, Irungo 38. krosa. Arrasateko Atletismo Taldeko bederatzi korrikalari lehiatuko dira, hainbat kategoriaren banatuta.

Beteranoetan izango dira Maria Jose Gil, Cesar Diez, Mari Fran Alonso eta Javier Mentxaka. Promes mailan izango da Endika Donai; juniorretan Markel Blanco; kadeteetan Martin Berribitia; infantiletan Andoni Perez; eta alebinetan Jon Aranburu.

**> ATLETISMOA**

**Arrasateko gaztetxoek  
hamar domina ekarri  
zituzten Atletiadatik**

Arrasatetik joandako atletak guraso itzuli ziren Donostian egin-dako Atletiadatik, emaitza onak erdietsita. Besteak beste, Iñigo Uribarrenek urea ekarri zuen luzea jauzian; eta neskek ere urrezko ekarri zuten 100 metroko launako errelebu proban, bai infantiletan eta baita alebinetan ere: Lide Pagaldai, Lore Mar, Euke-ne Dorronsoro eta Maialen Axpe infantiletan; Izar Gorroñogoitia, Maddi Garro, Leire Alzola eta Naiara Zubizarreta alebinetan.

**> BOLOAK**

**Santa Marinako bolo  
txapelketak baditu  
irabazleak**

Bi hilabeteko lehia jokatu eta gero, Santa Marinako bolo txapelketak baditu irabazoleak. Jacintok eta Julianek osatutako biko-teak eraman du sari nagusia, eta Enrikek eta Germanek osatutako bikoteak egin du bigarren.

Txapelketako antolatzaileen esanetan, parte-hartze polita izan du aurtengo txapelketak, guztira 20 bikote lehiatu dira-eta. Azkeneko jardunaldia baziari ederra-kin borobilu zuten, eta sari banaketak egin zituzten gero.

**> ESKUBALOIA**

**Pasai Donibanen  
jokatuko du Ford  
Mugarri Arrasatek**

Gure Jorge Fernandez kontra berdindu eta gero (23-23), Ford Mugarrik sailkapenean atzerago dagoen Donibane Majestic taldearen kontra jokatuko du zapatu arratsaldean. Talde hori aspaldiko ezaguna da, hora igo da-eta, Arrasateren batera, territorial mailatik kategoria berrira. Hala ere, Ford Mugarrik baino makalago hasi dute Euskadiko Liga-ko ibilbidea. Bada, Donibaneren kantxan irabaztea benetako saria izango litzateke.

**> FUTBOLA**

**Mondrako neskek  
Gasteiz Cup taldea  
hartuko dute**

BTLS talde bergararrari 3-0 irabazita, Arrasateko neskek etxearen jokatuko dute oraingo asteburuaren ere, Gastiz Cupen kontra.

Joaneko partiduan talde horrek 2-1 irabazi zuen Gasteizen, baina ordutik hona arrasatearrak onto ibili dira (Ondarroako Aurrera taldearen kontrako partidua kontuan hartu barik). Hala, Arrasatekoek etxearen gura dute indartsu izan. Batez ere Gasteiz Cup eta Ondarroako Aurreko taldeen indartsuen kontra.

bote prontuen

Idoia Muñoz > Artz zapata denda

# "Indderra eukan izen bat gure geuen: Artz"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Hillebete eta erdi dala zabaldu euen Idoiak Artz zapata dendie, Otalora kalien. Zuk Nahi eta Lontxo tabernetan zerbitzari lanetan ibilitte, badi-kijentien aurrien lan egittie ze dan. Barra atzien jarraiketan dau, berde koloreko barra atzien.

#### Nundik nora dator Artz izena?

Egixe esatiaren, Art izena gustetan jaten, baiñe oiñetako marka bat da hori eta ez zan komeni iguela jartie. Orduen pentsau neuen Artz jartie, indderra daukolako, modernue dalako eta euskerazko berba bat dalako.

#### Herriko komertziek zailtasunekin dabi-tzenien, apostue egin dozue zuek.

Bai. Egixe da herrixen gerueu eta komertzio gutxieu dauela, eta hori danon kalterako da. Zeiñek ez dau txamarra bat kapitalen bateko komertzio haundiren baten eros? Danok egin dou hori, baiñe komeni da jakittie kanpuen topetan doun edozer gauza etxien bertan be badaukogile, eta askotan kalidade, prezio edo atenziño hobia eskaiñitze.



#### Zergaitik zapata dendie?

Hainbat azterketa egin eta gero ikusi geuen herrixen zapata denda moderno baten biherra euela. Kalidate oneko kalzaue daukogu bertan, bai gizonezkuendako eta baitte emakumiendako be.

#### Ondiokan ez dou neguko eguraldirik euki; botak saltzerakuen igarri dozue hori?

Bai, igerri dou, eta ez geuk bakarrik. Neguekin zerikusixe daukien produktuek saltzen dauen denda danetan komentetan daue gauza bera, ondiokan txamarra, guardasol, bufanda eta holakuek ez duela bape saldu.

#### Zeintzuk die, gaur egunien, holako nego-zio bat zabalketako orduen eukitten dien zailtasun haundixenak?

Egixe esateko, Udalaren partetik errazta-sun haundixeak euki dou, baitte Mankomuniadien eta Diputaziñuen partetik be, hainbat dirulaguntza emuten daue-eta. Baiñe lokalaren prezuek ez die bape merkiek, eta zentro komertzial haundixeak be ez daue mesede haundirik egiten.

bere ustez



Oihan Zubizarreta

Ezabatu ez  
gaitzaten...  
ezabatu!

**N**ola gabiltza osasunez? Oraindik ere lotsati dabiltsan neguko hotzek katarro handirik eka-ri ez diguten arren, kronikoak baitira herri honetan hainbat eta hainbat burukominak. Eta ate joka joan ohi gara halakoetan medikuarengana.

Eta askotan, gure buruko-minak areagotu egiten dira osasun zerbitzuetakoek uler-tzen ez gaitztenetan. Ezen, *Osakidetzen* eskualdeko ospitale publiko berriaren *proyecto* aurkezenak ere

**"Ate joka joan  
gaitezke, baina ez  
dute gure  
burukomina  
baretuko"**

## Harremanek balorazio positiboa egin du

Joan den asteburuan egin zuen Harremanek bidezko merkataritzaz ezagutzen emateko ekimena. Horretarako, Eroski merkatal gunean daukaten dendako produktuak probatzeko eman zituzten. Harremaneko esan-tan zapataun jende asko gerturatzen produktuak probatzera eta baita erostra ere, eta ekimen berezi horren gaineko balorazio oso positiboa egin dute. Horrekin batera, eskerrak eman gura dizkiote Eroskiri, merkatal gune barruan Harremanen denda edukitzen uzteagatik.

Gogoratu gainera, denda horrek Eroskin jarraituko duela, eta negua gain gainean dagoela. Bertan izango dituzue produktu onenak, eta baita bidezkoenak ere.



ÍÑIGO TRUEBA

burukomin berrietaiko bidea baino ez digu eman. Modako hiper-merkatu horien gisakoa izango omen da, multikolorea, multiekipa-tua, multiprofesionala eta puntakoa.

Baina multi-tasun horretan non ahaztu dute gure hizkuntza? Ate joka joan gaitezke, baina ez dute gure burukomina baretuko. Gurea bestelako burukomina baita, herri honen eta bere herri-taren osasunik ez baitago euskalarik ezean. Euskal-duntzea aldarrikatzea da gure gaitz bakarra. Eta Justizian? Administrazioan? Unibertsitatean? Ezabaketa Astea deitu dute, gure herria euskalduntzeko burukomini-nari erregetza aurki diezaio-gun. Ezabatu ez gaitzaten... ezabatu!

#### Metal aroztegia eta PVC

Leihoa eta itxierak

#### Egur aroztegia

Leihoa

Ateak

Armaíru-enpotratuak

Armaíru-fronteak

Mota guztietako zoruak

Lixatua eta bernizatua

#### Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak

**AGR**  
García Rípa  
ZAHARBERRITZEAK  
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki 3 behe (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

OSORIK  
PUB

Ignazio Zuloaga 4  
ARRASATE



943 711768

ZERBITZUA &gt; KOMENIO KALEAN HASI DITUZTE LANAK

# Urtarrilean erabiliko dira lur azpiko lehen edukiontziak

Ibargarain egiten ari diren etxe berrieta eta Bideberrin ere jarriko dituzte, denborarekin

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA  
Hasi dituzte lanak Komenio kalean herriko lehen lur azpiko edukiontziak jartzeko. Lanak Gabon jaien inguruan bukatuko dituztela uste dute, eta "Errege egunetik aurrera izango ditugu erabiltzeko moduan", Joseba Aizpurua udal ingeniaiak azaldu digun moduan.

**SEI ZULO**  
Komenio kalean sei zulo egingo dituzte lur azpiko zaborrontziak jartzeko: zabor organikoa jasotzko hiru zaborrontzi, beira

jasotzeko bat, papera eta kartoia jasotzeko beste bat eta edukiontzi arinak jasotzeko azkena. Zabor organikoa jasoko duten ontziek lau metro kubikoko edukiera dute eta beste hirurek, hiruna.

**IBARGARAIN ETA BIDEBERRIN**  
Komenio kaleko lur azpiko edukiontzi horiek lehenengoak izango dira, baina ez azkenak. Alkateak ere esan izan du gehiago jarriko dituztela herrian eta Joseba Aizpurua berretsi egin du asmo hori: "Ibargarain egi-



LEHENENGOAK Apirileko osoko bilkuraren onartu zuen udalak lur azpiko edukiontziak jartzea Komenio kalean.

O.E.

ten ari diren etxe berrieta ere jarriko ditugu eta baita Bideberrin ere. Asmoa da toki gehiagotan ere jartzea, baina leku batzuetan ez da posible izango, edukiontzi horiek behar duten mekanismoagatik".

**MANKOMUNITATEAREKIN BATERA**  
Mankomunitatearekin batera egindako akordioa da proiektu hori. 60.000 euro inguruko aurrekontua dute lanek eta horren erdia pasatxo, 30.807 euro, Udalak ordainduko ditu. Mankomu-

nitateak edukiontzen kudeaketa ordainduko du eta Udalak obra zibilak egingo ditu, instalazioa eta mantentze-lanak. Zabor organikoa Beasainera eramango dute, papera Arrasatera, beira Lau-diora eta besteak Legazpira.

&gt; ETXEBIZITZAK

## Foru sozietae publikoak egingo ditu etxeak San Antonioko Kamineroen etxea izandako tokian

Etorlur Gipuzkoa Lurra SA foru sozietaek egingo ditu etxebizitzak San Antonioko Kamineroen etxea izandako tokian. Hil hau bukatu aurretik esleitu nahi dituzte lanak eta 2008ko ekainerako entregatza etxebizitzak. Guztira 38 etxebizitza egingo dituzte, bat, bi eta hiru gelakoak. 30 egingo dituzte, azalerak eskubidea utzita, 75 urtez, eta beste zortziak, gela batekoak, errentan emango dituzte. Sotoan 25 garaje egingo dituzte eta beheko solairuan lokal bat egokituko dute Udalari uzteko. Urtarrilean zabalduko dute prozesua eskaerak egiteko. Kupo bat egongo da, Bergaran bizi diren dako eta beste kupo bat Gipuzkoako gainerakoendako.

## IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztiak lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatuak

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

&gt; POLITIKA &gt; AUTODETERMINAZIOAREN ALDE

## Autodeterminazioari bultzada emateko ekitaldiak antolatu ditu ezker abertzaleak

Hitzaldia udaletxean, afaria Artatsen, zinema emanaldia gaztetxean eta ekitaldia Muniben dira antolatu dituzten ekitaldi batzuk

**O.E. > BERGARA**  
Bergarako ezker abertzaleko hainbat lagunek autodeterminazioari bultzada eman nahi diote, "zabalduzko aukera historikorari indartsu heltzeko, irtenbide faltsuei aurre egiteko eta herri borondatzeari bidea zabaltzeko". Horretarako, ekitaldiak antolatu dituzte. Hilaren 24an, Hector Soto Venezuelan Gobernuko Kultura Ministerioko kabinete zuzendariak eta Iroel Sanchez Kubako




AURKEZPENA Prentsurrekoan iragarri zituzten antolatutako ekitaldiak.

E.M.

Liburuaren Institutuko presidenteak hitzaldia egingo dute udaletxean, 20:00etan. Ondoren, afaria egingo dute Artatsen; txarrelak salgai daude dagoeneko.

26an, ekitaldia eta zinema emanaldia egingo dituzte. Bide batez, PSOE, EAJ eta Parisko Gobernua kritikatu zituzten, "egungo blokeo egoeraren arduradun" direlako.

## OGIZUN koop. elk. okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegarieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

Amagoia Aristegi > Berba bilguneko kidea

# "Normalizazio bidean, ekintza gehiago antolatu ditu Berbak abenduko lehen astebururako"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Bergarako euskaltzaleon bilgunea da Berba, eta AEK, Jardun eta EHE taldeek osatzen dute. Duela hiru urte hasi zen normalizazioaren alde lanean. Aurten ere Euskararen Eguna ospatuko du eta asteburu oso-rako ekitaldiak antolatu ditu, abendu hasierarako.

Abenduaren 3a da Euskaren Eguna. Nola ospatuko du Berbak egun hori?

Domeka da aurten abenduaren 3a, eta guk asteburu osorako antolatu ditugu ekitaldiak, egubakoitzetik domekara.

Ze ekitaldi antolatu dituzue?

Egubakoitzean, abenduaren 1ean, ikasleek egindako marrazkiak jarriko dituzte ikastetxeenako kanpoaldean. Zapatuan, herri bazkaria egingo dugu Muniben jarriko dugun karparketan. Arratsaldean aldarrikapen-kalejira egingo dugu eta gauean herriko hainbat taldek joko duten kontzertua egongo da. Domeka eguerdian, ekitaldi bat egingo dugu Muniben.

Zer-nolako ekitaldia da hori?

Hiru zutabe nagusi izango ditu: batetik, euskararen inguruaren hitz egingo dugu Berba taldeko ordezkariorik. Euskaraz bizi izateak duen balioaz mintzatzukogara, besteak beste. Kontseiluko kide bat ere etorriko da, hizkuntza politikak Euskal Herrian duen emaitzaz jardutera. Bestalde, euskararen alde lanean ibili direnak eta herriko elkartea bateko sortzaileak ere badiren herritar batzuk omendu egingo ditugu. Hirugarrenik, etorkinei ere garrantzia emango diegu. Dagoeneko euskara ikasten ari direnak txalotuko ditugu eta besteak animatuko ditugu euskara ikastera, gure hizkuntza delako eta gurekin integratzeko lagundu ahal dielako.

Herri bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko?



Euskara erabiltzeko konpromisoa eskatu du Amagoia Aristegik.

O.E.

**"Euskararen ezagutza eta erabilera bultzatu nahi dugu, euskaraz bizi izateko"**

**"Etorkinei garrantzia eman nahi diegu, batzuk badabiltza euskara ikasten"**

Asteburu honetan bertan jarriko ditugu herriko tabernetan. Egitarau osoa erabat zehazteke dugu oraindik, baina ekitaldi gehiago eta sorpresak ere egongo dira abenduko lehen asteburu horretan.

Ze balorazio egiten duzu Berbak orain arte egindako lanaz?

Duela hiru urte hasi ginenean. AEK, Jardun eta EHE taldeek sortu genuen, baina elkartea zabala da eta herritarrengana

ere heldu nahi dugu. Batzuek interesa agertu dute euskararen alde lan egiteko, eta guregana hurbildu dira.

**Herritarren eta eragileen konpromisoa eskatzeko kanpaina egin zenuten. Zer moduz?**

Kampainak epe bat zuen, eta bukatu egin zen, baina helburu horrek iraun egiten du oraindik. Berbak hiru helburu nagusi dituelako esan dezakegu: euskararen normalizazioa lortu, euskararen ezagutza eta erabilera bultzatu eta norberak konpromisoa hartzea euskaraz bizi izateko, egunerokotasunean euskara erabiltzeko.

**Helburu horien barruan sartzen dira Euskararen Egunari lotutako ekitaldiak ere?**

Bai. Normalizazioa da gure helburua, eta hori lortzeko antolatu ditugun ekintza gehiago dira horiek. Herriko eragile batzuek ere hartuko dute parte Euskararen Egunaren ospakizunean.

EUSKARA > URRAKETAK SALATZEKO

## Hizkuntza eskubideen aldeko kanpaina hasiko du EHEk

Herriko hainbat eragilerekin egongo da atxikimendua jasotzeko

O.E. > BERGARA

Bergarako EHE taldeek balorazioa egin du aurreko astean hiru gaztek izan zuten epaietaz. EHERen ustez, "argi ikusi dugu euskaldunon hizkuntza eskubideak urratuak izan direla eta sistematikoki izaten direla administrazio publikoan, eta

zehazki, justizian". Horrekin lotuta, epaieta orduan epaitegi barruan eta kanpoan bildu zirenei eskerrak eman dizkie, eta ofizialtasuna eskatu du.

Horren harira, Bergarako EHEk hizkuntza eskubideen aldeko kanpaina abiaraziko du abenduan. Bi hilabetetan zehar, atxikimendua eskatuko die herriko eragileei, urraketa salatzeko eta babesa emateko, eta manifestazioa egingo dute atxikimendu horiek kaleratzeke. Abenduaren 2an, Euskararen Egunaren bezperan, aldarrikapen-kalejira egingo dute.

> EHNA

## EHNA onartzen duten herriko komertzioen gida aurkeztuko dute zapatu goizean kultura etxeen

EHNA agiria onartzen duten herriko komertzio eta zerbitzuen gida aurkeztuko dute bihar, zapatua. Gida horretan agertzen dira EHNA onartzen duten herriko 80 komertzio inguru eta beste 36 eragile; besteak beste, alderdi politikoak, musika taldeak, emprese batzordeak eta kultura elkartea. Gida horren aurkezpena 12:00etan da, kultura etxeen

> MIZPIRUALDEKO ASTEA


## Hainbat ekitaldi egingo dituzte Mizpirualde egoitzan astelehenetik zapatura bitartean

Mizpirualde egoitzan ekitaldiz betetako astea izango dute astelehenetik aurrera. Toka txapelketa, *Munduan zehar* izenburuko diapositiba emanaldia, karta txapelketak eta musika eskolako ikasleen kontzertuak izango dituzte, besteak beste. Moises Azpiazu dantza taldekoak ere joango dira. Zapatuan, meza eta bazkaria egingo dituzte, dantzaldi, opari eta guzti.



**POL-POL**  
**Taberna**

943 76 07 78. Bergara



**GAZTELU**  
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

**disdira**

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55



AISIALDIA &gt; EKITALDIAK AZAROAN

# 'Gaztañatan' programa Osintxun

Hurrengo urteetan ere, sasoi honetan, ekitaldiak antolatu nahi dituzte auzotarrek

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

*Gaztañatan* izenburuean, hainbat kultura ekitaldi eta ospakizun antolatu dituzte Osintxun azarorako. Luis Mari Alberdi auzo alkateak zera adierazi digu: "Hil honen barruan zenbait gauza pilatzen zaizkigu: Erretiratuen Eguna ospatu genuen azaroaren 5ean, hurrengo astelehenean Animen Eguna izango da... Horri guztiorri batasuna emateko programa osatzea erabaki genuen eta asmoa da hurrengo

urteetan jarraipena ematea, gauzak ekartzea auzora".

**JON ARRETXEREN DIPOSITIBAK**

Bada, gaur, egubakoitza, Jon Arretxe idazle eta bidaiaiaren diapositiba emanaldia izango da Osintxuko eskolan, 19:00etan. Arretxek egindako lehen bidaietako baten berri jasoko dute bertaratuek: Algeria eta Mali bizikletaz zeharkatu zituen (*Tubabu* liburuan kontatzen du bidaia hura), eta orduko esperientziak



ABENTURAZALEA Jon Arretxek Afrika iparraldean bizikletaz egindako bidaia gogoratuko du gaur, egubakoitza.

GOIENKARIA

gogoratuko ditu gaur idazle basauriarrak. Bestalde, domekan, hilaren 19an, *Aupa Etxebeste!* filma emango dute, 17:00etan, eskolan bertan. Eta, esan bezala, azaroko hirugarren astelehene-

an ohikoa denez, Animen Eguna ospatuko dute. Arratsaldean, 19:00etan hasita, gaztaina erreak eta sagardoa banatuko dituzte plazan. Horren ondoren, koadri-lik afariak egingo dituzte, aspal-

diko usadioari jarraituta. Eta *Gaztañatan* programarekin amaitzeko, bereziki neska-mutikoei zuzenduta, Eriz magoaren ikuskizuna izango da azaroaren 25ean Osintxun, 17:00etan.



GOIENKARIA

## Musika bandaren kontzertua domekan

Udazken Kulturaleko programazioaren barruan, Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domekan, hilaren 19an, Udal Pilotalekuaren, 12:30ean. Aurretik kalejira egingo dute, 10:30ean. Santa Zezilia ospatzeko kontzertuan honako piezak joko dituzte: *Musica y poble* (Ferran), *El pescador de perlas* (Bizet), *Mendia eta itxasoia* (Miguel Gonzalez Bastida), *Indiana Jones* (Williams) eta *Mambo Jambo* (Prado). Ohi bezala, Santa Zeziliako kontzertuaren ostean, bazkaria egingo dute Bandakoek.

## &gt; ANTZERKIA

## Mariaren Lagundiko DBHko 3. mailako ikasleek 'Matxinada sukaldean' antzeztuko dute Azpeitian

Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketaren barruan, Bergarako Mariaren Lagundiko DBHko 3. mailako ikasleek *Matxinada sukaldean* izenburuko lana eskainiko dute martitzenean, hilaren 21ean, 15:30ean. LMHko 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako emanaldia izango da Izarraitz pilotalekuaren egingo dutena.

Euskal Antzerki Topaketaren 24. ekitaldia da aurtengoa eta ikasleek ere taula gainean duten abilezia erakusteko aukera izango dute. Mariaren Lagundiko ikasleekin batera, Azpeitiko Ikasberri eta Tolosako Hirukide ikastetxeek hartuko dute parte.

## ETXEBERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Irrintzi  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

UREDERRA  
ITURGINTZA

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

Dixula  
BOKATAK  
DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tel.: 943 76 44 95

**EDEL**  
**TAPIZ DENDA**

*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiiena*

**Alfonbrak, cortinak, kortinoiak,  
koltxak, edredoia, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



Egin zaitez harpidedun  
eta 2006an  
etxean jasoko duzu  
**Asteleheneko Goienkaria.**  
Dei bat egin eta kitto!



Harpidedun egiteko:  
**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

## Etxerako ederrena, *Zanguitun*



**deco-tex**

**ZANGUITU alfonbrak**

Telesforo Aranzadi 2 **BERGARA**

Tel.: 943 76 08 69

- Alfonbrak
- Alfonbrak neurrira
- Funda nordikoak
- Edredoiak
- Kortinak
- Toailak
- Izarak

**ZANGUITU margoak**

Irala z/g **BERGARA**

Tel.: 943 76 19 54

**IRU margoak**

Araba etorbidea 3 **ARRASATE**

Tel.: 943 79 11 71

- Parket flotatzalea\*
- Sintasola\*
- Moketak\*
- Paper pintatuak

\* Salmenta eta etxean ipintzea.

FUTBOLA &gt; LEHEN ERREGIONALA

## Partidua irabazi beharrarekin, Bergarak azken tokian dagoen Segura hartuko du Agorrosinen

Ligako lehen herena betetzean, mahoneroak sailkapeneko 11. tokian daude; laugarren partidua irabazten saiatuko dira bihar

**E.M. > BERGARA**  
Lehen erregional mailako Bergara futbol taldeak sailkapeneko azken tokian dagoen Segura hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 15:30ean. Mahoneroek bana egin zuten azken jardunaldian, Elgoibarren, eta bihar hiru puntuak beharrezkoak dituzte sailkapenean gora egiteko. Ligaren lehenbikiko herena beteko da oraingo jardunaldian (10.a), eta Neka Galanen mutilak sailkapeneko 11. tokian dira: orain arte jokatutako bederatzi partiduetan 13 puntu besterik ez dute eskuratu, hiru partidu irabazita, lau berdinduta eta bi galdua. Seguraren atzetik (hiru gol), gol gutxien egin dituen taldea da Bergara: zazpi gol. Aldi berean, gol gutxi egiten dizkiote: zortzi gol bakarrik jaso dituzte. Eta Elgoibar da gutxiago jaso dituen bakarra: bost.



HIRU PUNTU Bergarak beharrezko du zapatuan Seguri irabaztea. GOIENKARIA

Kadete mailako ohorezko taldeak ere etxeen jokatuko du, Aloña Mendiren aurka (domekan, 16:15ean) eta kadete mailako bigarren taldeak Ilintxa izango du bisitari jarraian (18:00etan).

**BIGARREN ERREGIONALA, ETXEAN**  
Bestalde, bigarren erregional mailako BTLS taldeak Mondragon B taldearen aurka jokatuko du zapatuan Ipintzan, 17:30ean.

Sailkapenaren erdialdean dira bergararrak, 5. tokian, 14 punturak. Arrasatearrak, aldiz, azkenaurreko tokian dira, 9.ak, sei punturekin. Partidu bakarra irabazi du Mondragon B taldeak. Bergararrek 1-0 galdu zuten azken jardunaldian, Soraluzen.

Zapatuko derbiaren ostean, BTLS nesken taldeak Aloña Mendiren aurka neurriku ditu indarrak, 19:30ean.

### > ESKUBALOIA Bergararen eta Aloñaren arteko derbia zapatuan

Gazte mailan, mutiletan, Bergara eta Aloña Mendi eskubaloitak taldeak aurrez aurre izango dira bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian, 17:45ean. Bi taldeendako partidu garrantzitsua da bihar-koia, oñatiarrak zein bergararrak sailkapeneko goialdean daudelako. Aurredenboraldian jokatuko partiduan oñatiarrak nagusitu ziren.

Infantil taldeak, mutiletan, Zumaiako Pulporen aurka jokatuko du zapatuan kiroldegian, 18:00etan; domekan, infantil mailako nesken txanda izango da. Zarautz taldea izango dute bisitari, 10:00etan.

## Iabegaraieta

### EMAITZAK

Teatekh-Azkenak .....	13-1
Belengua-Niu Tim.....	1-7
Irish Pub-Tiki Taka .....	8-2
Komando Piperrak-Tornilleria Deba.....	16-5
Komando Piperrak-Azkenak .....	3-0

### PARTIDUAK

Azaroak 18, zapatua, barruan	Epaileak
11:30 Altosportos-Errotagain	Tornilleria D.
12:30 Teatekh-Tornilleria Deba	Altosportos
17:00 Komando Pip.-Tiki Taka	Niu Tim
18:00 Irish Pub-Niu Tim	Tiki Taka

Atzeratuta: Belengua-Irbide

Atsedena: Azkenak

### SAILKAPENA

	P	J
1. Irish Pub .....	12	4
2. Niu Tim .....	9	4
3. Errotagain .....	9	4
4. Teatekh .....	9	3
5. Belengua .....	9	4
6. Altosportos.....	6	4
7. Komando piperrak .....	3	3
8. Irbide .....	3	4
9. Tiki Taka .....	0	3
10. Tornilleria Deba .....	0	3
11. Azkenak .....	0	4

## Martitzena da eskaerak egiteko eguna

### > FUTBOLA 1996an jaiotako gaztetxoendako entrenamendua

Bergara Kirol Elkarteak dei egiten die 1996an jaio eta fubolean jokatzeko interesa duten gaztetxoei. Bihar, zapatua, entrenamendua izango da Ipintza futbol zelaian, 10:30ean. Entrenatzeko kirol arroparekin joan behar da. Bergarako taldean jokatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Joan den astean nor-gehiagoka atzeratzen eskaera egin zuen Tornilleria Deba taldeak, baina beranduegi. Gogoratu, martitzena dela horrelako eskaerak egiteko eguna. Egia da antolatzaleek egunean jarri zitzela partiduen ordutegiak webgunean. Baina, martitzenerako Bergarako kaleetan zegoen Labegaraietako txapelketako karteldegia. Hala, ez dago aitzakiak. Komeni da webgunea ere martitzenean bertan eguneratzea, eta seguru antolatzaleek egingo dutela horren aldeko esfortza. Dena dela, nahikoa lan egiten dute. Partidua ez jokatzearen 3-0 galdu dute Tornilleria Debakoek; ez dute zigorrik jasoko, oharra eman zuten-eta.

### > KIROLDEGIA Euskadiko karate eta igeriketa txapelketak Bergaran

Datorren zapatuan, azaroaren 25ean, Euskadiko karate txapelketa jokatuko da kiroldegian, junior eta kadete mailatan. Eta abenduaren 2an eta 3an Euskadiko igeriketa txapelketa izango da Agorrosinen. Kirolgune berrian jokatzen den lehen txapelketa garrantzitsua izango da.

## Herran BERGARA

Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4 • 943 76 37 53



## Euskaraz Gehixago eta Hobeto egiten saiatzen gara



### GEHIXAGO ETA HOBETO PROGRAMA.

Berba egiterakoan euskara egokia erabiltzera bultzatzeko programa da Gehixago eta Hobeto. Programan ume eta gaztekin loturaren bat duten sektore guztiak (eskolak, denbora libreko taldeak, familia...) hartzen dira kontuan eta hainbat material gertatzen dira: eskoletan lantzeko unitate didaktikoak, gurasoentzako azalpenak eta ariketak, Apatxi aldizkaritxoa...

**EBPN**

euskaraz biziberrizko plan nagusia. Bergara

Informazio gehiago:

[www.bergara.net](http://www.bergara.net)

Euskara Zerbitzua: 943 77 91 66



BERGARAKO UDALA

## Kanpotarrak bergaran

Sulian Pan > Txinatarra  
Dendaria da

# "Bergarara etorri eta oso jende jatorrarekin egin dut topo"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Janzeraz bere adineko edozein bergarar modukoa izan daitekeen arren, aurpegierak nabarmen uzten du nongoa den Sulian Pan. Familiakoak hemen zituelako etorri zen, eta, negozioa bertan ipinata, Bergaran geratzeko asmoa duela esan digu.

Txinako hegoaldean dagoen Zhe Jiang hiritik Bergarara etorri zen Sulian Pan. "Txinatik irten eta hiru urte egin nituen lehenengo Kantabrian lanean; ondoren, Arrasaten beste urte bat, eta Bergarara etorri nintzen gero. Arrasatetik gertu zegoen, eta, negoziorako aukera baten bila hasita, hemen geratzea era-baki nuen. Gainera, ez zegoen bazar txinatarrik Bergaran; beraz, aukera ona zen", esan digu.

Familiartekoad hemen ditu eta Zubiaurre kalean bizi da. Bergarak negoziorako aukeraz gain, bizileku egokia eta jende jatorrarekin harremanak izateko aukera eman dizkiola esan digu. "Beharbada umeendako parkearen bat edo beste ipintzea ez litzateke gaizki egongo. Hala ere, paisaia oro har oso polita da".

Hemengo jendea ere ez dauka saltzeko: "Oso jende jatorrarekin egin dut topo. Bai bezeroak, eta baita eguneroko bizimodu anezgutu dudan jendea. Inoiz

joan izan naiz eurekin tabernerata zerbait hartzera ere".

### LAN HANDIA

Bazar txinatarrean dihardu lanean eta apena dauka aisialdirako denborarik: "Jende gutxi gara bi dendaren kargu; beraz, lanean ematen dugu denbora luzeen. Domekak bakarrik dauzkagu libre, eta hemen inguruan ibiltzen gara: Arrasaten, Arantza-

**"Kantabrian eta Arrasaten lan egin ostean etorri nintzen Bergarara; negoziorako aukera ikusi nuen"**

**"Tzinan fabrikan egiten nuen lan, eta askatasun handiagoa neukan; hemen apena daukat aisialdirako denborarik"**

zun... Oñati oso polita da. Hemen go jendea ezagutzen, baina denbora libre laburra daukat".

Hona etorri eta hasiera oso gogorra egin zitzaiola esan digu, hizkuntzarengatik batez ere: "Gidabaimena ateratzeko eskolatara joan nintzen, baina horretarako gaztelania ikasi behar izan nuen".

Hizkuntzaz gain, hango bizi-moduarekin alderatuta aurkitu du bestelako ezberdintasunik: "Paisaia berdeagoa da, baina eguraldia antzerakoa".

Lan kontuak ere aipatu dizkigu Sulian Panek: "Hemen lan handiagoa egiten dugu, negozioa gurea delako. Txinan fabrika batean lan egiten nuen, eta askatasun handiagoa neukan. Arratsaldeetan lagunekin arrantzara joaten nintzen; hemen lizentzia behar da. Karaokera eta zinema-ri ere joaten nintzen Txinan".


**LUZAROAN GERATZEKO ASMOA**  
Anai-arrebak hemen bizi dira, baina guraso eta Txinako lagunen falta sumatzen du. Gainontzean, hango ohiturei eusten die: "Noiz edo noiz pintxoren batzuk jaten ditugu, baina etxejan janari txinatarra".

Bergaran finkatu da Sulian Pan eta bertan denbora luzez geratzeko asmoa duela esan digu, lekua bera oso gustuko du-eta.



Bazar txinatarrean egiten du Ian Sulian Panek.

IRATI AGIRREAZALDEGI



## ETXEBIZITZAK ELGETAN

### Elgetan (Torrealdea)

**B blokea:** 16 etxebizitza eta apartamentu.

Bukaera: 2007ko apirila.

- 2 logeladun apartamentuak, garajearekin (bi leku): 215.000 €

- 3 logeladun etxebizitzak, garajearekin (bi leku): 239.000 €

**C blokea:** 24 etxebizitza eta apartamentu.

Bukaera: 2008 urtea.

**Karlos Harategia**

Santa Kurtz 5  
Tel.: 943 71 25 54  
ARETXABAleta

**Jon Díaz Harakinua**

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
ARETXABAleta

**Edozein premiatarako:**

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

**CG**  
**CONSULTORIO**  
**GINECOLOGICO**

**ARRASATE**  
Zerkaosteta 17  
943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08  
Eibar: 943 12 10 2  
Irun: 943 61 78 88

Policlinica Gipuzkoa



EGUTEGIA Amaia Otxoa aretxabaletarrak elur-erraketei ateratako argazki orijinala hautatu dute Murrukixoko kideek datorren urteko egutegia egiteko.

AMAIA OTXOA

KIROLA > MENDI ASTEA ASTELEHENETIK EGUNERA

## Lau berbaldi egingo ditu Murrukixok mendi astean

Antolatutako lau  
berbaldietatik hiru  
aretxabaletarrek  
egingo dituzte

Berbaldi guztiak  
Kurtzebarri eskolako  
aretoan izango dira,  
19:00etan

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta  
Murrukixo Mendizale Elkartea  
Mendi Astea egingo du astelehenen  
hasi eta egunera bitartean. Lau berbaldi  
eskainiko dizkiete herriarei tarte horretan.

ARETXABALETAREN ESKUTIK  
Lau berbaldi antolatu dituzte  
astelehenetik egunera bitarteko,  
eta lautik hiru aretxabaletarrek  
egingo dituzte: "Konturatu gara herrikoek aurkezten  
dituztenean berbaldi edo emanaldiak  
jende gehiago hurreratzent  
dela, koadrilakoak direlako edo  
ezagunak, eta horregatik herri  
tarrei eman gura izan diegu berba",  
azaldu digu Iñaki San Miguel

Murrukixoko presidenteak. "Gainera,  
mendiko kontuak bakarrik  
ez dira izango, edonork egin  
ditzakeen trekking irteeren eta bizi  
kletan egindako bidaien berri

ere emango digute", gaineratu du.  
Egueneko berbaldia Loramendi  
EEk zeukan antolatuta, eta  
Murrukixoko lagunek apro  
txatzea pentsatu zuten, beste bat

BERBALDIAK

### Lau berbaldi egingo dituzte diapositiben laguntzarekin:

Diapositiben laguntzarekin eskainiko dituzte berbal  
diok eta herriaren galderai erantzuteko gert  
etorriko dira. Guztiak Kurtzebarri eskolako aretoan  
egingo dituzte, 19:00etan, baita Loramendi EE  
antolatutakoa ere.  
- Azaroak 20, astelehena:  
G2: Gasherbrum II Mikel Sasiainen eskutik.  
- Azaroak 21, martitzena:

Delhitik Kathmandura bizikletan Asier Atxaren  
eskutik.  
- Azaroak 22, eguztena:  
Trekinga Lantang bailaran (Nepal) Luis Mari Urkia,  
Tasito-ren eskutik.  
- Azaroak 23, eguna:  
Pirinio eta Alpeetan bizikletan Aitor Arotzenaren  
eskutik, Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta.

postalak  
egutegiak  
errifak  
txartelak  
loteria



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

antolatu barik. Berbaldi guztiak Kurtzebarri eskolako aretoan izango dira, 19:00etan. Eguenean bukatuko dute Mendi Astea, baina aurrerago irteeraren bat egiteko asmoa daukate: "Orduan bazkaritzoren bat antolatuko dugu", aurreratu zigun.

### ELUR-ERRAKETAK

Gertu ditu dagoeneko Murrukixok datorren urteko egutegiak. Lehiaketa antolatu zuen egutegi-rako argazkia hautatzeko eta 15 lagunek -gehienak aretxabaletarrak- eroan zituzten euren lanak. "Benetan argazki politak zeuden, gehienak paisaiak, baina orijinala iruditu zitzagun elurretan ibiltzeko erraketak agertzen zena, eta, gainera, Murrukixorenak dira elur-erraketok, bertakoak", azaldu digu San Migelek. Hala, Amaia Otxoa Lazkano aretxabaletarrak jaso ditu sariaren 150 euroak. Laster jasoko dute egutegia etxeen baziideek.

### BAZKIDE TXARTELA BERRITU

Murrukixoko bazkideek gutuna jasoko dute laster etxeen. Izan ere, oraintxe da bazkide txartelak berritzeko garaia. Hala, datorren urteko federatze aukerak eskainiko dizkiete bazkideei prezioen berri emanaz, eta Murrukixoren datu basea eguneratzeko datuak frogatzen ariketako diente. Kuota pasatu aurretik ordaindu behar duten kopuruaren berri emango dute: 17 urte artekoek 3,60 euro eta gainerakoek 7,25 euro ordaindu beharko dute Murrukixoko bazkidetza.

Hori horrela, herritarren baten batek federatze gura izanez gero edo aldaketaren bat egin txartelean abenduaren 15a baino lehen egin behar du. Horretarako Murrukixoko egoitzatik pasatu martitzetan, 19:00etatik 20:00etara, edo murrukixo@euskarria.org helbidera mezua bida. Berririk izan ezean ontzat emango dituzte dauzkaten datuak.

ELKARTRUKEA &gt; HOLANDAKO ESKOLAREKIN

# Holandako Merlet eskolako 29 ikasle egon dira asteon Kurtzebarri eskolan

Helburu asko izan ditu elkartrukeak, tartean ikasle, irakasle eta gurasoek lankidetzen jardutea eta mintegien arteko elkarlana erraztea

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABAleta

Joan den zapatuan iritsi ziren gurera Holandako Merlet eskola-ko 29 ikasle eta bi irakasle. Herriaz gain, Bilbo, Donostia eta Gasteiz ere bisitatu dituzte astean barrena, eta gaur itzuli dira etxera.

MARTXOA HOLANDARA

Hilabete askoko lanaren emaitza izan da holandarren egonaldia. 2005ean hasi ziren elkartrukera-

ko kide bila, eta hainbat herrialdetako eskolekin harremanetan jarri eta gero, Holandarekin elkar-tzea erabaki zuten Kurtzebarri eskolako arduradunek. Lehenengo aldiz egin dute halako ekimen bat, eta ikasle, irakasle zein gurasoek ilusio handiarekin gertatu dute: "Gure eskolako oinarriak sendotzea eta bizitzarako heztea izango litzateke helburua, eta horren barruan asko



HOLANDARRAK Joan den zapatuan iritsi eta aste guztia egin dute gure artean Merlet eskolako ikasleek.

KURTZEBAARI ESKOLA

aipa ditzakegu: bizikidetza bultzatzea, mintegien arteko elkarlana erraztea, eta, zela ez, ingel esez komunikatzea", diote arduradunek. DBHko 4. mailako

ikasleen etxeetan egon dira Holandatik etorritakoak, eta seguru adiskidetasun sendoa sortu dela elkarren artean. Orain, martxora bitartean itxaron

beharko dute, orduan-txe joango dira-eta aretxabaletarrak Holandarantz. Bien bitartean, posta elektroniko bidez eutsiko diote hartzemanari.

UDALA &gt; URTEKO AZKEN OHIKO OSOKO BILKURA

## Topagunearen mozioa onartu zuten

Elkarren artean dinamizatzea proposatu zuen Sarasuak, eta alkatea ados azaldu zen

Maiatzean Kurtzebarri eskolako ikasleek aurkeztutako energiaren gaineko txostenari erantzuna emateko eskatu zion Aralarrek

M.A. > ARETXABAleta  
*Eskubideak bermatzeko, konponbidea sustatzeko izeneko mozioa aurkezu zuen Topaguneak urteko azken ohiko osoko bilkuran. Presoen egoera lazarriaren berri eman zieten moziaren bidez udalbatzarreko kideei, eta lau eskaera egin: bat egitea *Euskal presoak Euskal Herrira* oihuarekin; euskaldunak presoen egoera larriaz jabeareztea eta aktiboa izan daitzela eskatzea; Etxerat-ek hileko*

*azken egubakoitzetan egiten dituen ekintzetan parte hartzea eta *Euskal presoak Euskal Herrira* ikurra zabaltzea, udaletxeko balkoitik hasita. Aralarko Sarasuaren esanetan, Topaguneak eta Udalak elkarrekin dinamizatu beharko lituzkete ekintzok, eta alkatea ados azaldu zen.*

**TAXIEN TARIFA %4,5 IGO DUTE**  
Ogasuneko gaia ere eztabaidatu zituzten astelehenean; kreditu



TOPAGUNEA Euskal presoen aldeko aldarrikapena egin zuten.

M.A.

aldaketa bat, esaterako. Ordenagailu bat erosia eta beste hainbat ekintzatarako dirua, 86.850 euro, lurrik erosteko partidatik hartu zituzten, eta Aralar aurka azaldu zen, lehen ere berak proposatuta handitu zutelako partida hori. Bestalde, taxien tarifa %4,5 igotzea

onartu zuten, eta bukatzen, Aralarko Joxe Anjel Antxiak eskaera egin zuen: maiatzean Kurtzebarri eskolako ikasleek energiaren gaineko txostenia aurkeztu zuten, Eskola Agenda barruan; Udala erantzuteko geratu zenez, lehenbailehen egiteko.

> OSASUNA  
**Odol-ateratzeak  
azaroaren 20an eta  
27an osasun etxeen**

Odola eman gura duenak hilaren 20an eta 27an -asteleheña biak- izango du aukera. Arabako Odol Emaileen Elkarteko kideak hurreratuko dira osasun etxera, eta 16:15etik 20:00etara bitartean egongo dira, hurreratzen den guztiari argibideak eman eta odola ateratzeko.

> KANPAINA  
**Aretxarte elkartea  
2.500 euro emango  
ditu saritan**

Aretxabaletako merkatarien elkartea, Aretxarte, udazkeneko kanpaina egiten dabil azken bi asteotan. Herriko dendetan erosiz gero txartela bete behar dute erosleek, eta zozketa egingo dute kanpaina bukaeran. 2.500 euro emango dituzte saritan.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta

**P**IENSO  
**S**UNZUE s.a.

**FELIX PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABAleta

Tel.943 77 00 33/79 42 56

**BENGOA  
URDAITEGIA**

Bertako okelak  
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta  
Tel.: **943 79 19 79**

EUSKARA

## Berbaldia, Barriketan egitasmoak antolatuta

'Euskaraz hitz egiteko beldurra nola kendu' esango du Jurgen Wolfek

M.A. > ARETXABAleta  
Udalak abian jarritako Barriketan egitasmoa geratu barik dabil lanean, eta berbaldia antolatu dute datoren asterako. Tandem fundazioko Jurgen Wolf irakaslea gonbidatu dute, eta *Euskaraz hitz egiteko beldurra nola kendu* gaiaren inguru jardungo du. Azaroaren 22an, eguztena, izango da berbaldia, 18:00etan, udaleteko ganbaran. "Herritar askok ere gustura entzungo duzu elakoan gonbidapena herrira zabaltzea erabaki dugu", esan digu Barriketan egitasmo moko koordinatzaile Gurutze Larrinagak.

ORDUBETEZ EUSKARAZ

Urrian hasi ziren Barriketan lantaldeak biltzen, eta astean ordubetez euskaraz berba egiteko elkartzen dira zazpi talde. Euskaldun berriei edo euskaraz berba egiteko ohi turarik ez dutenei horretarako guneak eskaintza du helburu egitasmoak, eta norbait interesatuta egonez gero Udaleko Euskara Sailera edo euskaldegira jo besterik ez du argibide eske.



Jurgen Wolf irakaslea.

TANDEM



PARPAILAK Egunero egiten ditu parpailak, domeketan izan ezik, eta senide eta lagunei opari egiten dizkie gero.

M.A.

ZALETASUNA > PARPAILAK EGITEA

# Parpaila zoragarriak egiten ditu Aurora Perezek 98 urterekin

Iturrealde farmaziako Valentin Kintanaren ama da, eta joan den zapatuau bete zituen 98 urte; hala ere, bakarrik bizi da Donostian

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Zapatuan, azaroak 11, bete zituen Aurora Perezek 98 urte. Donostian bizi da, baina senideekin ospatzeko etorri zen gurera; izan ere, Iturrealde farmaziako Valentin Kintanaren ama da.

DONOSTIAN 74 URTE

Egun gutxi batzuk eman ditu semeareen etxearen, baina bere etxera, Donostiara, joateko gogoz zegoen, nahiz eta bakarrik bizi. Nafarroako Zuñiga herrian jaio

zen, eta ezkondu ostean, 1932an, Donostiara joan zen bizi izatera. Bertan harrapatu zuen gerrak, eta 1948an alargun geratu zen. Gabonetarako etorriko da berriro Aretxabaletara, eta orduan hiru hilabete inguru egingo ditu gure artean.

PARPAILAK EGITEKO ZALETASUNA

Osasuna du lagun eta pilula bakra hartzen du, tentsioarentzat. Paseatzen ateratzen da, norbaitek lagun eginda, baina gustura-

go egoten da etxean: "Nire adinean jausiz gero akabo, eta inguru guztieie lana emango nieke", azaldu digu, arduratsu. Gainera, ez da aspertzen etxeen egonda ere, parpailak egiteko zaletasuna dauka, eta arratsaldea horretan ematen du. "Orain dela hamar urte inguru hasi nintzen egiten, eta orain begiak itxita ere asmatuko nuke. Egunero egiten ditut, domeketan izan ezik", diosku. Eta egindakoak senide eta lagunei opari egiten dizkie. Pazientzia eta astia besterik ez dela behar dio, baina gutxik egingo dituzte Auroraren parekoak, benetan dotoreak dira-eta. Geru dago, gainera, Gabonetan datorrenan egiten erakusteko.

bere ustez



Aitor Agiriano

## Heziketa benetan garestia

H ur hurreko arazo bilakatzen ari zaizkigu azkenaldion ikasle, irakasle eta gurasoen arteko "liskarrak". Atzerriko arazoa zirelakoan lasai asko bageunden ere, hortxe ditugu etxeko atarian. Harrigarria dirudi ikasleek, eta are gehiago gurasoek, irakaslea "erasotza"; harrigarria garai bateko ikasleontzat. Baino, komunikabideak testigu halaxe da, zoritzarrez. Horrenbestez, irakaskuntzaren ahuldade eta gabeziak azaleratzen ari diren heine-

"Atzera bueltarik ez duen indibidualismoaren ondorioa dela esango nuke nik"

an, heziketaren oreka kolokan jartzeko zorian dago. Giroa erabat korapilatuko da. Irakasle bati baino gehiagorri loa berandutuko zitzaison honez gero.

Azken finean gizartea berak hauspotutako ondorio besterik ez dela esango nuke nik. Atzera bueltarik ez duen indibidualismoaren ondorioa. Ez naiz ausartuko esa-tera arazoa ikaslea, irakaslea, edota etxeko heziketa denik. Hori bai, tokian tokiko arazoa lehenbailehen aztertu beharko litzateke neurriak beranduegi baino lehen har daitezzen. Ur sakonegiak niretzako, aukeran. Freudek zioen bezala, "norbera baita esaten ez duenaren jabe eta esaten duenaren erantzule". Hanka sartzea erraza da, bai horixe.

# ZARAIA taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 88 95




KULTURA ONDAREA > LABEAREN ONDOKO ETXABEAK ESKURATUKO DITU UDALAK

# Zubiate labean zeramikaren gaineko erakusketa jartzeko beste pauso bat

Ondare historikoa den Zubiate labaren alboko etxabea erosteko dirulaguntza jaso du Udalak; erakusketa iraunkorra egin gura dute

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Eusko Jaurlaritzak diru partida bereziak ematen ditu ondare historikoan alboko etxabe edo lurzoruak erosten laguntzeko. Hala, Jaurlaritzak 250.000 euroko dirulaguntza eman dio Udalari, Zubiate labaren alboko etxabe bat erosten laguntzeko.

Orain dela urte batzuk Promociones Gaztañadui enpresa hainbat etxebizitza egiten hasi zenean konturatuz ziren lurzoru horretan Zubiate labea zegoela. Hala, Jaurlaritzak labe horri ondare historikoaren izendapena egin zion. Hortaz, etxebizitzak



ETXEBIZITZEN AZPIAN Zubiate labea 40 etxebizitza eta beste horrenbeste garaje eta etxabe ditu inguruan. IKER BARANDIARAN

egiten jarraitu zuten, labea bere horretan utzita.

Horrekin lotuta, Udalak Euskal Herriko antzinako zeramika

bilduma garrantzitsu bat erosizuen. Horren harira, Udalaren asmoa da zeramika bilduma eta Zubiate labea bat egitea. Are

gehiago, helburua litzateke zera mikaren gaineko erakusketa iraunkorra eta osatua egitea. Eta hori bideratzeko hainbat pauso

ematen dabil Udaleko Ondare eta Turismo Saila.

**ERA KUSKETARENDAKO LEKUA**  
Jaurlaritzak eman dion dirulaguntzari esker, labaren alboko etxabe bat erosi ahal izango dute. Horrez gain, aurretik, Udalak Promociones Gaztañadui enpresa emandako lurzorua zati baten truke, hark beste etxabe bat eman beharko dio. Eta bi etxabeak batuta, Udalak lekua izango luke labaren inguruan erakusketa areto egokia egiteko.

**LABEA BERRESKURATZEN HASI**  
Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu du Udalari dirulaguntza bat ematea labea berreskutzeko. Udalak oraindik ez du laguntza hori jaso, baina Ondare eta Turismo Sailak asmoa du labea berreskutzeko lanekin berehala hasteko, lagunzia noiz helduko den itxaron barik. Horrek lotuta, zeramika erakusketa osatzeko pieza gehiago eskuratzeko ahalegintan dabilta.

> 'DEBARRI'  
**Herritarrek alkateari galderak egiteko aukera izango dute**

Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoa GOITBKO Debarri saioan izango da eguztenean, hilaren 22an. Alberto Gorritibreak gidatutako saioa 21:15ean hasiko da.


Bada, eskoriatzarrek alkateari galderak egiteko eta esku hartzeko aukera izango dute emisio eguna ren aurretik. Horretarako, bi bide izango dituzte: bata, 09:00etik 18:00etara bitartean 943-71 23 96 telefono zenbakira deitzea; eta bestea, goiena.net webguneko Eskoriatzaren gaineko eztabai- eta galderak egitea.

**KIROLA > KIROL JARDUERAK UDAL KIROLDEGIAN**

## Hilaren 27tik aurrera bederatzi kirol jarduera ematen hasiko dira kiroldegian

Aretxabaletako Goienasport enpresak hartu du kirol jarduera horren ardura

Spinninga, batuca, pilatesa, multifitnessa, tonifikazioa eta beste emango dituzte



HERRI GEHIAGOTAN Aretxabaletako kiroldegian pareko prezioak izango dituzte kirol jardueren matrikulak.

MIRARI ALTUBE

**AZKOAGA**

**ESTANKOA**

943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura

**I.B. > ESKORIATZA**  
Hemendik aurrera, Aretxabaletako Goienasport enpresa arduratuko da Udal Kiroldegiko kirol jarduerez. Hain zuzen, enpresa horrek Aretxabaletako kiroldegiko eskaintza darama, eta Arrasaten eta Aramaion hainbat zerbitzu ematen ditu.

Goienasport enpresatik jakinarazi digute azaroaren 27tik aurrera bederatzi kirol jarduera abian jarriko dituztela.

**GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ**  
Sasoian egoteko gimnasia goizez eta arratsaldez emango dute aste-

lehen, eguzten eta egubakoitzen; astelehen eta eguztenetan tonifikazioa emango dute goizez eta arratsaldez; pilatesa goizez emango dute astelehen eta eguztenetan eta arratsaldez martitzen eta eguenetan; aerobika egubakoi-

tzetan izan ezik beste egun guztietan egin ahal izango da arratsaldeetan; spinninga egunero emango dute arratsaldez, eta egun batzuetan goizez ere bai; bizkarra lantzeko jarduerak astelehen eta eguzten arratsaldean egin-

go dituzte; multifitnessa, berriz, eguenetan izan ezik beste egun guztietan egingo dute arratsaldez; eta batuca martitzen, egun edo egubakoitzen arratsaldez.

Interesatuek kiroldegira jo beharko dute.

BERBALDIAK

## Mitologia eta espazioa, berbagai

Bi ezaguetatik ikasteko aukera emango dute Ibarraundin

I.B.> ESKORIATZA

Ibarraundi museoko arduradunek hainbat berbaldi antolatu dituzte datorren asterako. Euskal mitologiarren eta espazioaren gainekeko ikerkuntzak kontrajarri egingo dituzte, edo, hobe esanda, bietatik ikasteko aukera emango dute.

Eguenean, hilaren 23an, Iruñeko Planetarioko zuzendariak, Javier Armentiak, *Todo lo que querías saber sobre el cielo pero temías preguntar* berbaldia egingo du. 19:00etan izango da hori.

EUSKAL MITOLOGIA

Bestalde, egubakoitzean, hilaren 24an, Mitologian doktore eta antropologo Juan Ignacio Artzuagak euskal mitologia izango du berbagai. 19:00etan egingo dute.

> KULTURA  
**Pirritx eta Porrotxen ikuskizunerako sarrerak agortuta**

Kultura Sailak aditzera eman du Pirritx eta Porrotx pailazoek hilaren 25ean egin behar duten ikuskizunerako sarreko guztiak agortuta daudela. Udalak ahalegina egin zuen bigarren ikuskizun bat egiteko, baina ezinezkoa izan zen. Sail horretatik jakinarazi dute datorren urterako konponbideren bat aurkitzen sariautuko direla.

Bestalde, abenduaren 1ean Anje Duhaldek egingo duen kontzerturako sarrerak salgai daude Aretxabaletan (Arlutz), Arrasaten (Elkar) eta Eskoriatzan (kiroldegia eta Dorleta denda).

AISIALDIA > URETAKO PARKEA

# Domekan uretako parkea jarriko dute kiroldegiko igerilekuau

16:00etatik 20:00etara bitartean adinaren araberako lau talde egingo dituzte

Kiroldegiko bazkideek euro eta erdi ordaindu beharko dute; gainerakoek, 3 euro

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Etzi, domeka, uretako parkea jarriko dute Udal Kiroldegiko igerilekuau. Eskoriatzarrek oso gustuko dute, eta aspaldian zerbitzu hori noiz jarri irrikan zeuden lagun asko. Horrenbestez, domekan ume, gazte eta helduek jolastu ahal izango dira parke horretan.

Adin tarte desberdinakoen artean tirabirak egon ez daitezten eta, batez ere, herritar txikienek ere jolasteko aukera izan dezaten, erabiltzaileak hainbat ordu-tegi tartetan banatuko dituzte. Hain zuzen ere, 8 eta 11 urte bitartekoek 16:00etatik 17:00etara izango dute horretarako aukera;

1 eta 4 urte bitartekoek, heldu batek lagunduta, berriz, 17:00etatik 18:00etara bitartean izango dute txanda; 5 eta 7 urte bitartekoek, horiek ere heldu batek lagunduta, 18:00etatik 19:00etara bitartean sartu ahal izango dira uretako parkera; eta, azkenik, 12 urtetik gorakoak 19:00etatik 20:00etara bitartean jolastu ahal izango dira. Hala, beste urte batzuetan izandako arazoak eza-batuko dituzte.

Egun horretan hainbat puzgarri jarriko dituzte igerilekuau. Eta, hain zuzen ere, kiroldegiko bazkideek euro eta erdi ordaindu beharko dute; eta bazkide ez direnek, berriz, hiru euro.

Bestalde, Udala hasi da Gabonetako parkea antolatzen. Abenduaren 27an, 28an eta 29an egindo dute, Udal Kiroldegian, eta ume eta gaztetxoendako joko ugari jarriko dituzte.

GABONETARAKO BEGIRALEAK

Gabonetako parkeak oso harre-ra ona izaten du eta jende asko joaten da hara. Horrekin lotuta, Udalak begiraleak behar ditu egun horietan lan egiteko.

Begirale izan gura dutenek izena emateko epea datorren egubakoitzean, hilaren 24an, itxiko dute. Interesatuek curriculuma kultura etxera eraman beharko dute aipatutako data aurretik.

Udaleko Kultura Saileko arduradunek jakinarazi digute begiraleak aukeratzerakoan honako zehaztasunak kontuan hartuko dituztela: begirale agiria edukitzea, zer ikasketa egin daitu, halako lanetan esperientziaduna izatea, gaiarekin zerikusia duten ikastaroak egin izana eta bizitokia Eskoriatza edo gertuko herri baten izatea, hain zuzen ere.

## Barrundia eta Eskoriatza arteko mugarriak lekuz aldatu dituzte


Luzea izan da auzia, baina azkenean lortu dute konponbidea. Herenegun, eguztena, Barrundia eta Eskoriatza arteko zortzi mugari (Mugar Luze inguruau) lekuz aldatu zituzten. Horren aurretik, martitzenean, eztabaidea txiki baten ostean, bi udaletako ordezkarriak adostasunera heldu ziren. Azken neurketa-ren gaineko eztabaidea muina metro erdiko aldea zen, eta azkenean Eskoriatzak Barrundiari eman zion arrazoa, "behingoz mugarriak finka daitezen", azaldu zigun Eskoriatzako alkateak Juan Carlos Bengoak.

Neurketa horretan bi udaletako eta Jaurritzako ordezkariek esku hartu zuten.



JUAN LUIS MERINO

  
**bedardenda**  
Tel.: 943 71 43 27  
ESKORIATZA



**FAGOR** 

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7

20540 Eskoriatza

Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00

Faxa: +34 943 71 90 01

 MONDRAGON  
UNIVERSITY OF MONDRAGON

GAZTE BATZARRA > HAINBAT EKITALDI ANTOLATU DITUZTE DATOZEN ASTEOTARAKO

# Interruptus taldea eta afari parte-hartzailea AGaren eskutik

Gaur, egubakoitza, Interruptus taldearen 'Interrup-tour' emanaldia, 23:00etan

Abenduaren 1erako afari parte-hartzailea antolatu dute gazte batzarreko kideek

**AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA**  
Bizi-bizi dabil Antzuolako Gazte Asanblada; izan ere, datozen asteotarako ekitaldi bat baino gehiago antolatu du. Behin-behineko gaztetxeen izango dira ekitaldi horiek.

Gaur bertan, egubakoitza, Interruptus taldearen emanaldia izango dugu, gaueko hamaitan. Abenduaren 1erako, berriz, afari berezia antolatu dute.

## ANTZERKIA ETA MUSIKA

*Interrup-tour* emanaldia egingo digu Interruptus taldeak. Musika eta antzerkia uztartzen dituzte ikuskizun horretan. Taldeka batek, guitarra espanola-ren laguntzarekin, abestu egingo du. Beste kide batek, berriz, abesti eta abesti artean, bakkalizketa eskainiko dizkigu. Kontzientziaren paperean sartzen da aktorea, eta, abestiekin lotuta, bere kontzientziak esa-

ten dionari ahotsa ematen dio aktoreak. Horrela, ezohiko emanaldia egiten du Pasai Antxoko Interruptus taldeak.

Gazte batzarreko kideek azaldu digutenez, antzerki taldeak ez die batere kobraztuko, baina sarrera 3 euro ordaindu behar ko da. Batutako diru guztia taldekeei emango diete.

## AFARI PARTE HARTZAILEA

Esan bezala, abenduaren 1erako, egubakoitza, afaria antolatu dute. Behin-behineko gaztetxeen izango da hori ere.

Afaria ez da batere ohikoa izango: afari parte hartzailea deitu diote antolatzaleek, eta izenak berak dioen moduan, parte hartzeko prest egon behar da afari-joateko.

Afarira joateko baldintza bakarra bete behar dute gazteek: parte hartza; hau da, antzerki, musika edo bestelako emanaldi bat prestatu eta eskaini behar da afalostean. Bakarka zein taldeka eskain daiteke. Horrela, gazteen parte hartza bultzatu nahi dute.

Azaroaren 26a izango da afarirako izena emateko azkeneko eguna, gaztetxeen bertan. 12 euro ordaindu, eta emanaldia egingo dutenen izenak eta taldearen ize-na eman beharko dira txartela jasotzeraoan.

Azkenik, aipatzekoa da beste ekitaldi batzuk prestatzen ere badihardutela gazte batzarreko-ek. Urtarrilerako, esaterako, Sahararen gaineko zerbaitek antolatzeko asmoa dute.

> KULTURA  
**Ugareren gaineko ekitaldi sorta abendura atzeratuta**

Aurreko asteko GOIENKARIAn iragarri genizuen Alfonso Ugarte musikari antzuolarra ezagutarazteko ekitaldi sorta azaroaren 24an aurkeztutu zutela, baina bertain behera geratu da hori.

Udaleko arduradunek jakinarazi digute abendura atzeratu dutela ekitaldien aurkezpena. Kontua da Eusko Ikaskuntzako, Udalbideko eta Lizarrako Udaleko arduradunek ezin izango dutela etorri abendura arte, eta azkeneko momentuan eman zuten horren abisua.

> ERRETIRATUA  
**Antzerkia eta gaztaina erre jana datorren egunean**

Antzuolako erretiratuen elkarreak bi ekitaldi antolatu ditu datorren eguenerako, hilak 23.

Batetik, 18:00etan, Oihulari Klown antzerki taldearen emanaldia izango dute, Olaran etxeen. Umorezko bakkalizketa eskainiko du talde horretako aktore batek.

Bestalde, 19:00etan, urtero bezala, gaztaina erre jana izango dute parrokiako loka-lean. Ondoren, Euskadiko Kutxak emandako sariak zozkatuko dituzte.

## KALE AGERRALDIA

# Talleres Antzuolako langileen protesta

**AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA**  
Talleres Antzuola enpresako langileek protesta ekitaldia antolatu dute astelehenerako, hilak 20, kaleratze bat dela eta. Zurrategin egingo dute kale agerraldia, 19:00etan.

Lurdes Badiola langilea kaleratu dute oraingo astean; enpresan azaldu diotenez, "berarengan duten konfiantza faltagatik". 46 urte ditu eta 28 zeramatzen enpresan. Lau hilabeteren barruan kaleratzen duten bigarren langilea da. Uztailean Rosarito Yarza kaleratu zuten; 52 urte ditu eta 37 egin zituen enpresan.

Langileek salatu dute "oso era txarrean" kaleratu dituztela langileok.

> UMEAK  
**Txotxongilo emanaldia bihar, liburutegian**

Antzezkizuna taldearen *Biru-sak erausoan!* txotxongilo emanaldia izango dugu bihar, zapataua, 18:00etan, Udal Liburutegian. Sarrera 1,5 euro izango da. Bost eta hamabi urteko umeei zuzenduta dago antzerki emanaldia.

Ibilbide luzeko taldea da bihar gurera etorriko dena: 1980. urtean sortu zuten Antzezkizuna Getxon. 25 urte baino gehiago darama txotxongiloen munduan.



## Fruta denda berria zabaldu dute Buztinzurin

Aixa izenarekin, denda berria zabaldu dute herrian: fruta denda, hain zuzen ere. Antzuolako lehen fruta denda da, bakarra, nahiz eta beste denda batzuetan ere badagoen fruta erosteko aukera. Urretxuko familia batek zabaldu du; Ricardo Perez da nagusia, baina, Sergio Mora gaztea da bertan aurkituko dugun saltzailea.

Buztinzuri kalean dago eta aurreko astean, martitzenean, egin zuten inaugurazio ekitaldia.

**ABAD**  
DEKORAZIOA  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTTUAK

INDUSTRI MANTENIMENDUA

*Jose  
Gomez  
Abad*

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

**LARREA**  
TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**EGAÑA**  
Era guztiako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

bere ustez



Eduardo Zubiaurre

## Lurraldetasuna eta gure nortasuna

Azken boladan, hainbat enpresa arrakastatsuen kasuak ezagutuz, honelakoak entzutea egokitu zait: "lehiakor izateko balore katearen prozesu bakoitzak lurralde ezberdinietan kokatu beharra dago". Edota, "globalizazioari aurre egiteko enpresa bera harreman sare bat bezala ulerzeak abantailak dakartza".

Gizakion jarduera ekonomikoaren bilakaera bide horietatik badoa, iruditzen zait etorkizunean guztiz arrunta egingo zaigula euskaldunok Txinan, Amerike-

**"Etorkizunean arrunta egingo zaigu euskaldunok Txinan, Ameriketan edo Dubain lan egitea"**

tan, edo Dubain lan egitea eta bizieta. Eta baita ere, gure etxeen amerikar, txinatar edo arabiar auzotarrak izatea.

Susmoa daukat datozi-gun garai berrieta tokien eta nortasunaren arteko zerikusia askoz txikiagoa izango dela. Gogoratzen dudanez historian zehar horrelakoak geratu izan dira; esate baterako, erromatar nortasuna zuzenbidean oinarritutako hirirtasunak ematen zuenean, edo judutar izatea erlijioaren bitarte bakarrik uler-tu zitekeenean.

Gauza izango al gara euskaldunok gure nortasuna ("euskal" herria, enpresa, produktu, marka, eta abar) lurraldeari atxiki gabe ulertzeko eta garatzeko?

**((112))  
SOS DEIAK**

UDALA > ORDENANTZAK ETA MAILEGUA

# Ordenantzen aldaketa guztiak onartu dituzte

Aralarren esanetan, "EAJ-EAk kale egin du gestio ekonomikoan eta hurrengo urteetarako Udala hipotekatua uzteko arriskua dago"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Azaroaren 9an, eguna, udalbatzarra izan zen. 2007rako zerga eta tasen igoerak ziren onartzekoak, baina batzuk bakarrik onartu zituzten; Aralarkoen baileta jaso zutenak. EAJ-EAk hiru zinegotzi baino ez zeuden udalbatzarrean, eta gehiengo osoa beharrezko zen igoerak onartzeko. Hori zela-eta, bi puntu astelehenean, azaroaren 13an, eztabaidatzeko geratu ziren: ondasun higiezinen gainekoak eta zabor bilketari dagozkionak.

Lehenengo kasuan, Aralarrek ez zuen igoera onartu, etxebizitza hutsei %50eko errekargua mantentzea eskatzen duelako; EAJ-EAk, ordea, kentzea.

Bigarrenean, Mankomunitateak jarritako zaborren zergaren igoera %4,26 izatea ere ez zuen onartu Aralarrek, ez baitaude zaborrak erraustearekin ados.

Bada, asteleheneko udalbatzarrean onartu egin ziren bi aldaketak, EAJ-EAk lau zinegotzieng eldeko botoarekin eta Aralarkoen aukakoekin. Aralarkoek esan zuten ez dutela "gehiengo eta gutxiengoen jokoa ulertzen".

MAILEGUA ESKATZEAREN AURKA

Hilaren 9ko batzarrean onartu zen 188.605 euroko mailegua eskatzea. Aralarkoek kontra bozkatu zuten eta EAJ-EAk hiruk, alde. Eta alkatearen kalitatezko botoarekin onartu zen proposamena.

Aralarrek eezeko bota eman ostean adierazi du: "EAJ-EAk kale egin du gestio ekonomikoan eta hurrengo urteetarako Udala hipotekatua uzteko arriskua dago. Legealdirako espero zituen diru sarrerak ez dira bete eta ondorioak ageriak dira: maiatzean eskatutako 350.000 euroak agortu dira; onartutako inbertsioak egin gabe daude: aparkaleku, baserrietako postontziak eta seinaleak, udal-tea berritzeko proiektua...; eta 188.605 euroko kreditua eskatu da zorrari aurre egiteko".

Alkateak esan digu mailegua eskatzea onartu dutela horren beharra ikusi dutelako, eta ez dutela oraingoz beste ezer esateko gai horri buruz.

> AISIALDIA  
**Aste bukaeretan gaztelekua zabalik egongo da**

Barikitik domekara bitartean, 16:30etik 20:30etara, zabalik egongo da aste bukaera guztietan gaztelekua. Eskola zaharrera aldatu dute aurten. Izena emateko Kutxan sartu behar da dirua, eta agiria gazteleku arduradunari eman gero. Tarifik 30 eta 20 euro artekoak dira, familiako gazte kopuruaren arabera.

> MENDIA  
**Barikua, mendi irteeran izena emateko azken eguna**

Egoki kirol taldeak antolatuta, azaroaren 26an ibilaldia izango da Elgeta inguruko mendietan. Bi ibilbide izango dira aukeran: Elgeta, Azula, Azkonabitxa, Egubarbitza eta Aixola batetik; eta bestetik Erdella, San Roman eta Intxorta. Izena emateko azken eguna azaroaren 23a da.

ZERBITZUAK > BAKE EPAITEGIA

## Pedro Mari Ubera, berriz bake epaile

Idazkariak eta laguntzaileak martitzen goizetan egiten dituzte agiri ofizialak eta bake epailea eguerdian joaten da sinatzera

I.A. > ELGETA

Hiru urte karguan egin ostean, bake epaile lanetan jarraitzeko proposatu dute Pedro Mari Ubera elgetarra. Ordezkoia Arantzazu Idigoras bergararra izango da.

Martitzenetan 09:00etatik 14:00etara bitartean idazkaria eta laguntzailea egoten dira udaletxe-

an, eta, aparteko deirik ezean, 12:30ean joaten da bake epailea.

Pedro Mari Uberak jaiotza, ezkontza zein heriotza agiriak sinatzen ditu; baita bestelako agiri ofizialak ere. Eta aurkeztu dute mozio bat heriotza agiriak herrian bertan egiteko; horrela, eskatzea ez da kanpora joan beharko.



UDALETXEAN Martitzen eguerdian udalatxeen egoten da bake epailea.

I.A.

## Gaztaina erre eguna ospatu zuten eskolan

Gaztaina erre eguna ospatu zuten eskolan barikuan. Txikiturri-k 20 kilo gaztaina erre zituen danbolinean eta gero ikasleen artean banatu zituzten. Eta gaztetxekoek ere egingo dute gaztaina erre jaia: gaur, barikua, 19:00etan plazan banatuko dituzte gaztainak eta 22:00etan ipuin kontalaria egongo da gaztxean. Etabihar, Anger eta Naizroxaren kontzertua 22:30ean.



JOSETXO ARANTZBAL

UDALA &gt; OSOKO BILKURA

# Masusta izena aukeratu dute haurreskolari ipintzeko

Azaroari dagokion osoko bilkura aurreratu egin dute; hori dela-eta, ez dute landu AHTren gaineko herri galdeketa

**UBANE MADERA > ARRASATE**  
Gai asko zeudela-eta, azaroaren 29an barik, oraingo asteko eguztenean egin dute azaroari dagokion osoko bilkura. Hori dela eta, Abiadura Handiko Trenaren gaineko herri galdeketa egin edo ez erabakitzeko puntuak ezin izan dute landu, goizegi zelako. Hala adierazi digu alkateak. Jakinarazi digunez, puntu hori abenduari dagokion osoko batzarrean landuko dute.

**BI IZEN AUKERATZEKO**  
Oraingo asteko batzarrari dagokionez, esandako moduan, gai asko zituzten zerrendan. Eta batzuk ezohikoak ziren; esaterako, bi izen berri aukeratu behar izan dituzte zinegotziek: bata haurreskolarako eta bestea etxe berriak egiten dituztenean sortuko den kale berrirako.

Hala, lehenengo kasuan, Masusta izena aukeratu dute hau-

rreskolari ipintzeko. Proposamen mordoa zituzten: Masusta, Sasitxo, Kokoriko, Kirikixo... Eta azkenean Masusta aukeratu dute, "polita delako, gutxi entzunda dagoelako eta, gainera, Gantzagan badagoelako leku bat izen hori duena". Irizpide moduan erabili dute haurreskolaren eraikinaren kokagunea: "Sasiak zeuden lehen", esan digu alkateak.

Eta bigarren kasuan, berriz, Osteta izena aukeratu dute kale berrirako; izan ere, alkateak esplikatu digunez, "inguru hori lehen zen Osteta; pasabide bat zegoen eta Osteta esaten zioten, atzeko aldean geratzen zelako. Orain ere, izen bera ipintzea egokia iruditu zaigu".

## Egurraren labela eta Plan Foralari egin beharreko eskaerak ere landu zituzten

Etorkizunari begira, Plan Foralaren hurrengo deialdia ere prestatu zuten eguzteneko batzarrean. Hain justu ere, datorren urteari begira hiru proiekturako diru eskaera egin behar dute: Etxaguengo azpiegiturako; Untzillako azpiegiturako eta pilotalekuaren landu gura duten proiektu baterako. Halakoetan ohi denez, gero Diputazioak erabakiko du zerendako laguntza eman.

Horrekin batera, Basogintzaren PERC edo egurraren labelaren gainezko zertifikazioa ateratzeko gestio plana aurkeztu zuten batzarrean. Indarrean jarri zegoen, egurraren labela lortzeko plana abiarazi ahal izango du orain Aramaioko Udalak.

## ZERBITZUAK LEHIAKETARA

Izen aukeraketaz gainera, bestelako gaiak ere landu zituzten eguzteneko batzarrean. Esaterako, zenbait zerbitzu lehiaketara ateratzea onartu zuen udalbatzarrak: haurreskolaren garbiketa, Udal Kiroldiaren mantentzelanak, mezularitza zerbitzua, domeketako zinemaren proiektzia, argi eta ur kontagailuen irakurketa eta kultura etxeko zerbitzuak. Horrenbestez, laster argitaratuko dituzte lehiaketa horietan parte hartzeko bete beharreko baldintzak.

Bestelako zerbitzuen artean, udalbatzarrak ez du onartu kalez kaleko salmenta arautzea, herriko dendarien alde egitearren.



TXOSNA Tabernatxo eta guzti ipini zuten, kale giroa alaitzeko.

LIHER LARREA

**JAIAK > GANTZAGA**

## Pozik daude antolatzaleak jaietako erantzunarekin

Bestetan baino jende gehiago ibili zen Gantzagan, batez ere zapatu gaueko erromerian

**U.M. > ARAMAIO**  
Jaiek hasteko, kantu afaria egin zuten barikuan, eta oso erantzun ona lortu zuen, 30 lagun elkartu ziren-eta. Zapatu-ko ekitaldiak ere ez ziren atzeman geratu, antolatzaleen esanetan. Mus txapelketan 13 bikote

lehiatu ziren, eta erromerian 05:30ak arte ibili ziren dantzan, Aramaiotik igotako lagunekin batera. Txirrindulari igoeran, osteria, ez zen jende askorik ibili, baina 26 urtean ekitaldi hori egitea lortu dutela nabarmendu dute antolatzaleek.

**AZPIEGITURAK > AHT**

## Biharko manifestaziora joateko hitzordua egin dute

AHTren kontrakoak 16:00etan elkartuko dira, Gasteizera joateko

Manifestazioa 17:00etan da, eta Aramaioko taldeak jakinarazi dute interesa duena 16:00etan azal daitekeela autobus geltokira.

**U.M. > ARAMAIO**  
Bihar, zapatua, manifestazioa egingo dute Gasteizen, Abiadura Handiko Trenaren kontrakoak. Hala, manifestazioan parte hartzeko dei egin nahi die herrikideei trenaren kontrako Aramaioko taldeak.

**ESKERRAK SINADURENGATIK**  
Bestalde, eskerrak eman gura dizkiete AHTren gaineko herri konsulta eskatzeko sinatu duten guztiei: "Oraingo astean oraindik ere sinadura gehiago batu ditugu. Eta konfiantza badugu herri konsulta egitea onartuko dutela, erokeria hau gelditzea beharrezko da-eta".

&gt; DIRULAGUNTZAK

## Laguntza behar duten adineko senideak etxearen zaintzen dituzten pertsonei laguntzeko neurriak

Dirulaguntza horiek eskatu ahal dituzte adinekoak etxearen zaintzen dituzten pertsonak, beti ere, honako baldintzak betetzen baditzute: 25 urtetik gorakoa izatea; eskaria aurkeztu aurreko hiru urteetan Araban erroldatuta egotea; adineko pertsonarekin bizi izatea, gutxienez, 2005 osoan; adinekoarekin senidetasun lotura izatea eta adinekoari emandako zerbitzuagatik inolako ordainik ez jasotzea. Laguntzak eskatu behar dira abenduaren 28a baino lehen.



IÑAKI NAFARRATE

## Iñaki Nafarrate garaile Udalaren lehiaketan

Martitzen arratsaldean elkartu zen epaimahaia Udal argazki lehiaketako irabazleak aukeratzeko. Honako hauek izendatu zituzten: Iñaki Nafarrate lehenengo (goikoa da bere argazkia); Nuria Altuna bigarren eta Anton Peña hirugarren. Hiruren argazkiak erabiliko dituzte abenduaren amaieran argitaratuko duten 2007ko egutegian. Finalista geratu diren beste argazki batzuekin osatuko dute egutegi hori. Guztira, 54 argazki aurkeztu dituzte Aramaioko Udalak antolatutako lehiaketara.

AISIALDIA > LUDOTEKA ETA LIBURUTEGIA ASTELEHENEAN ZABALIK

## Ludoteka eta liburutegia egunero egongo dira zabalik datorren astelehenetik aurrera

3 urtetik beherako  
umeak ere joan ahal  
izango dira ludotekara,  
gurasoek lagun eginda

Ludotekako hezitzalea  
egongo da liburutegian  
eta egunero zabalduko  
du 18:00etatik  
20:00etara bitartean

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Astelehenean zabalduko dute Gatzagako ludoteka 3 eta 6 urte bitarteko umeentzat. Ludoteka ez ezik liburutegia ere zabalik egongo da astelehena eta egubakoitza bitartean.

LUDOTEKA UMEENTZAT

Ez da samurra izan Gurel guraso elkarteko kideentzat hezitzalea aurkitzea ludotekarako, batez ere egunean ordubeterako bakarrak gura zutelako, baina han eta hemen ate joka jardun ostean,

astelehenean, azaroak 20, ikasturtea hasiko dute. "Aretxabaletarra da hezitzalea, eta Haur Hezkuntzako ikasketak bukatzen dabil", argitu digu Itsaso Egino Gurelako presidenteak.

Hori horrela, 17:00etatik 18:00etara zabalduko dute ludoteka, 3 eta 6 urteko umeentzat, asteko bost egunetan: "Adin tartea horretan, baina, ume gutxi daude herrian, eta leku handia dagoenez erabaki dugu ume txikiagoei ere atea zabaltzea, betiere gurasoekin badatoz. Hala, ohi-

tu egingo dira, eta hurrengo ikas turterako ez da leku ezezaguna izango eurentzat", dio Eginok.

LIBURUTEGIA, EGUNEAN BI ORDU

Bestalde, liburutegia indartzea erabaki dute Gureleko kideek. Ludoteka bezalaxe Garro jauregian dago liburutegia, baina orain arte ez du izan arduradun zuzenik, eta gazteak libururen bat hartu edo uzteko bakarrik pasatzen ziren. Hemendik aurrera, ludotekako hezitzalea egongo da, 18:00etatik 20:00etara bitartean, astelehenetik egubakoitza. Hala, liburutegira joateko ohitura hartuko dute ume zein gazteek, eta etxerako lanak egin edo ipuinei begira egon ahal izango dira egunean ordu bi. "Arduradun bat egonda ondo funtziona dezakeela uste dugu", esan digu Eginok. "Ikasturte honetan proba, behintzat, egin gura dugu, eta, ondo ateraz gero gainerako herriean bezala, liburutegien sarean sartzea pentsa dezakegu.

Bada, aurrerago baloratu beharko dute hori".

GAZTEAK, HANKAMOTZ

Ludoteka eta liburutegia zabaldu arren, gaztetxoen beharrak ase barik geratzen direla uste du Gureleko presidenteak: "Astean bertan eztabaidatu behar dute Udaleko ordezkariek zer egin dezaketen gazteek KZgunean, eta zela antolatu. Giltza orain Labidea denden daukate, baina ez da egoten arduradunik gaztekin. Horregatik, neure ustean liburutegia tokia egokia izan daiteke ordenagailuak jarri eta lanean jarduteko. Izan ere, KZgunean ez bezala arduraduna gainean izango lukete, edozein arazo sortuta ere. Hori guztia, baina, Udalak erabaki behar du".

Denbora laburra geratzen zaio Eginori, Gurelen laster aldatu koto dutelako zuzendaritzat batzordea, baina ikasturteko aisialdiko kontuak ondo lotuta utzi gurako lituzke joan aurretik.

## Herritarrok, oso pozik San Milixan eguneko giroarekin

Gatzaga jendez bete zen joan den domekan San Milixan eguna ospatzeko. Eguraldi ederra tarteko, bailarako lagun ugari hurreratu zen, eta giro bikaina sortu zuten guztien artean. "Antolakuntza aldetik hutsunetxo batzuk izan genituen, baina herritarrok oso pozik daude", azaldu digu Jon Sasiain zinegotziak. Sorginak taldea taloak egin eta egin ibili zen irin barik geratu arte, eta gatz museoa ezagutzera joan zirenak pozik itzuli ziren. Gainera, gatzezko bonboi bikainak gertatu zituzten.



> LANA  
**Lau lagun daude lan  
barik herrian,  
Eustaten arabera**

Joan den egunean, azaroak 9, kaleratu zituen Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) langabeziaren gaineko urriko datuak. Inemek emandako datuetan oinarrituta daude, eta haien arabera lau lagun daude Gatzagan lan barik. Lau lagun horietatik bi gizonak dira, 25 eta 44 urte artekoak biak. Eta beste biak emakumeak, bata 25 urtetik beherakoa eta bestea 25 eta 44 urte artekoa. Langabezia tasak gora egin duela esan behar da, aurreko hilabetean lagun bakarra zegoelako emplegu barik.

Debagoienean bestalde, 1.581 langabe zeuden urrian: 563 gizonak eta emakumeak ia bikoitza, 1.018. Eta Gipuzkoan 22.707 langabe.

Didjeridu

Musika, informatika, zinea...

Noiz:  
Eguenero, 22:15ean

**asteburuko hitzorduak****FUTBOLA**

**Lehenengo maila**  
Real-Betis  
Domeka. 17:00. Anoeta.

**Preferente maila**  
Aretxabaleta-Zestoa  
Domeka. 16:30. Ibarra.

Aloña Mendi-Ondarroako A.  
Domeka. 15:30. Azkogain.

Mondra-Hernani

Zapatua. 15:30. Atxabalpe.

**Lehen erregionala**  
Bergara-Segura  
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

**Bigarren erregionala**  
Elgeta-Zestoa  
Zapatua. 15:30. Unbe.

Aretxabaleta-Gazteak  
Zapatua. 17:30. Ibarra.

Eibartarrak-Antzuola  
Zapatua. 17:30. Unbe.

BTLS-Mondra

Zapatua. 17:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako gazteak**  
Vasconia-Aloña Mendi  
Domeka. 10:30. Martutene.

Beasain-Mondra  
Zapatua. 17:45. Beasain.

Aretxabaleta-Bergara

Zapatua. 15:30. Ibarra.

**Lehen mailako gazteak**  
Urki-Arrasate  
Domeka. 16:30. Unbe.

Antzuola-Bergara  
Zapatua. 15:45. Estala.

Arizmendi Aretx.-Soraluze

Zapatua. 11:00. Ibarra.

**Ohorezko mailako kadeteak**  
Bergara-Aloña Mendi  
Domeka. 16:15. Ipintza.

Arrasate-Kostkas M. Bihotza  
Zapatua. 12:00. Atxabalpe.

Zarautz-Arizmendi Aretxab.

Zapatua. 11:30. Asti Txiki.

**Lehen mailako kadeteak**  
Eibartarrak-Arizmendi Aretx.  
Domeka. 15:00. Unbe.

Bergara-Illintxa  
Domeka. 18:00. Ipintza.

**Ohorezko mailako infantilak**  
Sanse-Arizmendi Aretxaba.  
Zapatua. 10:00. Donostia.

Real Union-Arrasate

Zapatua. 11:45. Irun (Gal).  
Hernani-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:30. Zubipe.

**Lehen mailako infantilak**  
Orioko-Bergara  
Domeka. 11:00. Mendibeltz.

**Emakumezkoen Liga**  
Agurain-Arizmendi Aretx.  
Zapatua. 18:30. Agurain.

BTLS-Aloña Mendi  
Zapatua. 19:30. Ipintza.

Mondra-Gasteiz Cup  
Domeka. 15:30. Atxabalpe.

# "Eskolan, baserriak marraztu beharrean autobideak margotzen ibiltzen nintzen"

Andoitz Peñagarikano antzuolarrari txiki-txikitatik datorkio autoen eta abiaduraren gaine-

ko zaletasuna. Aitak sartu zuen giro horretan, eta zeharo *harrapatuta* dago. Une honetan Goi

Ingeniaritza ikasten eta Ulman lanean dabilen arren, Vilariño sendiaren taldearekin meki-

kari taldeetan ibiltzen da eta lasterketetarako autoa prest dauka, inoiz esku hartzeko.

IKER BARANDIARAN > ANTZUOLA

Andoitz Peñagarikanok argi dauka berebizitako zaletasun handienalasterketako autoak direla. Ingeniaritza gogorikastendabilen arren, ametsa lasterketetan esku hartzea da.

**Txintxoa zinen txikitana?**

Bai, txintxo samarra, baina aldreibeskeria batzuk egiten ditu. Adibidez, lagunen jostailuak, trizikloak... errekkara botatzeko ohitura handia neukan. Horren ostean, amak joan behar izaten zuen botatako gauzen bila.

**Zelan zaletu zinen lasterketa-ko autoetara?**

Aita zale porrokatua da. Gaztetan mekanikari lanean ibili zen, eta harra barruan darama. Horregatik, ume-umetatik autoen gaineko zaletasuna irakatsi dit: auto txikiak erosten zizkidan, lasterketak ikustera eramatzen ninduen, motorrean mendira joaten gin... Umetan, eskolan, beste ikaskideek baserriak marrazten zitzutenean, neuk autobideak egiten ditu. Egin kontu!

**Hortaz, gidabaimena berehala aterako zenuen, ezta?**

Bai, 18 urte bete eta bost egunera atera nuen.

**Zelakoa izan zen Antzuolatik Bergararako jauzia?**


Oso handia. Antzuolan beste modu baten ikasten genuen. Adibidez, 7. mailara arte ez genuen azterketarik egiten, eta ez genuen gaztelaniazko ikasgairik. Horregatik, Bergarako irakasteko sisteman sartea aldaketa handia izan zen. Eskeerrak matematikan askoz aurreratuago geundela... Gaur egun, zoritzarrez, euskaraz baino hobeto idazten dut gaztelaniaz.

**Horren ostean Arrasatera, MUra, jo zenuen ikastera. Ez duzu faltan sumatzen kanpora bizi izatera joan ez izana?**

Ez asko. Eduki nuen aukera proiektua egitera kanpora joateko. Nik Alemaniara joan gura nuen, baina Polonia nuen aukera bakarra, eta azken horrek ez ninduen askorik erakartzen. Dena dela, umetan, gurasoekin asko ibilita nago: Europa ia osoa zeharkatuta daukagu.

**Goi Ingeniaritza egiten dihar- duzu. Zalantzak zenituen Ingeniaritza egitea aukeratu aurretik?**

Batxilergoan emaitza txarra-goak izan banitu, automobilgin-



JOSETXO ARANTZABAL

## PERTSONALA

**Herria:** Antzuola. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak:** Ingeniaritza Mekanikoa. **Zaletasunak:** Autoa, motorra eta bizi-kletxa. **Prentsa, telebista, irratia ala Internet?** Telebista eta Internet. Azkena, autoen gaineko albisteak irakurri eta foroetan aritzeko erabiltzen dut. **Inoiz ez**

**duzu ahaztuko...** Olaberriko zirkuituan Ferrari eta Porscheak probatu nituela. **Maniarik?** Asko. Sei aldiitan begiratzen diot iratzargailuari ea jarrita dagoen, eta etxetik irten aurretek ezinbestekoa da argiak itzalita eta iturriak itxita dauden konprobatzea.

tzako modulua egingo nukeen. Baina nota onak nituenez, gurasoek Ingeniaritza egiteko animatu ninduten. Ingeniaritza Mekanikoa gustura egin nuen, eta orain Goi Ingeniaritza hasi berri dut. Gogorra da, baina ondo dago.

**Are gehiago, MUko irudia ere bazara...**

(Barre). Ingeniaritzako arduradunak deitu zidan, eta esan zidan katalogo bat egiteko argazkia egingo zidatela, gauza txikia zela. Baietz esan nien, eta, halako baten, hiru argazkilari etorri ziren niregana. Handik gutxira enpresta berekoek galderak egiteko deitu zidaten, eta, horren ostean, niri egindako argazkidun iragarkia ehunka komunikabide eta webgunean agertu zen. Zur eta lur gelditu nintzen.

**Arrasate gustuko duzu?**

MUN sartuta egoten naiz, eta herrian oso parranda gutxi egin ditut. Egia esanda, antzuolarrok ez daukagu Arrasatera joateko ohiturarik. Batez ere Urola eta Goierri aldera jotzen dugu, eta tarteka Bergarara.

**Oraindik auto lasterketetara joaten jarraitzen duzu?**

Jakin! Ahal dudan guztietara joaten naiz. Bi asteburuan behin, gutxienez, lasterketa bat ikusten dut: Asturiaren, Katalunian, Santanderren, Valentziaren, Errioxan, Euskal Herriko guztietan... Eskerrak neskualagunak ere zaletasun pixka bat duen. Halakoak ikustera joaten naizenean zeharo ahazten dut ikasten nabilela, hala deskonektatzen dut-eta.

**Eta nolatan ibili zara Vilariño sendiarekin elkarlanean?**

Aspalditik nenhilean mekanikari aritzeko asmoarekin, eta, aitak Andres Vilariño ezagutzen duela-eta, harremanetan jarri ninduen harekin eta Vilariño sendiaren taldeko mekanikariei laguntzen hasi nintzen. Hasieran Andresekin berarekin lanean ibili nintzen, eta, horren ostean, batez ere alaba Angelarekin. Izugarri gozatu dut, baina aspaldian Angela Europa aldean dabil, eta ni ikasten eta lanean nabilenez ez dut eurekin joateko aukerarik izan.

**Noiz ikusiko zaitugu zu lasterketetan esku hartzen?**

Horretarako dirua behar dut, baina etorkizunean hasiko naiz. Hala ere, zirkuituak jarri beharko lituzkete. Hemengo errepideetan ezin da azkar ibili.

Sustatu.com – Teknologia, Ekonomia, Kultura – Albisteak – Sustatu.com

Bergara Elgeta Eskoriatza Euskaltegiak Goiena.net Arrazua Danbaka.com Portada – Goiena.Net : Bloglines Elhuyar Hiztegi B

EuskalTerm 3000 Elhuyar Hiztegi Batua Itzul Harluxet Mokoroa Opentrad

Cookies CSS Forms Images Information Miscellaneous Outline Resize Tools View Source

**Sustatu**  
Teknologia · Ekonomia · Kultura

**Geoff McGhee NYTimes.com-eko gure artean**

Sustatu | 2006-11-16 | 09:12 | Internet  
The New York Times-eko webguneo Multimedia atalaren arduraduna, Geoff McGhee, Euskal Herri da egunotan, eta atzo EITBK antolatutako ekitaldi batean izan zen Bilbon.  
Guztia irakurri

**Literatura Susa**  
Publizitatea

**Edinburgoko Dukearen eskutik jaso dute "President's Award 2006" saria ikastolek**

Oihan Odriozola | Gipuzkoako Ikastolen Elkarte | 2006-11-15 | 18:50 | Hezkuntza  
Edinburgoko Dukearen eskutik jaso du Londresen Ikastolen Elkarteko ordezkartzak ESU PRESIDENT'S AWARD 2006 saria.  
Guztia irakurri

ITXURA ALDAKETA Urte hauetan gauza asko aldatu dira Sustatu-n; diseinua izan da aldaketa nabarmenetako. GOIENKARIA



Txokolateko erretroak

Vik Muniz argazkilari brasildarra da, eta New York-en bizi da. Besteak beste, erretro sorta berezi bat du bere webgunean, txokolatez egiten ditu oihal edo paperaren gainean erretroak, eta gero haiiei argazkiak. Sigmund Freud, Che Guevara... irudi klasikoak, ukitu gozoarekin.

ITXURA ALDAKETA Urte hauetan gauza asko aldatu dira Sustatu-n; diseinua izan da aldaketa nabarmenetako. GOIENKARIA

KOMUNIKAZIOA > BOST URTE BETE DITU HILAREN 16AN 'SUSTATU.COM' BLOG EUSKALDUNAK

# Bost urteren ostean, erronka berriak ditu 'Sustatu.com' blogak

Atzoko egunez, duela bost urte, argitaratu zen lehen artikulua 'Sustatu.com'-en; urte hauetan euskarazko komunitatea sendotu du Interneten

USOA AGIRRE > ARRASATE  
Oraingo astean bertan bete ditu Sustatu.com webguneak bost urte. Lehen blog euskalduna izan zen eta Interneten euskaraz komunikatzeko modu berria ekan zuen. Ordura arteko euskarazko webguneetan (eta beste hizkuntza askotan) batek idatzi eta besteek irakurri egiten zuten. Bada, Sustatu.com-ekin, irakurteaz gain, parte hartzeko auke-

ra etorri zen; guztia denbora errealean eta sarean.

Teknologia berrien eta Interneteko garaian, euskararen presentzia indartu eta bultzatu du Sustatu-k eta euskal profesionalesak batza eta elkar ezagutzea ekan zu du. Komunitatea sortu zuen.

## EZTABAIK

Idazteko aukera libre uzteak onura eta desabaintailak ditu. Hasieran onura izan zen; edozeinek parte har zezakeen eztabaidean. Gerora, ordea, eztabaideak moderatu beharra etorri zen; edozeinek edozer gauza idazten zuen anonimotasunaren atzean. Iban Arantzabal Sustatu.com-eko editore izan zen; hark dioenez, "parte-hartzea antzerakoa da, baina erantzunen kalitatean irabazi dela esan daiteke".

Gaur egun, ordea, eztabaideko eta komunikatzeko milaka

leku daude Interneten. Hor dago blogen boom-a, adibidez. Zerbait esateko duen edozeinek sor dezake blog bat. Sustatu-k erronka berriak ditu orain; video eta irudiari lotuagoa izango da datozen urteotan Sustatu.com. Eta euskarazko komunitatea sendoa izateko asmoarekin jarraitzen du

## EDITORETA ALDAKETA

Sustatu.com CodeSyntax enpresak eta Goienak sortu zuten. Hasieran, unibertsitate, komunikazio eta teknologia arloko profesionalen topagune izan nahi zuen eta helburu horrekin Goienak hartu zuen Sustatu-ren editoretza. Hala ere, Arantzabalek esan digunez, "urteak pasa ahal a blog teknologikoagoa bihurtu da eta teknologiaren pista gertuagotik jarraitzen dute CodeSyntaxekoeak. Handik kudeatzen da orain Sustatu".

## teknologia berriak

> NICOSTOPPER GAILUA

**Erretzeari uzten laguntzeko aparailua asmatu eta merkaturatu du Fagorrek, Nicostopper izenekoa**

Erretzeari uzten laguntzeko gailua asmatu du Fagorrek. 299 eurotan jarriko dute salgai, Fagorrek tresnak saltzen dituzten dendetan. Nicostopper izena dauka eta enpresaren azken berrikuntzak bat da; urtetako ikerketen emaitza. Nicostopper-ek zigarroak gordetzen kutxa bat dauka, eta programa informatiko eta pantaila txiki bat, menuarekin, ahalbidetzen duena erabilzalearekin uneoro komunikatzea. Bateria eta hura kargatzeko ere badauzka.



Erabiltzaile bakoitzari egokitutako erretzeari lagatzeko programa terapeutikoak ditu gailuak.

> ARGAZKI KAMERA

**Argazkilaritza digitalaren zaleentzako Nikonen argazki kamera erabilerrazena: Nikon D40**

Kamera txikiena, pisu txikikoa eta Nikonek ekoiztutako erabilerrazena dela diote.

6,1 MPX-ko sentsorea dauka, RAW eta JPEG formatuak erabiltzen ditu eta 2,5 hazbeteko pantaila. Biltzagiratza SD txartel bidez egiten da eta 18-55 mm f/3.5-5.6 G ED II AF-S lenteak ditu. Gainera, argazkiak ateratzeko aurrez hautatutako zortzi modu ditu eta pantailan informazio gehigarria ematen du irudia hartu aurretik. Salneurria: 480 euro inguru.



Gabonetarako aterako dute Ameriketako Estatu Batuetan Nikon D40.

> IRATZARGAILUA

**OHEa jaurtitzen duen Iratzargailu hegalaria, oso lotiak direnendako oso egokia**

Oso lotiak direnendako, Metalllica taldearen musikarekin ere esnatzen ez direnendako, goizetan ohetik altzatzea kostat egiten zaienendako... hemen iratzargailu egokia: iratzargailu hegalaria.

Amatzeko ohetik berehala altzaraztea eskatzen duen horietako da. Esnatu eta ohetik jaikitzeo ordua heltzen denean, soinu gogaikarria ateratzen du eta OHE bat (ovnia) bat jaurtitzen du. Isilarazteko modu bakarra da OHE hori harrapatu eta iratzargailuaren oinarrian berriro ere jartzea.



Esnatzeko ordua heltzean, OHE bat jaurtitzen du eta isilarazteko modua da OHE harpatzea.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko/blog/komertzialak](http://www.goiena.net-eko/blog/komertzialak)

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskal merkeea
- Emaizta onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:  
[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak) ·  
[azabarte@goiena.com](mailto:azabarte@goiena.com) ·  
943 76 92 70

Eta baita ere:

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)  
[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)  
[www.gelatzu.com](http://www.gelatzu.com)  
[www.haurtxoa.com](http://www.haurtxoa.com)  
[www.klorofila.com](http://www.klorofila.com)  
[www.landaluze.com](http://www.landaluze.com)  
[www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)



**berriak**

> MARRAZKI BIZIDUNAK  
**Sherlock Holmes**  
detektibearen  
abenturak GOITBn

Bihurkorra marrazkiei agur esan diete Goiena Telebistan, eta haien lekukoa detektibe azkar batek hartu du: Sherlock Holmes-ek. Kasu misteriotsuenak konpontzen lagunduko dio Watson-ek detektibe azkarrari. Bada, haien abenturak astelehen, eguzten eta egubakoitzetan ikus ditzakegu, 13:15ean, 17:15ean eta 20:15ean. *Nono chan* eta *Snorkel* marrazkiei gehitu zaie Holmes.

> GOITB  
**Xorroxin irratiaaren**  
**25. urteurreneneko**  
**bertso festa**

Azaroaren 4an, Lesakan, bertso saioa dotorea prestatu zuten Xorroxin irratiaaren 25. urteurrena ospatzeko. Taula gainean izen handiko sei bertsolari izan ziren: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Xabier Silbeira, Estitxu Arotzena eta Jon Barberena; eta gai jartzale, Manolo Arotzena. Bertso saioa aste bukaeran ikusi ahal izango duzue, zapatuan 14:30ean eta domekan 22:00etan.

> ARRASATE IRRATIA  
**Martitzentan**  
**'Elkarteen geltokia'**  
**du irratiko autobusak**

*Elkarteen geltokia* estreinatu berri dugu *Igo autobusera!* saioan. Izenak aditzera ematen duenez, Arrasateko elkartek ezagutaraztea du helburu. Asteon, Ibaiarte merkari elkarteko kide Jesus Mari Elkororekin elkartu gara han. *Asteko gainbegiratua-n* berreskuratuko dugu.

Datorren asterako, berriz, Ekin emakume elkarteko Lei-re Aperril eta Maite Uribarrenkin egin dugu hitzordua.

> ARRASATE IRRATIA  
**Belceblues eta**  
**Aby-Kem 'Danbaka'**  
**saioan entzungai**

Blues doinuak nagusituko dira 107.7ko *Danbaka* saioan zapatuan. Bergarako Belceblues taldeko Asier Elortza abeslari eta baxulariak taldea aurkeztu ondoren, Elgetako Espaloia antzokian eskaini zuten kontzertuarekin gozatuko dugu ondoren.

Domekan, berriz, hardcore eta metal doinuak nagusituko dira, Bergarako Aby-Kem taldekoekin. Mikel Alvarez abeslariaren azalpenak entzungo ditugu aurretik.

'DEBARRI' > EGUAZTENA, 21:15

## Eskoriatzarren txanda eguzteneko 'Debarri' saioan

Alberto Gorritibereak Juan Karlos Bengoari Eskoriatzako alkateari, egingo dizkie herritarren galderak

GOIENKARIA > ARRASATE

Askotariko aukerak dituzue eskoriatzarrok zuen alkateari galderak egiteko: batetik, [www.goiena.net](http://www.goiena.net) orrira sartu eta bertako eztabaideak aukera emanen dizue galdera planteatzeko. Eta nahiago baduzue telefonoz egin, deitu 943 71 23 96 zenbakira. Horrez gainera, GOITBko kamerak Eskoriatzan izango dira herritarren kezkak jasotzen. Zuek helarazitako galdera guztiak egingo dizkie Alberto Gorritibereak Juan Karlos Bengoari, Eskoriatzako alkateari datorren eguztenean, 21:15ean, *Debarri* saioan.



'DEBARRI' Juan Karlos Bengoia izango da saioan.

GOIENKARIA

'DANBAKA' > MARTITZENA ETA EGUNA, 21:45

## Estilo askotariko musika entzuteko aukera duzue Danbaka lehiaketan

GOIENKARIA > ARRASATE

Elgetako Espaloia Kafe Antzoki-ko taula gainean debagoienda-rak izango dira protagonista, gaur bertan. Igor, Mahaster River, Los Cretinos eta Yotox taldeek osatzen dute Danbaka kontzertuko kartela. Bertan izango

dira Goiena Telebistako kamerak ere, zuzeneko emanaldi horiek grabatu eta gero zuei eskaintzeko. Datorren martitzean, 21:45ean, Igor San Juan bakarlari aretxabaletarraren zuzenekoia ikusi ahal izango duzue. Igorren lehen kontzertua

izango da bakarlari, Elgetarako talde polita osatu duen arren. Pop doinu lasaiak Igorrek eskainiko digunak. Eguenean, berriz, hura ere gaueko 21:45ean, Mahaster River talde bergararra entzun ahal izango duzue. Hiru kidek osatzen dute talde beterano hori. *Irtenbiderik gabeko autobideak* izenburuaren kaleratu berri dute lehen diskoa. Bestalde, gogoratu behar da beste bi taldeen kontzertua (Los Cretinos eta Yotox) hil bukaeran eskainiko dizuela Goiena Telebistak, azaroaren 28an eta 30ean, hain zuzen ere.

**tele begi**

Edu Mendibil > [www.goiena.net/blogak/edu](http://www.goiena.net/blogak/edu)

### Spaghetti reality

**S**ergio Leone zinemaz zuzendariak *spaghetti western* azpi-generoarekin arrakasta itzela lortu zuen 1960ko hamarkadan. Almeria eta Errroma artean filmatutako westernak ziren, Ennio Morriconearen musikarekin lagundutako istorio geldoak eta bortitzak. Westernak italiar erara, hortik izena.

Euskal Telebistak *reality* merke eta errentagarrien aldeko apustua egin du. Iulian Iantzi da generoan espezializatutako aurkezlea; *Erletxa-n* Joxe Felipe Auzmendik ordezkatu du. ETBren arabera, lehen *reality* antropologikoa (!) da eta istiluak ez dira falta. Abandonatutako herri bat erabili dute grabaketarako. Espagetiak eta gailetaik solik janda protagonistek argaltzen duten bitartean, audientziak gora. Osagarri gutxi eta ikusleen gustuko platera antza. Western klasikoetan bezala, duelua da klimaxa: eguztenean Joxe Cruz eta Alain Lehiakideak izan ziren aurrez aurre, gari soro ederrea... garia mozten. Joxe Cruz itzuli zen Ezkurillara, Alain atzean utzita. Ikusleek aukeratu behar orain *Il buono, il brutto e il cattivo* (ona, itsusia eta gaitoa).

**arrasate irratia**

FM 107.7

**Zapatau**

10:00 Asteko gainbegiratua.  
Elkarteen geltokian, Ibaiarte elkartea berbagi; Lorategiaren geltokian, neguko orkideak berbagi; *Emakume pelotari* proiektuaren gainean Iratxe Aranburu Arrasateko kirol teknikariarekin...  
16:00 Danbaka: Belceblues.  
23:00 Danbaka: Belceblues.

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratua.  
16:00 Danbaka: Aby-Kem.  
23:00 Danbaka: Aby-Kem.

**Astelehenetik egubakoitzera**

10:00-12:00 Igo autobusera!  
Albisteak  
Eguraldearen iragarprena (Joxe Landa)  
Elkarriketak  
Zozketak  
Zorion agurrak  
(parte hartzeko: 943 71 17 31)  
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
12:20 Izarreren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

## GOITBko programazioa

**EGUBAKOITZA, 17**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka-Aby kem. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltze beroa 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjerido: Miguel Mari Urrutia. 16:15 Hitz Bitan 16:45 Albisteak. 17:15 Bihurkorra. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Debarri-Oñati. 18:45 Albisteak. 19:15 Erreportaje. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Mandio 22:15 Ilunpean-Jose Felipe Auzmendi. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

**ZAPATUA, 18**

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak: Nonochan, Sherlock Holmes eta Snorkeldarrak. 11:00 Ikuimira. 11:30 Jazmina. 12:00 Astekoak. 12:15 Gatz ta berakatza. 12:30 Didjerido-Miguel Mari Urrutia 13:00 Eltze beroa 13:30 Debarri-Oñati. 14:30 Berto saioa-Xorroxin irratia 25 urte. 16:00 Erreportaje. 16:30 Ilunpean-Jose Felipe Auzmendi. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Klip@. 20:00 16mm. 21:30 Danbaka. 22:00 Astekoak. 22:15 MKT. 22:30 Ilunpean-Jose Felipe Auzmendi. 23:00 Erreportaje. 00:00 Emisio amaiera.

**DOMEKA, 19**

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes, Nonochan eta Snorkeldarrak. 11:00 Mandio. 11:30 Erreportaje: Arientzako behiak. 12:00 Danbaka. 13:00 Gatzta eta berakatza. 13:30 Berbaire. 14:00 Astekoak. 14:15 Mkt. 14:30 Didjerido. 15:00 Ikuimira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Jazmina. 18:30 Mandio. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Astekoak. 20:15 Gatz ta berakatza. 20:30 Ilunpean. 21:00 Debarri-Oñati. 22:00 Berto saioa-Xorroxin irratia 25 urte. 22:30 Danbaka. 23:30 Emisio amaiera.

**ASTELEHENEA, 20**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes, Nonochan eta Snorkeldarrak. 11:00 Mandio. 11:30 Erreportaje: Arientzako behiak. 12:00 Danbaka. 13:00 Gatzta eta berakatza. 13:30 Berbaire. 14:00 Astekoak. 14:15 Mkt. 14:30 Didjerido. 15:00 Ikuimira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Jazmina. 18:30 Mandio. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Astekoak. 20:15 Gatz ta berakatza. 20:30 Ilunpean. 21:00 Debarri-Oñati. 22:00 Berto saioa-Xorroxin irratia 25 urte. 22:30 Danbaka. 23:30 Emisio amaiera.

**MARTITZENA, 21**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Erreportaje: Lurralen opari gorria. 14:45 Albisteak. 15:00 Didjerido. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Ikuimira. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albisteak. 19:15 Berriak. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportaje: Lurralen opari gorria. 22:15 Hasiberriak. 22:45 Berriak. 23:15 Didjerido. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Ikuimira. 00:15 Emisio amaiera.

**EGUZTENA, 22**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Erreportaje: Lurralen opari gorria. 14:45 Albisteak. 15:00 Didjerido. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Ikuimira. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Bizitegia. 18:30 Klip@. 18:45 Albisteak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka: Igor. 22:15 16mm. 22:45 Berriak. 23:15 Mandio. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Harmailatik. 00:15 Emisio amaiera.

**EGUENA, 23**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Debarri-Eskoriatza. 14:15 Danbaka-Igor. 14:45 Albisteak. 15:15 16mm. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Mandio. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmailatik. 18:15 Erreportaje: Lurralen opari gorria. 18:45 Albisteak. 19:15 Danbaka. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 20:45 Berriak. 21:15 Debarri-Eskoriatza. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Debarri-Eskoriatza. 22:15 Hasiberriak. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Erreportaje. 00:15 Emisio amaiera.

# "AITZINA. PIKA"

Zuberoako AITZINDARIAK elkarteak, ematen duen ikuskizun honetan, 12 taldek hartzen dute parte: Aidez Aire, Arrokiaga, Atharratze, Barkoxe, Eskiula, Iruri, Idauze, Lorraine, Ligi-Lexantzü, Maule, Muskildi eta Urdiñarbe.

64 dantzari • 10 kantari • 10 soinulari

IKUSKIZUNA

**Non:**

Arrasateko Amaia Antzokian.

**Noiz:**

Azaroaren 18an, zapatuan, 20:00etan.



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Aitzindariak alkarteko  
ikusgarria.



AITZINDARIAK

## AZAROA

17an, ostiralean 23:30ean.

OMARE (flamenko-Rumba)  
3 €



24an, ostiralean 23:30ean.

UNE + FUZZ

(Madril SUGARLESS ohiak)

5 €



## ABENDUA

17an, ostiralean 21:00etan.

BERTSO AFARIA  
(Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga)  
Erreserbak: 943 76 35 51



Lekua erreserbatu jostunen jai handirako!

# Azaroak 17-24

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeo, bidali informazioa  
eguzteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 01 • Fax: 943 25 05 13

## Ipuin kontaketa



ARRASATE

### > Afrika beltzko ipuinak kontatuko ditu Inongo-vi-Makome afrikarrak

Ipuin kontalaria eta idazlea da Inongo-vi-Makome. Afrika beltzean aditua da, eta tradizio horretako ipuinak kontatuko dizkie 5 eta 8 urte bitarteko umeei gaur, egubakoitza, Monterrongo haur liburutegian, 17:30ean.

## Kontzertua



OÑATI

### > Kaiser George & Hi-Risers taldearen 60ko hamarkadako doinuak

Kaiser George musikari britainiarra eta Hi-Risers rock hirukote estatubatuarra rockabilly eta 60ko hamarkadako musika doinuekin beteko dute gazteleku bihar, zapatua, 22:30ean. *Transatlantic dynamite* diskoa aurkeztuko dute.

## Erakusketa



BERGARA

### > Nagore Igartza antzuolarraren argazki eta margo muntaien erakusketa

Nagore Igartza artista antzuolarrak *Gelak* izeneko argazki erakusketa dauka Masterreka kaleko Nahikari tabernan. Argazkilaritzia eta diseinua gustuko ditu Igartzak, eta biak uztartzen ditu erakusketak. Azaro osoan dago zabalik.

## Antzerkia

ANTZUOLA

### > Interruptus taldearen musika eta antzerki emanaldia

Interruptus taldeak *Interrup-tour* antzerki eta musika emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Antzuolako gazte batzarrak antolatuta. Aktore batek, gitarraz lagunduta, kantu ezagunak abesten ditu; kantu eta kantu artean, bere kontzentzia ere agertuko da taula gainean.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean (behin-behineko lokalean), 23:00etan.

## Musika

ELGETA

### > Danbakako hirugarren kontzerturako sarrerak

Honako taldeek joko dute Danbakako hirugarren emanaldian, azaroaren 17an: Igor (Aretxabaleta), Mahaster River (Bergara), Los Cretinos (Arrasate) eta Yotox (Bergara). Sarrerak eta abonuak erosteko aukera dago Gaztekutzaren bidez, Espaloia antzokian edo Goienako egoitzetan, eta halaber 902 36 38 51 telefonora deitura. Danbakako kamisetak ere eros daitezke.

Argibide gehiago: [www.danbaka.com](http://www.danbaka.com).

BERGARA

### > Disko jartzaleen emanaldiak egongo dira Ziripot tabernan

Gaur, egubakoitza, Bergarako DJ Ibaik egingo du emanal-

dia Ziripot tabernan, eta bihar, zapatua, Legazpiko DJ Lalasek. Emanaldiak 23:00etan hasiko dira.

BERGARA

### > Skizoo taldeak disco berria aurreratuko du Jam aretoan

Madrilgo Skizoo rock taldeak disco berria, *Incerteza*, argitaratuko du urtarrilean, eta horko aurrerapen bat egingo du gaur, egubakoitza, Jam aretoan. Sarrerak salgai daude 12 eurotan; txarteldegian, 15ean. 22:00etan hasiko da kontzertua.

BERGARA

### > Arkada Social taldearen agur kontzertua Jam aretoan

Arkada Social taldeak agur kontzertua egingo du Jam aretoan, eta honako beste taldeek ere joko dute: Enboskak, Des-Kontrolek eta Anti-Socialek.

Bihar, zapatua, 22:30ean.

## Ikuskizunak

ARRASATE

### > 'Aitzina... pika' ikuskizuna egingo du Aitzindariak taldeak

Zuberoako Aitzindariak taldeak musika ikuskizuna egingo du. 12 taldek parte hartzen dute: 64 dantzariak, 10 kantariak, 10 soinu-jolek eta 100 bat jauntsik.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan.

ARRASATE

### > 'La leyenda del beso' zarzuela ikusteko sarrerak, salgai

*La leyenda del beso* zarzuela antzeztuko du aurten Izaskun Murgia lirika elkartea, eta berau ikusteko sarrerak astelehenean, hilak 20, jarriko dituzte salgai Amaia antzokiko txarteldegian.

Azaroaren 25ean estreinatuko dute zarzuela.

## ARETXABAleta

### > Pirinioetan eta Alpeetan egindako bidaiaiako irudiak

Pirinioetan eta Alpeetan bizikletaz egin zuen bidaia Aitor Arozenak, eta haren gaineko diaporama egingo du. Hilaren 23an, eguna, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

## Lehiaketak

BERGARA

### > XV. Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketa deitu dute

Amodiozko gutunen lehiaketa antolatu du Jardun elkartea. 1992an edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake. 450, 240, 150 eta 100 euroko sari bana emango dute. Lanak bidaltzeko mugaeguna urtarrilaren 7a da.

Argibide gehiago, honako webgunean: [www.jardun.net](http://www.jardun.net).

BERGARA

### > Emakumeen aurkako indareria salatzeko kartela

Emakumearen aurkako indarkeria gaitzesteko nazioarteko eguna da azaroaren 25a, eta gai horren gaineko kartel lehiaketa antolatu dute Udalak, Emakunde eta Beke elkartea. *Emakumeen aurkako indareria ez!* da derrigorrezko testua. Argibide gehiago, kultura etxearen.

Lanak entregatzeko mugaeguna azaroaren 20a da, astelehenetan.

## Ospakizunak

OÑATI

### > Herri guztiarendako jaialdia antolatu du Txanda elkartea

Jaialdia antolatu du Txandak, merkatarien elkartea. Bihar, zapatua, izango da. Oñatz taldeak dantza emanaldia egingo du, eta Txandak txorizo eta ardoa banatuko ditu, doan.

Bihar, zapatua, Herriko plazan.

## Bestelakoak

ARAMAIO

### > Bertso afaria egingo dute Leixarrondo elkartekoek

Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariekin bertso afaria antolatu dute Leixarrondo elkartekoek. Gai libreamen arituko dira.

Gaur, egubakoitza, elkartean, 20:30ean.

ESKORIATZA

### > 'Fahrenheit 9/11' filma emango dute Inkernu tabernan

Michael Moore zuzendari estatubatuarren *Fahrenheit 9/11* filma emango dute. 2001eko irailaren 11ko atentatuek George W. Bushen politikan zelan eragin duten aztertzen du filmak, ironiaz betetako tonuan. Eguaztenean, hilak 22, 22:00etan.

## PROPOSAMENA



ELGETA

### > Hondarribiko arraunlariekin jaia egingo dute herrian

Elgetako lagun koadrila batek Hondarribiko arraunlariek gonbidatu ditu bihar, zapatua, eta nahi duten zale guztiak ere gonbidatuta daude, umorea eta giro ona, ziurtatuta daude-eta.

Zapatu eguerdian ongiortorria egingo diete hondarribiarrei; gero, Elgetako eta Hondarribiko zaleek asto lasterketak, bolo jokoa eta beste norgehiagoa batzuk jokatuko dituzte. Bazkaria ere izango dute Ozkarbin.

Bihar, zapatua, izango da arraunlariek ospakizuna.

ARRASATE

### > Jon Fernandez de Arriaberaren margo erakusketa

Erakusketa dauka Jon Fernandez de Arriabea elorriarrak Harresi aretoan, honako bisita ordutegian: astegunetan, 18:00-20:00; zapatua eta jaiegunean, horrez gain, 12:00-14:00. Gai aldetik, paisaiak dira gehienak.

Hilaren 26ra arte dago zabalik erakusketa.

BERGARA

### > Miguel Okinaren margolan erakusketa Aroztegi aretoan

Miguel Okina bergararrak *Bizitza bat margoari eskainia* izeneko erakusketa dauka Aroztegi aretoan. Hauxe da bisita ordutegia: martxetenetik egubakoitzera, 18:00-20:30, zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30, eta domeketan, 12:00-14:00. Zabalik dago azaroaren 26ra bitarteen.

## nire aukera



Dorleta Kortazar  
Arrasateko Gazte Bulegoa  
Eskoriatza

## "Astrologia ikastaroa egingo dut asteburuan"

Ume txikia dugu, baina asteburuko ohiturak ez dira hainbeste aldatu; lehen lagunekin zapatu gauean irteten banitzen, orain domeka goizean irteten gara umeekin, pintxoak harzera, edo afariaren ordez bazkaria egiten dugu. Batez ere, udazken eta negu parteen gustatzen zait familia eta lagunekin bazkaltzea.

Goizean paseatzea gustatzenten zait, Urkulun edo Garaion. Noizean behin ere bidaiatu egiten dut, baina irteera motzak ditut gurago, herrimina sartzen zait-eta.

### Asteburu honetarako zer duzu pentsatuta?

Astrologia ikastaroa egingo dut. Hilean behin batzen gara, eta hain justu asteburu honetan da. Oraindik hasiberriak gara, baina gutun astralengainean bagoaz ikasten, eta laster hasiko gara horiek interpretatzenten.

**Hortaz, planetek guregan eragiten dutela uste duzu...**  
Badago eragina, bai. Gutun astralekin, norbera jaio zenean planetak non zeuden eta horrek une horretan eta bizitzan duen era gina azter daiteke.

### Gomendatzen dizut... lehiaketatik bidaiatzeko ideiarik atera duzu?

Bai, baina bidaia motzak ditut gustuko, herrimina laster sartzen zait eta. Edozelan ere, urtean behin lagunek egiten dugu irteeren bat baserri turismoa, Londresera, Erromara...

### Debagoieneko txokorik kuttunena?

Aitzorrotz; bigarren, Urkulu. Arrasatera lanera bakarrak etortzen naiz, baina alde zaharra da xarma handien duen lekuak.

# Zinema

### ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

El diablo viste de Prada  
Egubakoitza: 22:00.  
Domeka: 19:30.  
**La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja**  
Domeka: 17:00.

### EGETA ESPALOA ANTZOKIA

Some voices  
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI KULTURA ETXEA

El diablo viste de Prada  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehenetza: 19:30.

### Ant bully

Zapatua: 17:00.  
Domeka: 17:00.

### Asuntos pendientes

Eguena: 20:00.

### EIBAR UNZAGA

Pequeña miss Sunshine  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka: 17:00,  
19:30, 22:15.  
Astelehenetza eguztenera:  
19:30, 22:15.

### RIALTO

Los Borgia  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka: 17:00,  
19:30, 22:15.  
Astelehenetza martxetzena:  
19:30, 22:15.

### ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Va a ser que nadie es perfecto  
16:00, 18:00, 20:00, 22:15,  
00:30.  
Alatriste  
23:00.  
El diablo viste de Prada  
16:30, 19:00.

### GASTEIZ GURIDI

Infiltrados  
17:00, 19:45, 22:30.  
**Borat**  
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.  
**Dead or alive**  
17:00, 20:35, 22:30.  
**Colegas en el bosque**  
17:00, 18:45, 20:30.  
**Trastorno**  
17:00, 20:00, 22:30.  
**Copying Beethoven**  
22:30.  
**Scoop**  
17:30, 20:00, 22:30.  
**Una verdad incómoda**  
18:40.  
**Un buen año**  
17:30, 20:00, 22:30.

### FLORIDA-GURIDI

Los fantasmas de Goya  
19:45, 22:30.  
**La reina**  
17:00, 19:45, 22:30.  
**Ficción**  
17:30, 20:00, 22:30.  
**El laberinto del fauno**  
17:00.  
**Todos los hombres del rey**  
19:45, 22:30.  
**El ilusionista**  
17:00, 19:45, 22:30.  
**Beyond the sea**  
17:30, 20:00, 22:30.  
**Pequeña miss Sunshine**  
17:30, 20:00, 22:30.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Alatriste  
21:40, 00:20.  
**Todos los hombres del rey**  
19:45, 22:30.  
**El ilusionista**  
17:00, 19:45, 22:30.  
**Beyond the sea**  
17:30, 20:00, 22:30.  
**Pequeña miss Sunshine**  
17:30, 20:00, 22:30.

### Los Borgia

16:00, 19:00, 23:00.  
**Ellos**  
22:00, 00:30.  
**Colegas en el bosque**  
16:00, 18:00, 20:00.

### Wicker man

16:00, 18:00, 20:00.

### Jackass 2

16:00, 18:00, 20:00, 22:00,

### Yo soy la Juani

16:00, 18:00, 20:00, 22:15,

### 00:30.

### Betizu (euskaraz)

16:00, 18:00, 20:00.

### Dead or alive

16:00, 18:00, 20:00, 22:00,

### 00:30.

### El guardián

23:00.

### Click

22:15, 00:30.

### Gauderiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

### Los fantasmas de Goya

17:30, 20:30, 23:30.

### Domeka: 12:15, 16:15, 19:15, 22:15.

### Los Borgia

21:45, 00:25.

### Borat

12:15, 16:20, 18:20, 20:20,

### 22:20, 00:20.

### Scoop

19:45, 21:45, 23:45.

### Los fantasmas de Goya

18:10, 20:25, 22:40, 00:55.

### El corral

12:15, 16:15, 18:15.

### La dalia negra

20:15, 22:35, 00:55.

### Yo soy la Juani

12:15, 15:45, 17:45, 19:45.

### Un buen año

12:15, 16:00, 18:15, 20:30,

### 22:45, 01:00.

### Colegas en el bosque: el origen

20:35, 22:35, 00:35.

### Va a ser que nadie es perfecto

12:15, 16:10.

### El ilusionista

12:15, 15:45, 18:00, 20:15,

### 22:30, 00:45.

### Betizu (euskaraz)

16:00, 18:00, 20:00.

### Dead or alive

16:00, 18:00, 20:00, 22:00,

### 00:30.

### El guardián

12:15, 16:00, 18:00, 19:50.

### Monster house

12:15, 16:05.

### Saw 3

12:15, 15:40, 17:50, 20:00,

### 22:10, 00:20.

### La reina

12:15, 16:30, 18:30, 20:30,

### 22:30, 00:30.

### La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja

12:15, 16:30, 18:10.

### El ilusionista

12:15, 16:30, 18:25, 20:25,

### 22:25, 00:30.

### GAL

12:10, 20:25, 22:25, 00:45.

### La matanza de Texas: el origen

18:15, 20:20, 22:25, 00:45.

### Un buen año

12:15, 17:00, 19:45, 22:20,

### 01:00.

### La distancia

12:10, 16:00.

### La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja

12:10, 16:00, 18:05, 20:15,

### 22:30, 01:00.

### El ilusionista

12:10, 16:15, 18:15.

### La dalia negra

20:15, 22:35, 00:55.

### ÁBACO BOULEVARD

El corral

12:15, 16:20, 18:15, 20:15.

### Colegas en el bosque

12:15, 16:05, 18:10, 20:15.

### Borat

12:15, 16:20, 18:20, 20:20,

### 22:20, 00:30.

### Saw 3

12:15, 16:00, 18:05, 20:15,

### 22:30, 01:00.

### Pequeña miss Sunshine

22:15, 00:30.

### El ilusionista

# Romana Bilbao, gure enbaxadorea Venezuelan

**100 URTE** Bihar, zapatua, 100 urte egingo ditu Romana Bilbaok, Caracasen bizi den bergararrak

EDU MENDIBIL > BERGARA

Zer moduz, Romana? "Ondo, ondo...", erantzuten du telefonoaren beste aldean, Venezuelan, Romana Bilbao bergararrak. Euskal ereduki hitz egiten du oraindik; ez du ama hizkuntza galdu, 1939a ezkerro Venezuelan bizi den arren. Bihar, zapatua, egun berezia izango da Romanarentzat, 100 urte beteko dituela. Ane Miren alabak zera diosku: "Afari merienda egingo dugu etxean, lagunak etorriko dira, Zorionak abestuko diogu amari eta uste dut mariachiak izango ditugula, ohitura hori dagoelako hemen...".

Candido Irizarren alarguna da Romana. 1939an ezkondu ziren: zestan puntan jokatzen ibili zen

Candido Ameriketan eta erretiratutakoan Santa Teresa rona eta azukrea saltzen jardun zuen; Romanak modista lanak egin ditu. San Antonio auzoan jaiotako da eta azken aldiz 1986an izan zen Bergaran. Candido senarra hamar urte lehenago hil zen, 70 urterekin. Haren anaia bat, Pedro Irizar, hura ere Venezuelan bizi izandako, Bergarara etorri zen duela urte gutxi: 90 urte ditu Perico-k eta sasoi betean dago.

**BERGARAKO ENBAXADOREAK**

Venezuelan Doña Romana esaten diote Romana Bilbaori. Ane Miren alabarekin bizi da, Caracaseko Chaguraramos auzoan, eta

**OSPAKIZUNA** Lagunekin eta familiarekin ospatuko dute etxean, mariachi eta guzti

bergarar ugari igaro da haien etxetik: Venezuelan euskal enbaxadoreak ditugu.

Romana eta Candidoren seme-alabak aski ezagunak dira Bergaran; batxilergo ikasketak hemen egin zituzten eta lagun mordoa dauzkate gurasoen jaioterrian: Javier nagusiena arkitektoa da; Iñaki 1985ean hil zen, 40 urterekin, bihotzeoak jota; eta Ane Miren bidaia agentzia dauka, euskal ize-narekin gainera: Aireko. Zapatua egun handia izango da Romanaren etxean. Ilusionatuta eta urduri dabil Romana bere 100. urteurrenarekin. Medikuak esan berri dio bihotza primeran duela, beste urte asko ospatzeko moduan dela.



CARACASEN Romana eta Ane Miren alaba etxean, aurtengo udan. ARANTZAZU MUJIKO

## ahobero

"Zergatik  
Espainiako errege-  
erreginak ukiezinak  
dira eta  
Ingalaterrako  
erregina ez? Ez dut  
ulertzen"

Stephen Frears > Zinema zuzendaria Galdera bera egiten dugu askok. *La reina* filma egin du Frears-ek, baina antzerako zerbait Espainian egitea pentsaezina da oraindik. Borboien misterioak argitzea ondo legoke...

## iturri onetik

**Arrasate Musikaleko  
Big Band taldekoek  
disko berria  
kaleratuko dute**

Arrasate Musikaleko Big Band taldea diskoa grabatzen dabil egunotan. Hamar abesti izango ditu diskoak eta grabaketa Arrasate Musikalen bertan egokitutu duten estudioan ari dira egiten. Jazz, blues edota rock estiloko kantuak dira, eta tartean hainbat bertsio dira. 20 musika instrumentu inguru erabiliko dituzte eta diskoarekin lortzen duten diruarekin Eskozian hainbat emanaldi egitea da asmoa.

## piperraутса

Mikel Irizar > www.goina.net/blogak/piperraутса

### Iluntasuna

Berezko da iluna, argirik ezean ageri da. Eguzkirkir bez balitz, betirako geundeke ilunpean. Iluna berezkoada bada, argia dugu lorpen edo mirari. Egun argiz garatzen gara, eta egun argitsuan alaiago. Agian areago ere bai. Aldiz, ilunabarrik malenkonial eragiten digu; argi galduaren faltak, tristura. Eta beldurra: argia itzuliko ez balitz?

Hala ere, baserrian ikasi dut argirik gabeko gaua badela iluna, baina ez beltza. Eta ilargiak erakutsi dit bera ere gai dela iluna argitzeko, bere apalean. Ilunpean irauten ikasi dut, larritu barik egoten, egun argia itzuli bitartean. Baina egun luzeak ditut maite, argia daukat lagun.

Negu hurbilaz ari ninteken, urtarro ilunaren atarian. Edo une politikoaren ilunaz eta galtzen ari den argiaz...

## ai, eñe!



### Katuei gehiegizko maitasuna?

Normalean katuak izaten dira platera ondo miazkatzen dutenak. Bada, arraroagoa da katuak miazkatzen dituen jendea topatzea.

<http://tinyurl.com/yy7c83>

# iKER

### SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43  
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

### BAINUAK:

ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

